PSE-EE
PSOE

Gipuzkoako
Liburu
Zuria
2019/23

Aukera Ederra

Aurkibidea

Sarrera. Nondik gatoz eta nora goaz. 5

...Nondik gatoz. Zein ekarpen egin dugu sozialistok Foru Gobernuan? 5
Gipuzkoaren aurrerabidean mehatxu diren hainbat arrisku 7
Eta norantz goaz..... 24
Nola eta norekin egingo dugu? 25

Balio-kultura, populismo eta nazionalismoen gorakadaren aurrean posible dugun erantzun bakarra 26

Elkarbizitzaren, memoriaren eta giza eskubideen gipuzkoa 26
Genero berdintasuna. XXI. Mendeko emakumeen egiazko ahalduntzea 27
Garapenerako Lankidetza. Gipuzkoa, lurralde solidarioa. 29
Kultura 30
Kirolak 33
Euskara. Hizkuntza bat, gehiago izateko. 35
Gobernantza eta funtzio publikoa. Administrazio garden, parte-hartzaile eta inpartzial baterantz. 36

Hazkunde ekonomikoa eta kohesio soziala, krisi demografikoari aurre egin eta garapen iraunkorra bermatzeko bide gipuzkoarra 38

Gizarte politikak. 43
Ekonomiaren sustapena 48
Ogasuna eta politika fiskala eta finantzarioa. 54
Sarreren eta gastuen politika eraginkorra eta ekitatiboa. 55

Oreka eta konektibitatea, klima-aldaketaren aurka borroka egiteko lurralde-estrategia. 56

Ingurumena eta klima-aldaketaren aurkako borroka. 57
Landa-ingurunea ingurumenaren ikuspegitik. 62
Mugikortasuna eta garraio publikoa. 64
Azpiegiturak eta lurraldearen antolaketa. 73

Gipuzkoako Ezkerra

PSE-EEren proposamen politikoa, XXI. mendeko erronka etiko, ekonomiko, sozial eta ingurumen-erronkei aurre egiteko

Sarrera.
Nondik gatoz eta nora goaz.

Mundua azkartu egin da, aldaketak gero eta bizkorrago gertatzen dira eta erronka sozial, ekonomiko eta ingurumen-erronkak globalak dira, gizateria osoari eragiten diote. Iraultza digitalean, migrazio-, demografia- eta zientzia-iraultzetan murgilduta gaude. Eta gipuzkoarrok ez gaude erronka global horietatik kanpo, metamorfosi sakoneko garai honetan zein funtzio izan nahi dugun erabaki beharrean gaude. Ez dugu inoiz halako ziurgabetasunik bizi, eta horregatik da garrantzitsua lidergo sendo, gobernu egonkor eta ideiez beteriko taldeak izatea.

...Nondik gatoz. Zein ekarpen egin dugu sozialistok Foru Gobernuan?

PSE-EEk Batzar Nagusietarako hauteskundeetan lortu zituen emaitzak erabakigarriak izan ziren akordio eta aldaketarako Foru Aldundia eratzeko. Gipuzkoako Batzar Nagusietan lortutako ordezkaritza politikoari esker, beste behin ere, gobernagarritasun eta egonkortasun politikoa bermatzeko alderdi bihurtu ginen, eta zeharkakotasun, itun eta integraziotik politikak sustatzea lortu genuen, aurrerabide sozial, ongizate, berdintasun eta elkarbizitzara begira. 2015eko hauteskundeetan gipuzkoarrei aurkeztu genien Liburu Zuria oinarri hartuta, Gipuzkoan gertatutako aldaketa politikoa, sozialistok sustatuta, aringarria izan da Gipuzkoako gizartearentzat, zatiketa eta gatazkez nazkatuta baitzegoen, etengabeko “ezezkoan” oinarritutako politikez nazkatuta. Lurraldeari eskainitako zeharkako akordioek eta egonkortasun politiko eta instituzionalak berreskuratze ekonomikoa sendotzeari, enpleguari eta gipuzkoarron ongizateari laguntzen diote.

LaGipuzkoako sozialistok gure ukitu berezia eman diogu Foru Gobernuaren kudeaketa, lan eta asmoa indartzen, orain amaitzear den Legealdi honetan. Ibilbide luzeko arazoak kudeatu ditugu, hondakinen arazoa edo Pasaiaren birsorkuntza esaterako; porrot eta liskarrez beteriko zurrunbilo amaigabean lurraldea geldiarazteko mehatxu ziren. Aldundiak gehien behar dutenei eskaintzen dizkien gizarte-zerbitzu sorta hobetzen eta areagotzen lagundu dugu, eta orain Gipuzkoa desberdintasun gutxien dituen Europako eskualdeetako bat da.

Halaber, gizarte-politikari dagokionez bi alderdi garrantzitsu nabarmendu nahi ditugu: lehendabizi, gizarte-politikari bideratutako aurrekontua Gipuzkoako historian izan duen handiena dela: 542 euro biztanleko, zifra errekorra. Bigarrenez, Foru Aldundiak 2015eko Liburu Zurian aurkeztu genuen proiektu bat jarri duela abian, Gizarteratzeko Plana ezartzea, biztanleriaren sektore zaurgarrienak eta enplegagarritasunerako zailtasun handienak dituztenei zuzenduta. Nabaria da asko dugula egiteke, eta prekarietate handiari egin behar diogula aurre, baina gizarte-ongizatean inbertitzea izan da, eta izango da, Gipuzkoa oparo eta bidezkoa lortzen lagunduko digun tresnarik onena.

Ingurumena errespetatzea eta klima-aldaketaren aurkako borroka Gipuzkoako agenda politikoan zabaldu dira eta, arazo gisa ikustetik, aukera zoragarri gisa ikustea lortu dugu. Birziklapena eta berrerabilpena ez dira jada inposaketa, aberastasun-iturri baizik. Gipuzkoan ez da inoiz orain beste birziklatu, eta hori herritarren borondate askeari esker izan da, eta kudeaketa-autonomiak eskaintzen dizkigun estrategia eraginkor eta azpiegiturei esker.

Bestalde, nabarmendu nahi dugu zerga-alorrean aberastasun eta oparotasuna sortzeari eman diogula garrantzia, eta zerga-tratamendu onuragarriagoa eskaini diegula produktibitateari eta aberastasun eta enplegua sortzeari zuzendutako ekimenei. Halaber, zerga-iruzur eta -saihestearen aurkako borrokari dagokionez, 2013ko Herri Itunak abiapuntu, bereziki Legealdi honetan garatu direnak, erakundeen arteko lankidetza garrantzitsua lortu dugu, Ikuskaritza Plan Bateratuetan azaleratu direnak. Horrek guztiak, eta egoera ekonomiko onak, Gipuzkoan diru-bilketa errekorra lortzen lagundu digu.

Gipuzkoan enplegua etengabe sortu da azken lau urteotan. Kezkagarria zaigu enplegu horren zati bat ezegonkorra eta prekarioa izatea, PPren gobernuak sustatutako politika liberalen ondorioz, baina egitura ekonomiko osasungarria indartu dugu eta hori, hein handi batean, industria eta zerbitzuetan oinarritu da; Pedro Sánchezen gobernu sozialista berriak langileen eskubideak murrizten dituzten marko laboralak leheneratuko dituela espero dugu. Gipuzkoako azken langaberaino iristeko hartu dugun txanpa hau indartzea behar dugu. Gure helburua enplegu osoa da, eta hori da gure esku dagoen xede egingarri bat, gure enpresa eta lan-zentroek behar dituzten egonkortasun eta konfiantza-beharrizanak sustatzen baditugu.

Hainbat balio izan ditugu gida. Gipuzkoan garatutako kultura-kudeaketak talentu artistikoa bultzatzea izan du helburu, kultura-egoera berritzea, sortzaileei aukera berriak eskaintzea, Gipuzkoa aniztasunari irekitzea, euskara zabaltzea eta gure ondasun kulturala mundura zabaltzea. Elías Querejeta Zine Eskola berria sortu dugu Tabakaleran, Arkitektura Institutu berria Santa Teresa Komentuan, Kultura Bonoa berreskuratu dugu, eta Koldo Mitxelena zentroaren berritzea jarri dugu abian. Halaber, kultura-mezenasgoaren lehenengo foru-araua onartu dugu, erakunde pribatuek kultura finantzatzen duten esku-hartzea sendoagoa, askeagoa eta independenteagoa izateko. Zerga-arau berri bat ere eratu da, gorantza doan Gipuzkoako zinema-industria sustatzeko. Kirola berdintasuna, osasuna, gizarteratzea eta aberastasuna sortzen laguntzen duen tresna boteretsu gisa azaleratu da, eta horretarako, baita ere, beharrezkoa da begirada luzea izatea, berehalakoaz harago ikusi ahal izateko.

Garraio publikoak ere aldaketa nabarmenak izan ditu legealdi honetan, egunero erabiltzen dugun milioika erabiltzaileen ikuspegitik. Azkenean, MUGI txartelak lurraldeak eskaintzen dituen garraio-mota guztietarako balio du, baita RENFE zerbitzuetarako ere. Tarifa finkoa sortu dugu, gazteek garraio publikoa mugagabe erabiltzeko, eta topo zaharra modernizatzeko lanak bultzatzen buru-belarri gabiltza, geltoki eta maiztasun handiagoak izateko, eta metro gisa RENFEren aldiriko trenekin lotzeko. Errepide-azpiegituren kapituluan, gure lau promesa handiak bete ditugu: gipuzkoarrok Euskadiko errepide guztietako ordainleku guztietan erabiltzeko tarifa finkoa, Irunera A8tik sartzeko Hegoaldeko Errepidea eraikitzea, Urola Garaia eta Debagoiena lotzea Antzuola-Bergara zatia amaituta, eta abian jartzea, zailtasunak zailtasuna, N1 errepideko bidesari berriak kamioientzat.

Halaber, Gipuzkoako modernizazio ekonomikorako oinarriak jarri ditugu abian, gizarte oparoa eraikitzeko asmoz, eta, horretarako, lurraldean denbora luzez ezaugarri izan ditugun balioak batu ditugu: enpresa-ausardia, talentua eta etengabeko lana. Gipuzkoako foru-gobernutik sozialistok sustatzen lagundu

dugun etorkizuneko apustuen artean, nabarmentzekoa da biozientziaren sektorearen bultzada, Gipuzkoa sektore horretan inbertsioak egiteko lurralde erakargarri bihurtu dugu; elektromugikortasunari emandako laguntza, Gipuzkoako industria bereziki ona da etorkizuneko eremu horretan; zibersegurtasuna, gure industriaren balio erantsiko produktu eta zerbitzuen lehiakortasunerako ezinbesteko osagarri gisa eta gure gaitasun teknologikoetan oinarritutako merkatu-hobi berri gisa.

Baina egin dugu beste gehiago ere, baliteke gizarteari eman geniezaiokeen garrantzitsuena: politika egin dugu. Politika bezalako tresna laidoztatuaren bidez, foru-gobernua gipuzkoarren zerbitzura eta lurraldearen interes orokorraren zerbitzura ipintzea lortu dugu. Horrekin batera, erakundeen erabilera alderdikoi eta identitarioa ekidin dugu, ez dezagun ahaztu, erakundeak Gipuzkoako gizartearenak direla, eta berau anitz eta pluralagoa dela, hainbat ikusmolde sektario eta interesatuek bestelakoa pentsarazi nahi badigute ere. Politika ezberdinen artean akordio zabalak lortzeko ulertuta, konponezineko blokeen dinamika eta krispazioa gaindituta, aurkari politikoarekiko errespetua eta gipuzkoarren interes orokorra ardatz hartuta. Printzipio eta balioen politika. ETAren terrorismoaren behin betiko desagerpenaren ondotik etorkizuna elkarbizitzan eraikitzeko politika. Indarkeriaren biktimak gure lehentasunen erdigunean kokatzeko politika, memoriari, justiziari eta erreparazioari laguntzeko. Gorrotoa eta intolerantzia ez daitezen inoiz gehiago gure artean inposatu.

Gipuzkoaren aurrerabidean mehatxu diren hainbat arrisku

Legealdia gure gain hartutako konpromiso gehienak beteta eta lurralde eta gizarte nabarmen hobeagoa dituela amaitzen badugu ere, Gipuzkoako sozialistok ezin ditugu gure aurrerabidea eta etorkizuna mehatxatzen dituzten arazo eta arriskuak ez aintzat hartu, eta egoera onean gaude horiei aurre egiteko. Zehazki, honako hori buruz ari gara:

1) Euskal politikaren katalanizazioa eta, bereziki, Gipuzkoako politikarena

Gipuzkoan jasandako indarkeriazko eta bestea ukatzeko urte luzeek diskurtso totalitarioen eta gizartea uniformatzen dituztenen aurka egotea eragin dute, horiek materialki zein espiritualki gizartea txirotzen baitute. Katalunia obsesio identitarioen dinamikan sartzeak eragiten duenaren ispilu garbia da, elkarbizitza apurtu, gizartea blokeetan zatitu eta politika eta demokrazia ikertzen baitute, proiektu nazionalista baztertzaileentzako tresna huts bihurtzeraino.

Katalunian gertatzen ari denak, politikaren eta lider politikoen erantzukizunaren esanahia samingarriki hustuta, gizarte eredugarri kataluniarra ziurgabetasun eta atzerakada sozial eta politikozko zurrunbiloan sartzea eragin du. Berau, herritar guztiak ari dira ordaintzen, politikak ospea galdutako sentsazioarekin, lan- eta bizitza-aukera gutxiagorekin, zerbitzu publiko gutxiago eta okerragoekin eta, batez ere, bizilagunarekiko mesfidantzarekin eta espazio publiko eta eztabaida zibilizatuaren okertze nabarmenarekin. Egoera horrek gizarte katalana Europatik eta aurrerabide sozial eta ekonomikotik urruntzen du. Hortaz, herritarren elkar-ulertzean eta benetako arazoen ebazpenean oinarritutako elkarbizitza eta politika ziurtzat jo ezin dugun ondare preziatua da, eta pedagogia eta elkarrizketa dosi handiak eskatzen ditu.

Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratu datuen arabera, hazkunde ekonomikoaren gailurrean egonik, euskal industrian eskarien sarreraren urteko aldaketa-tasa % 16 hazi zen bitartean –autonomia-erkidegoen batez besteko hazkundea % 11,9koa izan zen–, % 2,3 baino ez zen hazi Katalunian, eta Kataluniak zituen, krisi politikoaren aurretik, ratio ekonomiko onenak. Era berean, BPGdren hazkundeari dagokionez, Kataluniak Espainiako batez bestekoaren azpitik dauden indizeak lortu ditu.

TASA DE ENTRADA DE PEDIDOS

Datos 2017. En %
Fuente: INE
Noemi Sánchez/EL MUNDO GRÁFICOS



COM. DE MADRID	76,8
PRINC. DE ASTURIAS	23,5
EXTREMADURA	16,9
PAÍS VASCO	16,0
ANDALUCÍA	11,9
NACIONAL	**11,9**
COM. VALENCIANA	10,5
C. - LA MANCHA	10,1
MURCIA	9,3
ARAGÓN	8,5
CANTABRIA	5,8
CASTILLA Y LEÓN	5,5
CATALUÑA	2,3
BALEARES	-0,8
CANARIAS	-2,3
NAVARRA	-5,2
LA RIOJA	-7,2
GALICIA	-8,8



Halaber, adierazgarria da, 2018ko maiatzaren 20ra arte, 4.000 enpresak alde egin zutela Kataluniatik, eta enpresa-ekimen horien ihesa ez da enpresa berrien sorrerarekin orekatu; ratio hori 2017an % 14,3 jaitsi zen 2016ko aldi berarekin alderatuta, Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera.

N° EMPRESAS QUE ABANDONAN CATALUÑA
NOVIEMBRE: 894 / DICIEMBRE: 318

N° EMPRESAS SE INSTALAN EN CATALUÑA
NOVIEMBRE: 40 / DICIEMBRE: 55

TOTAL ABANDONAN: 4.057
HASTA 20 DE MAYO 2018



Enpresa-pertzepzioa ere kaltetu egin da, alderdi guztietatik begiratuta, Katalunian, agenda politikoaren deriba soberanista hasi zenetik eta lurraldean ordena sozial eta ekonomikoetan ezegonkortasun politikoak sortzen duen ziurgabetasuna hasi zenetik. Era berean, atzerriko inbertsioa nabarmen kaltetu zen Katalunian; 349 milioi euro gordinekoa izan zen lehenengo hiruhilekoan, hau da, urtez urteko % 62,5 jaitsi zen, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak argitaratutakoaren arabera.

PERSPECTIVAS EMPRESARIALES 2018
CATALUÑA Y CONJUNTO DE ESPAÑA
*Saldos netos



INVERSIÓN EXTRANJERA EN CATALUÑA [2016 - 2018]
FLUJOS DE INVERSIÓN BRUTA (millones de euros)
PORCENTAJES DE VARIACIÓN INTERANUAL

Fuente: Ministerio de Industria, Turismo y Comercio
Fuente: Cámara de Comercio Española



Ahalegin politiko guztiak eraikuntza nazionala deitutakora bideratzen diren bitartean, zerbitzu publikoak dramatikoki ari dira okertzen Katalunian. Osasun publiko kataluniarra Espainiako laugarren okerrena da, eta itxaron-zerrendak Estatu mailako hirugarren luzeenak dira. Halaber, gobernua XIX. mendekoa litzatekeen independentzia aldarrikatzen buru-belarri dagoen bitartean, Kataluniak erkidego guztien arteko desarreta-tasa handiena erregistratu du, % 37,1ekoa (% 24,5ekoa da estatuko batez bestekoa). Nabaria da lurralde horrek pairatu duen Sistemaren paralizazio edo atzerakadako hiru urteak, Menpekotasunaren Behatokiaren XVIII Txostenaren arabera.

RANKING DE LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS EN SERVICIOS SANITARIOS 2017

TIEMPO MEDIO PARA OPERARSE POR COMUNIDADES
II SEMESTRE 2017

Fuente: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. Epdata



PUNTUACIÓN OBTENIDA POR LAS CCAA.
XIV DICTAMEN DE DEPENDENCIA

Fuente: Observatorio estatal de la dependencia
Elaboración: Belén Picazo





Azaldutako datuak nabarmen ezberdinak dira Euskadik bizi dituen ongizate eta garapen ekonomiko eta sozialeko ratioekin alderatuta, bertan PSE-EEk agenda politiko eta kudeaketa publikoaren lehentasunak baldintzatu dituen zeharkako gobernuak baitzeuden. Hori dela eta, sozialista gipuzkoarrok, gaitzetan onena ikusi beharrean, ezberdinen arteko zeharkako akordioak lortzearen balioa eta garrantzia aldarrikatzen ditugu, Gipuzkoak eta Euskadik aurrera egiteko formula onena bezala.

Akordio zabal eta errealistak ehuntzea behar dugu, politikari arazoak konpontzeko tresna izaera emateko, berez arazo bihurtu ez daitezen. Akordio horiek herritarrak kohesionatzea dute helburu, eta borondate zabal eta egonkorrak bateratu behar dituzte, Europako eta Espainiako marko juridiko eta politikoan barne hartutako lege-bermeak beteta, gure autogobernua soberania partekatutako egoeran indartu eta optimizatzeko. Aurten, 2019an, Gernikako Estatutuak 40 urte beteko ditu. Estatutuarekin batera sortu zen Euskadi subjektu politiko gisa, komunitate nazionala egituratzeko, Espainia den nazioen nazioaren baitan. Herritar aske, berdin, ireki, plural, identitate-sentimenduen eta partaidetza ezberdinen integratzaileen komunitate nazionala, baina bateragarriak eta elkarri aurre egin gabe.

Ikuspuntu horretatik, gure aldarrikapena da, konplexurik gabe eta harro adierazita, europar izaerako herrialde honen eraikuntzari egindako ekarpena, historian ezagutu duen garapen eta oparotasun kota altuenak lortu baititu. Gaur egun, Katalunia da gizarte gisa lortu nahi ez dugunaren adierazle.

Ondare partekatu baten inguruan lan egin dugu, eta ezin dugu hori politika zalantzagarri, irrazional eta zaharkituetan xahutu, garapen sozial eta ekonomikoranzko bidetik aterako baikaituzte, eta amildegi eta aurrez aurreko antzu eta hondatzaileetarantz eramango baikaituzte. Gure apustua autogibernu indartsu eta eraginkorra bete-betean garatzearen aldekoa da, gizartearen zerbitzura leial eta eskuzabalki jarritakoaren aldekoa, bakean elkarbizitzen duten herritar askeek osatutako gizartearen aldekoa.

Hala ere, ez da sekretua Gipuzkoa dela Euskal Herriko lurralde abertzaleena, eta Gipuzkoako EAJ dela ezker abertzalearekin elkar-ulertzeak bilatzeko joera duena, gizartearen posizio esentzialista eta homogeneizatzaileenak defendatzen dituena. Hori dela eta, oso kezkatuta gaude, Gernikako Estatutua aldatzeko Eusko Legebiltzarrean eratutako autogobernu ponentziaren jardunean gertatzen ari denaren inguruan, estatutu hori baita euskal eta gipuzkoar erakundeen arkitekturaren muina. EAJk eta EH Bilduk marko konstituzionala gainditzen duten erreformarako oinarriak onartu dituzte, eta Gernikako Estatutua bera ere, berau erreformatzeko prozedurari dagokionean. Oinarri horiek euskal gizartea zatitzen dute, eta gizarteak erdietsitako lorpen guztiak estutasunean jartzen dituzte. Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderditik, irmo adierazi nahi dugu Euskadi eraikitzeko modu posible bakarraren alde lan egiteko borondatea dugula, eta modu hori itun, zeharkakotasun eta integrazioaren bidetik etorriko da. Tolerantzia eta demokraziatik.

2) Gipuzkoako gizartearen zahartzea

Gipuzkoa zahartzen ari da. 30 eta 50 urte bitartean kokatzen da Gipuzkoako guztizko biztanleriaren ia herena (% 29,16). 1975ean batez besteko adina 31,55 urtekoa zen eta, gaur egun, gipuzkoarren batez besteko adina 44,69 urtekoa da. 2031n adin hori 47,19 urtekoa izatea espero da. Biztanleriaren piramidea oinarritik estutuko da, eta goikaldetik zabaldu. Azken hamabost urteotan, 65 urtetik gorako biztanleria % 26 hazi da lurraldean; 151.362 pertsona dira. Gaur egun, bost gipuzkoarretatik bat (% 21,3) adin horretatik gora dago.

Zahartze-indizea, 64 urtetik gorako eta 16 urtetik beherako biztanleriaren arteko lotura gisa ulertuta, beste behin ere hazi egin da: % 139,43 (2016an % 136,19koa izan zen, 2015ean % 134, 54koa, 2014an % 132,86koa eta 2011n % 128,44koa); Euskadikoarekin alderatuta txikiagoa da (% 145,00) eta Espainiakoarekin alderatuta handiagoa (% 118,28). Gainera, menpekotasun-tasa hazteko joera argia dago (65 urtetik gorako biztanleria, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriarekin alderatuta), eta pixkanaka pasako da 2010eko % 28,8tik 2030eko % 44,9ra (Eustat).



Gipuzkoako biztanleriaren pixkanakako zahartze geldiezinak eta bizitza-itxaropena luzatzeak gure gizarte- eta arreta-zerbitzuak finantzatzearekin lotutako erronkak proposatzen ditu; adineko biztanleriak behar bezalako bizitza-kalitatea edukitzeko beharrezko zerbitzu eta prestazioak eskaintzea; gure enpresen hazkunde ekonomikorako beharrezkoa den eskulana; zahartzen ari den eta gazteriaren bultzada eta ausardia behar duen lurraldearen dinamismo eta ausardia, lurralde erakargarri eta berritzaile izaten jarraitzeko. Biztanleria aktiboaren aldaketa-indizea, erretiroa hartzeko gertu dagoen biztanleriaren (60-64 urte) eta lan-merkatura txertatuko denaren (20-24) arteko lotura gisa ulertuta, hazi egin da, beste urte batez: % 144,70 (2016an % 144,30ekoa izan zen, 2015ean % 143,73koa, eta 2011n % 138,96koa); Euskadikoarekin alderatuta txikiagoa da (% 153,50) eta Espainiakoarekin alderatuta handiagoa (% 114,50).

Zahartzen ari den lurraldearen baitan, udalerri guztiek ez dute errealitate bera bizi. Gaur egun, Gipuzkoako 88 udalerrietatik, 38tan bertako biztanleriaren % 20 baino gehiago 65 urtetik gorakoa da. Zerrenda horretan herri txikiak ditugu, baina baita nukleo garrantzitsuenak ere, esaterako, Donostia (% 22,89), Irun (% 20,67), Eibar (% 24,54) edo Errenteria (% 22,74). Adineko biztanleriaren pisu gehien duten udalerrien artean, zerrendako buru dugu Olaberria. Goierriko udalerri horretan, hiru herritarretatik batek 65 urte baino gehiago ditu. Beste muturrean, biztanleria gazteena duten udalerrien zerrendaren buru dugu Altzaga. Bertan, % 30,64k 19 urte baino gutxiago ditu. Zerrenda horretan nabarmentzekoak dira beste udalerri batzuk, gehienak biztanleria baxukoak: Larraul (% 29,27), Orexa (% 28,95) edo Irura (% 27,83). Azken udalerri horretan, 19 urtetik beherako biztanleria nabarmena izateaz gain, adineko herritar gutxi ditu: % 9,89k baino ez ditu 65 urte baio gehiago. Lurraldearen osotasunean, bost herritarretatik batek 19 urte baino gutxiago ditu (% 19,19), Eustaten 2016ko Biztanleen Udal Estatistikaren datuen arabera.

Arazoa konplexua da eta deribatu asko ditu. Zahartze gorakor horren faktore nagusietako bat Gipuzkoako eta Euskadiko jaiotze-tasa baxua da. Eustaten arabera, 2017 urtean Euskadi eta Gipuzkoako jaiotze-tasa 7,9koa izan zen 1.000 biztanleko. 60ko hamarkadan zifra hori ‰ 20tik gorakoa zen eta Espainiako batez bestekoaren gainetik; orduz geroztik, jaitsiera etengabekoa izan da.

CRISIS DEMOGRÁFICA 2002 - 2017

NACIMIENTOS

TASA BRUTA DE NATALIDAD (en tanto por mil)

Fuente: INE

* Datos provisionales



Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal itunak adieraztera ematen duenez, jaiotza-tasa baxuak seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomikoekin oso lotuta daude, baita desberdintasunak belaunaldiz belaunaldi transmititzea hausteko gero eta zailtasun handiagoekin ere –eta horrek aukera-berdintasunaren printzipioa zalantzan ipintzen du–. Era berean, jaiotza-tasa baxu hori gizonen eta emakumeen arteko genero-desberdintasunarekin lotuta dago, argi baitago gure inguruko beste herrialde batzuk aztertzen baditugu, Frantzia edo Suitza esaterako; herrialde horietan, zenbat eta genero-berdintasun handiagoa, orduan eta ugalkortasun-tasa handiagoa gertatzen baita. Azkenik, gure gizartearen kultura-paradigmetan gertatutako aldaketek, gero eta kontsumista eta indibidualistago izateko eredurantz garamatzatenek, jaiotza-tasan eragina dute, zalantzarik gabe.

Gure gizarteetako biztanleriaren zahartzeak dudarik gabeko eragina du enpresetan eta enpleguan. Gure jarduera-tasa ia 3 puntu jaitsiko da datozen 10 urteetan (Enpleguaren Euskal Estrategia 2020), eta Estatuarekin diferentzial negatiboa haziko da; horrek, aldi berean, Europar Batasuneko jarduera-tasa baxuenetakoa du.

Epe ertain eta luzera biztanleria aktiboaren beharrizanaren inguruko hainbat estimazio daude. Kualifikazio Panoramaren estimazioak (EU Skills panorama programa) Euskadiren kasura ekarrita (Ekonomiaz, 2015), 27.000 lanpostu berri sortuko dira Euskadin 2025 urtera bitartea (% 3 haziko da); eta 55.000 lanpostu berri, kalkulua Espainiarentzako aurreikusitako hazkundearen estimazioetan oinarritzen bada (% 7ko hazkundea). “Enpleguaren etorkizuna Euskadin” txostenaren arabera, CEDEFOPen datuak Euskadiren kasura estrapolatuta, bitarteko egoeran 2013-2025 aldian 38.000 lanpostu garbi berri sortzea aurreikusten du (% 5 aldi osorako).



Gainera, garrantzitsua da azpimarratzea enplegu berri horietako askok kualifikazio-maila handiagoa eskatzen dutela, zehazki % 21ek, eta EBren baitan hori kualifikazio-maila handiagoa duten herrialdeetan gertatzen dela (goi-mailako prestakuntza-zikloak, unibertsitate-graduak eta doktoretzak); aldiz, hezkuntza-maila baxuagoetan (Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzan) hori % 22 murrizten da. Hau da, azterlan ezberdinek adierazten dute kualifikazio ertain eta altuko enpleguaren hazkunderantz goazela, eta kualifikazio baxua behar duten lanpostuak nabarmen murriztuko direla.

UE-28



	Nivel alto de educación (2013-2025)	Nivel medio de educación (2013-2025)	Nivel bajo de educación (2013-2025)
Sector primario	28	-4	-49
Agricultura, silvicultura y pesca	37	37	-52
Minas y canteras; electricidad, gas, vapor y aire acondicionado, suministro de agua, actividades de saneamiento, gestión de residuos y descontaminación	7	-35	50
Construcción	80	-19	-28
Fabricación	19	-6	-14
Distribución y transporte (comercio al por mayor y al por menor, reparación de vehículos de motor y motocicletas; transporte y almacenamiento; y actividades de hostelería)	91	-4	9
Negocios y otros servicios	21	3	14
Información y comunicación	-17	28	9
Actividades financieras y de seguros	3	0	-43
Actividades inmobiliarias	26	9	10
Servicios profesionales, científicos y técnicos; actividades administrativas y servicios auxiliares y otras actividades de servicios	27	2	19
Administración Pública y defensa; Seguridad Social; Educación; Actividades sanitarias y de servicios sociales	23	0	-27
Actividades de los hogares como empleadores; actividades no diferenciadas de producción de bienes y servicios de hogares para uso propio	42	-11	-10

Fuente: Estrategia Vasca de empleo 2020

Hortaz, garrantzitsua izango da gure ekonomia eta gure gizartearen beharrizan ekonomiko-sozialak estaltzera deitutako immigrazioa modu adimentsu eta ordenatuan kudeatzea, gure gizarte-ereduak txertatzea behar dituen profil, gaitasun eta prestakuntza duten pertsonak erakartzea, hala, etorkizun oparoa eta integratzen den immigrazioa lortzeko, beste gizarteetan ikus daitekeen arazo-iturri izan beharrean.

Halaber, bizitza-itxaropen handiagoarekin eta adineko pertsona guztiei baldintza duinak emateko politika publikoekin lotutako gizarte-gastuak. Ezinbestekoa da botere publikoek joera hori behar bezala aurreikusi eta planifikatzea oraintxe bertatik hasita –Gipuzkoan, 2031n, biztanleriaren % 46,5, 55 urtetik gorakoa izango da–. Gipuzkoako Foru Aldunditik legealdi honetan abian jarri dugun Adinberri ekimenak arazo hori bi alderditatik jorratzen du; zahartze aktibo eta osasungarrirako ereduak garatzen ditu, eta; adinekoen arreta eta zaintzan berrikuntzaren inguruko merkatu-aukera eta -hobiak identifikatzen ditu, *silver economy* delakoaren bidez.

Zahartze osasungarri eta adinekoen zaintzarekin lotutako zerbitzu eta produktuetan lan egiten duten Gipuzkoako enpresen aukerarako espazioan eratzeaz gain, adineko pertsonek esperientzia eta balio handiak dituzte eta, maiz, ezinbestekoak izan daiteke gure gizartearentzat. Hala, beharrezkoa da adineko pertsonak gure gizarte-garapenean eta ezagutzaren transmisioan txertatzeko formulak aurkitzea.

Hala ere, hirugarren adinak sortzen dituen erronkak eta pentsio-sistema duinarekin lotura dutenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenetik at daude, eta gizarte-erakunde eta -eragile guztien azterketa eta estrategia integrala eskatzen dute; eremu horretan, Aldundiak funtzio aktiboa izan beharko du Gipuzkoako adineko pertsonen interesen defentsan.

3) Desberdintasuna

Azken bi hamarkadetan mendebaldeko gizarteak ezaugarri izan duten globalizazio ekonomikoaren ezaugarrietako bat desberdintasunaren hazkundea eta erdi mailako klasearen murriztea izan da. Oxfam erakundearen azken txostenaren arabera (Ongizate publikoa edo onura pribatua. 2019ko urtarrila), mila milioidun kopurua krisi ekonomikoa hasi zenetik bikoiztu egin bada ere, eta horien dirutzak eguneko 2.500 milioi dolarreko erritmoan hazten badira ere, elite ekonomiko eta enpresa handiek azken hamarkadetako zerga-tipo baxuenak ordaintzen dituzte. Hainbat teoria neoliberalek desberdintasuna hazkunde ekonomikoak berezkoa duen egiturazko egoera dela defendatzen dute, eta planteamendu horrek sozialistentzat onartezinak diren premisa moralak ditu.

Gipuzkoan, eta hein batean izaera europar sozialdemokratako ongizate-egoera izateari esker, desberdintasun sozioekonomikoko ratioak batez bestekoaren gainetik badaude ere –Gini indizea jaitsi egin da Gipuzkoan, 2014ko 26,3 puntutatik 2017ko 25,3 puntutara–, gure eredu ekonomikoak Gipuzkoako desberdintasun-arrakala haziko duela iragartzen duen benetako mehatxua dugu, gure ingurunean gertatzen den moduan.

Horrez gain, hemen eta orain, sozialistok onartu ezineko egiturako desberdintasun-poltsak ditugu, eta hori eta gure poriektu politikoa blaitzen duen funtsezko printzipioaren aurka joango litzateke, hau da, berdintasunaren printzipioaren aurka. Ildo horretatik, bereziki aipatzekoa da langile txioren errealitatea; beren soldatarekin hilabete amaierara iristen ez diren langileak, beren bizitza garatzeko lanak berme izateari utzi dio. Kolektibo horrek, zalantzarik gabe, Gipuzkoako erakundeen erantzun irmo eta sendoa behar du.

EVOLUCIÓN DE LOS INDICADORES DE POBREZA Y DESIGUALDAD EN GIPUZKOA

		2012	2014	2017	2017/2014
Indicadores EU-SILC	Riesgo de pobreza relativa	16,8%	15,6%	16,4%	+0,8
	Riesgo de pobreza grave	4,3%	5,4%	5,3%	-0,1
	Privación material severa	5,2%	5,2%	6,9%	+1,7
	Baja intensidad laboral	9,3%	8,4%	5,7%	-2,7
	Tasa APOPE	22,7%	19,5%	19,2%	-0,3
	Pobreza relativa población ocupada	7,0%	6,2%	10,2%	+4,0
Indicadores desigualdad	Índice de GIN I	27,2%	26,3%	25,3%	-1,0
	S80/S20	3,8%	4,0%	3,8%	-0,2
Indicadores ingresos (euros al mes)	Renta mediana equivalente	1.404,2%	1.420,6%	1.533,3%	+112,7
	Umbral de pobreza relativa	842,5%	852,4%	920,0%	+67,6
	Umbral de pobreza severa	561,7%	568,3%	613,3%	+45,0

2018ko urtarrileko datuetan DSME laguntzen 60.405 titular erregistratu baziren ere, eta hirugarren urtez jarraian zifra hori murriztu bada ere: 2016 urtearekin alderatuta 3.392 hartzaile gutxiago daude, % -5,32; hala ere, 2009 urtearekin alderatuta, 19.000 pertsona gehiago dira. Onuradun gehien kontzentratzen dituen adin-tartea 35 urtetik 44 urtera bitarte doa (% 26,83); gainera, laguntzak jasotzen dituzten pertsonen % 57,09 emakumeak dira. Lurraldez lurralde aztertuta, Arabak urtea 8.892 onuradunekin itxi zuen, Bizkaiak 37.385rekin eta Gipuzkoak 14.128rekin (-911 pertsona; % -6,06 2016ko abenduarekin alderatuta). Pobrezia-arriskuari dagokionez, pobrezia-arriskuaren tasa (pobrezia-atalasearen azpitik dauden pertsona portzentajea, hori pertsonen kontsumo-unitateko diru-sarreren % 60rekin neurtzen da) Euskadin bizi den biztanleriari dagokionez (% 9,0) jaitsi egin zen 2015ko datuekin alderatuta (% 10,9), eta 2011n erresgistratutako maximoetatik are urrunago kokatu zen (% 13,8). Espainiaren osotasunean, 2016 urtean % 22,3an kokatu zen, aurreko urteko % 22,1aren aurrean.

Halaber, Gipzukoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko azken inkestaren arabera, soldatapekoen % 10 dago pobreziatik hurbil, hilean 920 euro baino gutxiagoko diru-sarrerekin. Bestalde, eta azken urteotako oparoaldi ekonomikoan Gipuzkoa enplegu osorantz hurbiltzen ari bada ere, lan-kontratu askoren prekarietatea bere maila altuenetan dago, eta aldi baterako kontratu guztien % 31 da. Belaunaldien arteko desberdintasunak adieraztea garrantzitsua da, baita ere. Eusko Ikaskuntzak berriki argitaratutako Liburu Berdearen arabera, “15 urtetik beherako pertsonen pobrezia-tasa 65 urtetik gorako pertsonena baino bost aldiz handiagoa da” (Eusko Ikaskuntza, 2018). Haur-pobrezia eta ziurtasunik gabeko etorkizunean aurre egin beharreko itxaropen eta aukerak gutxiagotzea muineko kontua da Gipuzkoako sozialistentzat. Ildo horretatik, ez dugu nahi Gipuzkoan Stiglitz Ekonomiaren Nobel sariak bere azken liburuan (desberdintasunaren prezioa) adierazten duen errealitate iluna betetzea. Horren arabera, pobre jaiotzen direnen % 90 pobre izateagatik hilko dira, egiten dituzten ahaleginak eginda ere, eta aberats jaiotzen direnen % 90 aberats hilko dira, egitean dutena eginda ere.

Edonola ere, sozialistok helburu dugun berdintasuna eta gure ekintzen adierazle dena, gainera, zentzu zabaleko berdintasuna da, hau da, baldintza soziekonomikoko berdintasunaz gain, kultura, genero eta bizi-proiektuko berdintasuna da ere, pertsonena ez ezik, baita lurralde eta eskualdeena ere. Berdintasun horrek meritokrazia indargabetuko duen pribilegio mota ororen aurka egitea esan nahi du, halabeharrez.

Azken batean, sozialistek Gipuzkoarentzat egiten dugun proposamena da pertsona orok izatea lurralde honetan beren amets eta bizi-proiektuak askatasunez eta aukera-berdintasunaren baita garatzeko baldintzak izatea, Gipuzkoako pertsona guztiek, emakume eta gizonek, hemen jaiotakoek eta kanpotik etorritakoek, euskaraz hitz egiten dutenek eta gaztelania edo beste hizkuntzak hitz egiten dituztenek, nazionalistek eta ez nazionalistek, ezberdin maitatu eta sentitzen dutenek, lan egiten dutenek eta lanpostu bat aurkitzeko urduritasunez bizi direnek, ikasi ahal izan zutenek eta hezkuntzarik jaso ez dutenek, bizitzan bidea irekitzen ari direnek eta gazte izan zirenek, egun bizi direnek eta etorkizunean etorriko direnek, autonomo gisa lan egin eta ETEtan lan egiten dutenek, edo enpresa handi batean lan egiten dutenek, industrian lan egin edo zerbitzuetan lan egiten dutenek, ondare saneatua dutenek eta hilabete amaierara iristen ez direnek, familia osatu dutenek eta bakarrik bizi direnek, kostaldean bizi direnek eta barnealdean bizi direnek; azken batean, gipuzkoar guztiek.

Premisa horiekin, sozialistok konpromiso berezia dugu berdintasunarekin, hau da, beren bizitza osotasunean garatzeko zailtasunak dituzten pertsona guztiekin. Hori dela eta, gure ustez, emakume, gazte, adineko, beren seme-alaben etorkizuna zalantzaz ikusten duten erdi mailako klasekoek eta gizartean osotasunean integratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonek begirada eta arreta berezia merezi dute Foru Aldundiaren aldetik.

Lurralde-desberdintasunak

Maiz aditzen dugu herrialde honetako nazionalismo hegemonikoak Estatuak egiten duen baliabide-banaketei dagokionez dituzten kexak eta erdigune eta periferiaren artean egiten diren alderaketa okerrak. Hala ere, ez dago, hemen eta orain, herrialdeko lurraldeen arteko guztion ondasun partekatuak nola banatzen ari direnaren inguruko hausnarketa seriorik. Horrek ez luke ondoriorik izango, eta ez luke analisi baloratiborik mereziko, baina esku-hartze publikoak EAEn bizi diren pertsona guztien arteko berdintasuna baldintzatu eta zehazten du, baita etorkizuneko aukeren eremuan eta gure espazio-eremuaren oparotasunean ere.

Hori dela eta, Euskadi osatzen duten lurralde guztien berdintasuna aldarrikatu eta nahi dugu, eta onuren eta zamen banaketa bidezkoa eta orekatua izatea. Gipuzkoaren baitan, eta eskualdeei dagokienez, berdintasun handiagoa nahi dugu, arazo sozioekonomikoak dituzten eremu horiei arreta eskainita; hala, gipuzkoar guztiek izatea zerbitzu publikoak eta etorkizun antzekoa, bizi diren lekua edozein delarik ere.

Gipuzkoa eta Euskadi

Aurrez aipatu dugun moduan, euskal autogobernuak eta kontzertu ekonomikoak onura mota oro ekarri dizkio Euskadi eta Gipuzkoari. Datu guztiek adierazten dute lurraldearen historia osoko maila sozioekonomiko altuenak ditugula. Hala ere, eta lurraldearen garapen sozioekonomiko hori badugu ere, badira itzal batzuk ere, euskal erakundeen arkitekturan eta euskal baliabideen banaketan desoreka garrantzitsuak ere, eta Gipuzkoa kaltetuta ateratzen da bertatik.

Ildo horretatik, beharrezkoa da aipatzea, lehendabizi, Ekarpen Legea. Lege horrek zehazten du foru-aldundiek –zergak jasotzen dituztenek–Euskadiko administrazio orokorrari eman beharreko baliabide kopurua, Eusko Jaurlaritzak finantza dezan eskumenak dituen zerbitzu eta funtzioen kostua, hala nola, hezkuntza, osasuna edo segurtasuna. Kalkulu hori, besteak beste, Foru Aldundi bakoitzak jasoko duenaren inguruko irizpide eta aurreikuspen batzuen arabera eta euskal BPGd osoan duen tamaina ekonomikoaren arabera egiten da. Hori bai, 2011 urtez geroztik luzatzen ari den banaketa-sistemaren arabera, Gipuzkoa zenbateko handiagoa ematen ari da, zerga-bilketa mailari eta benetako tamaina ekonomikoari dagokienez.

Pasa den urriaren 11ko Finantza Batzordean lortutako akordioen arabera, Gipuzkoak euskal administrazio orokorrari benetan bildutakoa baino 73,2 milioi gehiago bideratu beharko lizkioke. Horrek justifikaziorik gabeko defizit berria esan nahiko luke, eta araudia luzatu zenetik gehitzen den beste bat da; guztira 800 milioi euro gainditu dira. Egoera horren aurkakoa gertatzen da Bizkaian, beste behin ere, euskal herritarren baliabide partekatuen onura eta zamak kudeatzeko sistemak onura egiten dio.

Pasa den otsailaren 4ko Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan aparteko funts bat egiteko akordioa lortu zen, eta hori gutxiengoen akordioa zen, ekitaldi honetan Gipuzkoak pairatzen duen baliabide publikoen murrizketaren zati bat orekatzeko. Hala ere, denok dakigu Gipuzkoako EAJren hauteskunde-adababakia dela, ez baita gai izan 2011 urteaz geroztik luzatutako ekarpen-legearen egiturazko erreforma beharrezkoa jorratzeko akordioa lortzeko. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzaren euskal ekarpenen lege berria berritzea, hiru lurraldeentzako marko bidezko, egonkor eta orekatua izateko, lehentasunezko eta gehiago ez luzatu beharreko kontua izan behar da Gipuzkoako agenda politikoan, gipuzkoarron interesekin beligerantea izateko.

APORTADO SEGÚN LA LEY DE APORTACIONES (2007-2017)
CÁLCULO DEL 70% DE LOS INGRESOS DE CADA TERRITORIO (2007-2017)
* ELEMENTO DE SOLIDARIDAD ALIMENTADO CON CERCA DEL 1% DE A RECAUDACIÓN TOTAL

Cifras expresadas en millones de euros



TOTAL APORTADO POR LAS HACIENDAS AL EJECUTIVO

95.267,8

Egoera ekonomiko-finantzario hori, gainera, bi aldiz da bidegabea Gipuzkoarentzat, euskal sektore publikoko entitate, sozietate, fundazio eta erakunde nagusien egoitzak non kokatzen diren kontuan hartzen badugu. Hainbat salbuespen txiki badaude ere, Etxepare edo Musikene esaterako, euskal administrazioaren sektore publikoa osatzen duten entitate, fundazio, sozietate eta organismo sorta osoa Bizkaian eta Araban kokatzen da, baita turismo, industria, kultura edo memoria historikoaren ingurukoak ere; horiek, hasiera batean, Gipuzkoako lurraldean koka zitezkeen.

Ez da nolanahiko kontua, kontuan hartzen badugu sozietate horiek jarduera ekonomiko garrantzitsua dutela, milaka lanpostu sortzen dituztela eta, batez ere, Euskadi osorako inbertsio-lehentasun eta -programak ezartzen dituztela.

Zuzeneko jarduera ekonomikoaz gain, Eusko Jaurlaritzaren egoitzen kokapenak zuzeneko eragina dauka, zalantzarik gabe, sektore publikoak sustatutako kongresu eta bileren kokalekuetan. Ekimen horiek lurraldeak bisitatzeko arrazoi dira, MICE gisa ezagutzen den turismoa sortzen dute, eta horietara bertaratzen dira kultura-prestakuntza eta sozioekonomiaren sektorean kualifikatutako bisitariak. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten kongresuen % 59,5 Bizkaian egin ziren, eta Gipuzkoan % 19,3 baino ez. Zifra horiek sektore pribatuarekin alderatuta oso ezberdinak dira: % 33k Gipuzkoa hautatzen du ekimenak ospatzeko, eta horrek adierazten du euskal erakunde partekatuek Bizkaia lehenesten dutela, batez ere Gipuzkoaren aldean tratu pribilegiatua duela.

LUGAR DE CONGRESOS CELEBRADOS POR O CON LA PARTICIPACIÓN DEL GOBIERNO VASCO.



Eusko Jaurlaritzak esku hartu eta Gipuzkoaren ekonomia eta enpresa-garapenarentzako beste kontu lazgarri bat parke teknologikoei buruzkoa da. Parke teknologikoetan kokatzen dira enpresa berriak, ezagutza intentsiboaren eta I+Garen eremuan kokatu ohi diren star-upak. Gipuzkoarentzat, funtsezkoa da lehiakortasunerako baldintzak dituzten instalazioak izatea, biozientzia edo elektromugikortasunaren moduko sektore ekonomikoko enpresak erakarri ahal izateko.

Hala ere, Gipuzkoako parke teknologikoaren okupazio-maila ia beterik dagoen bitartean (okupazio-maila % 99 ingurukoa da), Bizkaian % 65ean dago, eta Araban % 40an. Zifra horiek ikusita, Eusko Jaurlaritzak Parke teknologikoetarako Plan bat iragarri du, 70 milioi euroko inbertsioak egitea aurreikusten du espazioa handitu eta enpresa-garapen eta ikerkuntza publiko-pribatuko alorrek eskaintzen dituzten zerbitzuak areagotzeko. Hala ere, eta espero litzatekeenaren alboan, inbertsio horiek bereziki Ezkerraldean parke teknologiko berri bat eratzeko bideratu dira, eta Zamudioko parkean eraikuntzak areagotzeko, Geldo eta Arestiko lursailetarantz. Bestalde, Leioako campusa garatzea sustatu eta Zamudioko parke teknologikoan parte hartzeko inbertitu da. Zehazki, proiektu horietako bakoitzean inbertsioaren banaketaren arabera, Bizkaira bideratutako zenbatekoa 61 milioi eurotik gora kokatzen du inbertsio-kapitulu horretan, eta enpresa gorakorrak dituen Gipuzkoak 6 milioi euro jaso ditu, Arabak 3 milioi… ez dirudi zaila irudikatzea zein erabaki hartuko duten Gipuzkoako lurraldean kokatu nahi duten enpresek.

Gipuzkoan

Lurralde-desberdintasunak ez dira Euskadiren baitako lurraldeekin alderatuta bakarrik hautematen, Gipuzkoan bertan eskualde eta lurraldeen arteko desberdintasun handiak baitaude. Gabirian deklaratutako errenta likidoa, adibidez, Pasaiako errentaren bikoitza da, eta Errenteria, Irun, Eibar eta beste hirigune batzuk udalerri oparoenetatik urrun daude.

MUNICIPIOS SEGÚN LA BASE LÍQUIDA MEDIA — BASE LÍQUIDA MEDIA

1. GABIRIA 35.002
2. ARAMA 32.635
3. DONOSTIA 28.745
4. BEASAIN 28.589
5. HONDARRIBIA 27.199
6. IDIAZABAL 26.527
7. IKAZTEGIETA 26.504
8. LEINTZ-GATZAGA 26.486
9. EZKIO-ITXASO 26.414
10. MUTILOA 26.320
11. ZARAUTZ 26.266
12. ORMAIZTEGI 26.208
13. ANTZUOLA 25.950
14. OÑATI 25.429
15. ZERAIN 25.266
16. ORDIZIA 25.002
17. SEGURA 24.967
18. ADUNA 24.956
19. ZUMAIA 24.828
20. LAZKAO 24.619
21. TOLOSA 24.485
22. GETARIA 24.461
23. EIBAR 24.137
24. OLABERRIA 24.108
25. BERGARA 24.108
26. ELDUAIN 24.073
27. ATAUN 24.042
28. URRETXU 24.002
29. ELGOIBAR 23.948
30. ALBIZTUR 23.947
31. ARETXABALETA 23.868
32. MENDARO 23.765
33. ALTZO 23.748
34. GAINTZA 23.649
35. DEBA 23.564
36. AMEZKETA 23.544
37. ZALDIBIA 23.468
38. BELAUNTZA 23.335
39. ZEGAMA 23.164
40. ARRASATE 23.164
41. LEGAZPI 23.057
42. ELGETA 22.929
43. ORIO 22.911
44. AZPEITIA 22.840
45. IRURA 22.804
46. ASTIGARRAGA 22.712
47. BERASTEGI 22.489
48. ASTEASU 22.475
49. ORENDAIN 22.458
50. OREXA 22.448
51. OIARTZUN 22.364
52. AZKOITIA 22.328
53. ARBALTZISKETA 22.327
54. BEIZAMA 22.299
55. ALTZAGA 22.263
56. USURBIL 22.220
57. BALIARRAIN 22.100
58. ESKORIATZA 22.093
59. ZIZURKIL 21.995
60. BERROB 21.941
61. ZUMARRAGA 21.910
62. LEGORRETA 21.674
63. URNIETA 21. 674
64. ITSASONDO 21.468
65. ANOETA 21.302
66. ANDOAIN 21.184
67. VILLABONA 21.172
68. ALEGIA 21.171
69. HERNIALDE 21.157
70. HERNANI 21.020
71. AIA 20.919
72. IBARRA 20.895
73. LARRAUL 20.885
74. AIZARNAZABAL 20.858
75. SORALUZE 20.775
76. IRUN 20.633
77. ALKIZA 20.594
78. MUTRIKU 20.550
79. LASARTE-ORIA 20.524
80. ZESTOA 20.327
81. LEABURU 19.846
82. BIDANIA-COLATZ 19.380
83. LEZO 19.225
84. GAZTELU 19.074
85. LIZARTZA 19.034
86. ERRENTERIA 18.836
87. ERREZIL 18.603
88. PASAIA 18.577

Lurraldeko eskualde guztiek pairatu badituzte ere krisiaren ondorioak, lan-kontratazioan izan duten bilakaera ez da haien artean homogeneoa. Izan ere, kontratazioaren berreskuratzearen erritmoa ezberdina da, eskualde bakoitzaren egitura ekonomikoaren arabera.

Lurraldearen eskualde ezberdinen dinamismo ekonomikoari dagokionez, beharrezkoa da adieraztea Gipuzkoako 2018 Eskualde Estrategiaren Diagnostikoaren arabera, Bidasoa Bizirik-eko eskualdeak izan zirela, Urola Erdia eta Debagoieneko mankomunitatearekin batera, kontratazio-erritmoan biziago kaltetutako eskualdeak 2007-2010 aldian, % 11, % 9,5 eta % 75 jaitsi ziren, hurrenez hurren. 2010etik 2014ra bitarteko aldian, kontratazioa zertxobait berreskuratu zen, eta beheranzko joera Urola Erdia, Tolosaldea Debagoiena, Goieki eta Oarsoaldea eskualdeetan baino ez zen mantendu.

	2007	2010	2014	2017	TASA DE VARIACIÓN INTERANUAL MEDIA		
					Periodo 2007-2010	Periodo 2010 -2014	Periodo 2014-2017
Bidasoa activa / Bidasoa bizirik	24.826	16.312	19.857	25.835	-11,4	5,4	10,0
Buruntza	22.301	18.589	20.450	27.973	-5,5	2,5	12,3
Debagoieneko mankomunitatea	20.552	15.933	14.485	19.771	-7,5	-2,3	12,2
Debegesa	11.953	9.985	12.332	17.253	-5,5	5,9	13,3
Fomento San Sebastian	98.466	85.223	89.332	115.403	-4,5	1,2	9,7
Goieki	10.090	8.470	8.336	10.447	-5,4	-0,4	8,4
Iraurgi lantzen	4.764	4.604	5.319	6.034	-1,1	3,9	4,5
Oarsoaldea	18.433	15.474	15.407	19.373	-5,4	-0,1	8,6
Tolosaldea garatzen	18.771	18.152	16.661	15.411	-1,1	-2,1	-2,5
Ugassa	5.511	4.556	5.357	6.323	-5,8	4,4	6,0
Urola Erdia	1.958	1.398	1.071	1.870	-9,5	-5,8	24,9
Urola Kostako udal elkartea	9.097	9.131	12.164	15.003	0,1	8,3	7,8
Gipuzkoa	**246.722**	**207.827**	**220.771**	**280.696**	**-5,3**	**1,6**	**9,0**

Azkenik, 2014 eta 2017 artean, Tolosaldea izan zen txikituz goan kontratazio-datuak eskaintzen dituen eskualdea.
Gizarte Segurantzako kotizazioei dagokienez, eskualdeetako egoerak ezberdintasunak adierazten ditu, eta garrantzitsua da horiek jorratzea. Hamarkada honetan afiliazioan eman diren atzerakada handienak Urola Erdia Ugassan, Tolosaldea garatzen, Oarsoaldean eta Bidasoa Bizirik-en eman dira. Beste muturrean daude Fomento San Sebastián eta Goieki, horietan berreskuratu egin da, baita gainditu ere, 2007an erregistratutako afiliatu kopurua.

Langabeziari dagokionez, azken urteotan bizitza zailtasun ekonomikoak langabezia-tasan islatzen dira: 2009an Gipuzkoa osorako batez bestekoa % 10,8koa zen, 2013an % 13,8koa eta pixkanaka hobetzen joan da 2017ra arte; urte horretan lortu zen % 9,9ko langabezia-tasa Gipuzkoa osoarentzat.

Erregistratutako bilakaerak bereziki kaltetutako eremuak ditu, hala nola, Bidasoa Bizirik (% 16,2), Oarsoaldea (% 15,8), Debegesa (% 14,9), Iraurgi Lantzen (% 15,0), Urola Erdia (% 14,2) eta Buruntza (% 14,1); horiek Gipuzkoaren batez besteko balioaren gainetik daude.

LANGABEZIA-TASA (%)

	2006	2009	2013	2017
Bidasoa activa / Bidasoa bizirik	9,2	12,8	16,2	11,5
Buruntza	7,4	11,4	14,1	9,7
Debagoieneko mankomunitatea	5,1	10,2	12,1	8,7
Debegesa	7,2	12,5	14,9	12,3
Fomento Donostia	6,4	9,4	12,7	9,4
Goieki	5	9,9	12,1	8,4
Iraurgi lantzen	5,2	10,6	15,0	9,8
Oarsoaldea	7,2	11,9	15,8	11,0
Tolosaldea garatzen	7,3	10,6	13,8	10,0
Ugassa	5,6	11,5	13,0	10,2
Urola Erdia	5	10,6	14,2	10,2
Urola Kostako udal elkartea	5,9	9,7	12,4	8,4
Gipuzkoa	**6,7**	**10,8**	**13,8**	**9,9**

Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralde-orekaz arduratzen den zuzendaritza dauka eta horrek zaintzen du, bereziki, tamaina eta biztanleria txikiko landa-eremuko udalerrientzako baldintza eta espazio publiko duinak bermatzea. Bada, sozialistok uste dugu biztanleria-gune anitzetan arreta jartzeko unea dela, bereziki hiriguneetan (Donostian, Errenterian, Pasaian, Irunen, Eibarren, Soraluzen, Arrasaten…), bertan bizi-baldintzak Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuta nabarmen txikiagoak direlako eta administrazio publikoaren arreta eta esku-hartze berezia merezi dutelako, gipuzkoar asko desberdintasunera kondenatzeko arriskua duten desberdintasuna zuzentzeko.

Hortaz, eta sozialistok Gipuzkoa hobea eraikitzen egin dugun ekarpenaz oso harro, alor eta alderdi asko daude politikaren bidez hobe daitezkeenak. Bide horretan, sozialistok kudeatzeko gaitasuna frogatu dugu, baita herrialde honek norantz egin behar duen eta norantz ez duen egin behar horren inguruko irizpide eta ikuspegi garbia ere.

Eta norantz goaz…

Betetako promesa guztiak gogorarazi ordez, nabarmendu nahi dugu, guretzat, Gipuzkoako sozialistontzat, hauteskunde-programan jasotzen duguna herritarrekin adostutako betebehar morala dela. Herritarren ituna. Itun horrek lurraldearen arazo eta erronka nagusiak jorratu nahi ditu.

Hori dela eta, datozen urteotarako Gipuzkoari egiten diogun proposamena arretaz irakurtzea nahi dugu. Urteotan, honako hauek jorratu beharko ditugu: biztanleriaren zahartzea (gizartea eta lurraldea gaztetzeko aukerak sortuta), gure industriarentzat funtsezkoak diren lanbideetan langile kualifikatu eza, klima-aldaketak kostaldean dituen eraginak, zerga-iruzurraren poltsak, enpresa eta erakundeek aurre egin beharreko erronka zibernetiko berriak, leku turistiko zehatz batzuen masifikazio eta banalizazio arriskua, enpleguaren prekarizazioa, baztertutako emakume gehiegiren aukera eza, eta, politika egiten jarraitzea eskatzen dizkiguten gure garaiko beste hainbat fenomeno. Benetako politika egite eskatzen digutenak.

2019ko maiatzean hautatuko ditugun tokiko gobernuak herritarrek hiri eta lurraldeetan pairatzen dituen arazo anitzei konponbidea emateko bidea behar dute izan eta, zehazki, beharrizanak dituzten pertsona eta eskualdeak, desabantaila egoeran baitaude. Baita ere, azken urteotan sortu diren gatazkei egin behar zaie aurre, eta horiek dimentsio sozial eta demokratikoan Europa desitxuratuaren baitan dituzte erroak. Konponbide horiek politika partekatuen bidez jorratu eta ebatziko dira, tokitik hasi eta globaleraino; hau da, Udaletatik hasi eta Europako Parlamenturaino, Aldundi eta Eusko Jaurlaritzatik igarota eta, nola ez, Espainiako Gobernuaren parte-hartzearekin.

Egoera horretan, 2019ko Foru Hauteskundeetarako PSE-EEren hauteskunde-programak Europako sozialdemokraziak proposatzen dituen errelatu eta helburu berdinak ditu, eta berau Pedro Sánchez fideltasunez ari da abian hartzen. Hori dela eta, eta eskumen maila ezberdinak kontuan hartuta, Gobernuaren helburu sozial handiak eta egonkortasun politikoa bermatzeko herrialde-eredu berria txertatzen ditu, berdintasun-alorreko aurrerapenak, aberastasunaren birbanaketa eta iraunkorra eta ekologikoa izango den garapen ekonomikoa, egungo eta datozen belaunaldien oparotasuna ziurtatzeko.

Azken batean, Gipuzkoa oparoagoa nahi dugu, solidarioagoa, modernoagoa, gazteagoa, anitzagoa, arduratsuagoa, eta emakumearen begirada zabalagoa eta, batez ere, erabakigarriagoa izango duena.

Nola eta norekin egingo dugu?

Halaber, sozialistok badakigu etorkizunerako nahi dugun Gipuzkoa hori ezin dugula bakarrik, ezta edonola ere, eraiki.

Gipuzkoako gainerako eragileekin eta gizarte zibilarekin batera egin nahi dugu, gobernatzeko jarduna gizarte osoarekin etengabeko elkarrizketan egin dadin, eta, horretarako, ezinbestekoa da gobernantzarako mekanismo berriak proposatzea, honako hau kontuan izanik:

- Kausa eta helburu tokikoak eta globalak, lurralde-eremu bakoitzetik hasita, mundu global interdependentean kohesio sozial eta iraunkortasunaren erronkei aurre egiteko.
- Balio zibikoak, politika herritarren bizitza duintzeko balio dezan, eta hirien birbanatzaile funtzioa posible egitea, berdintasunaren alde.
- Gardentasuna eta tresna teknologiko eta prozesu berritzaileak, demokrazia parte-hartzailea sustatu eta herritar guztiek baldintza-berdintasunean ekarpenak egin ditzaten; horrek arazo eta erabaki publikoen inguruan deliberazio eta kontsultarako prozesuak aktibatzea esan nahi du, kudeaketan gardentasuna errespetatuz jokatzea eta kontrolerako instantzien aurrean kontu ematea, demokrazia Gobernantza inklusiboaren baitan zabaltzeko helburuarekin.

Esku artean duzun proposamen horrek sozialiston bermea du, eta hitzematen duguna betetzen dugu; abian jarri ditugun aldaketak sendotzeko proposamen berria da, eta Gipuzkoak merezi ditu horiek amaitzea, konfiantza eta sostenguko lau urte gehiago lortuta. Proposamenak ekimen sozialistak hiru bloke/erronka handitan biltzen ditu: balio-kultura, ahalmen eta kohesio sozioekonomikoa eta lurralde-oreka. Ikusiko duzunez, begi batez ezberdinak diruditen fenomeno eta arazoak zeharka lotzen ditugu, azken batean oso lotuta baitaude, eta proposamen zehatzei koherentzia emateko errelato partekatua egituratzen dute. Eskerrik asko zure denboraren zati bat eskaintzeagatik.

Balio-kultura, populismo eta nazionalismoen gorakadaren aurrean posible dugun erantzun bakarra

Mundu global honetan, mundu konplexu honetan, arazo partekatu eta zeharkako gatazkak ditugu, eta maila bakoitzeko gobernuek –izan tokikoak, eskualde mailakoak, nazionalak eta europarrak– erantzukizuna gain hartu eta erantzun eraginkor, bidezko eta integralak emateko ekintza politikoa ezarri behar dute.

Krisi sakoneko garaietan gaude, ekonomiaren krisian, sistema kapitalista zaharraren krisian, herritarren elkarbizitzaren krisian, lur-planetaren biziraupenaren krisian, eta demokrazia eta horren balioen krisian. Krisi ezberdin horietan atzean dauzkagu globalizazioa, iraultza teknologikoa eta horrek ekonomian eta komunikazioan eragiten dituen aldaketa bizkorrak, ustelkeria eta botere-gehiegikeria eta kapitalismo finantzario espekulatzailea eta araurik gabea, demokrazia ahularen aurrean bere kasa dabilena.

Konektatutako mundu interdependente honetan zalantza garrantzitsu asko daude bilakaera teknologiko bizkor baten erdian, eta erakunde publiko eta herritarrek beren erantzuteko gaitasun eraldatzailea erabili behar dute erronka horiei aurre egiteko. Horien artean, premiazkoa da demokraziaren birsorkuntza, populismo nazionalistaren eta eskuin mutur xenofoboaren hedatzearen moduko fenomenoen aurrean.

2019ko maiatzean hautatuko ditugun tokiko gobernuak herritarrek hiri eta lurraldeetan pairatzen dituzten arazo anitzei konponbidea emateko bidea behar dute izan. Baita ere, azken urteotan sortu diren gatazkei egin behar zaie aurre, eta horiek dimentsio sozial eta demokratikoan Europa desitxuratuaren baitan dituzte erroak.

Aurrerabidearen gobernuetatik XXI. mendeko fenomeno berri horiei aurre egiteko erantzunak sortu behar dira, dimentsio globala baitute; pobreziaren eta desberdintasunen hazkundearen kasua da hori, enpleguaren prekarizazioa, migrazioaren fenomenoa eta xenofobia, ekonomia digitala eta robotizazioa, klima-aldaketaren ondorioak, zerga-sarreren murrizketa, zerga-paradisu eta zerga-iruzurra direla eta, etab. Esku artean duzun programak ideia eta proposamenak eskainiko ditu, bai, baina ez dira benetan egingarriak izango desio ez ditugun errealitateak eta hainbat gizarte-gaixotasuni aurre egiteko kulturak duen gaitasun eraldatzaile indartsua azaleratzen dituen balio eta printzipioak buru ez badituzte.

Elkarbizitzaren, memoriaren eta giza eskubideen Gipuzkoa

Etorkizuneko Gipuzkoa, gehiengoaren Gipuzkoa, elkarbizitzaren Gipuzkoa izango da. Gipuzkoaren etorkizuna errespetuz, aniztasuna onartuta eta inposaketarik gabe bizitzeko gai den gizartearen menpe egongo da. Gipuzkoarrok, denbora luzez, ezberdina zen hori desagerrarazi nahi zuten politikak pairatu ditugu, eta injustizia eta sufrimendua eragiteaz gain, lurraldea paralisi ekonomikoan sartu eta gure ongizate arriskuan ipini zuten.

Sozialistok Gipuzkoako Foru Aldundian egin dugun ekarpen handienetako bat elkarbizitza-klima normalizatzea izan da, ezberdinen arteko akordioa posible egin eta itun eta errespetuzko kultura sustatuta. Hasteko, ETAren terrorismoa zuzenean pairatu zuten biktimak aitortu ditugu. Garatu ditugun politika guztiek askatasun eta berdintasuna bezalako balioen defentsaren baitan, eta pertsona guztien eskubideen babesaren baitan kokatzen ditugu; horixe da elkarbizitza bidezko eta baketsua bermatzeko biderik onena.

Gure helburua da pertsona oro askatasunez bizi eta bere aukerak adieraz ditzakeen Gipuzkoa lortzea, berdintasun handiagoz eta ezberdintasunak errespetuz aintzat hartuta. Ezberdinak izanik ere, eskubideetan berdinak izango garen Gipuzkoa nahi dugu.
Memoria, askatasuna eta guztion eskubideak bermatzeko balioen gaineko elkarbizitza duen Gipuzkoa eraikitzeko, honako hau da gure proposamena:

- Aitortza eta oroimenezko plakak:

  ETAren indarkeria pairatu zuten pertsona guztiak aitortzea proposatzen dugu eta, horretarako, omenaldi bat egitea, oroimenezko plakak ipini eta horien bizipenak ikusarazteko erakusketa bat antolatzea.

- EHU/UPVren Historia Fakultatearekin Lankidetza Hitzarmena sinatzea:

  Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, Gipuzkoako historian gertatutako indarkeriaren eta elkarbizitzari egindako erasoen errelatua osatzea, gertatutakoaren memoria bermatu eta berriz gertatzea ekiditeko. Ildo horretatik, Euskal Herriko Unibertsitatean memoria eta elkarbizitzako katedra eskaintze proposatzen da, gertatutakoaren ikerketa akademikoa eta dibulgazio pedagogikoa bideratzeko, eta elkarbizitza-ikasgela bat garatzeko, ikastetxeetan gertatutakoa azaldu eta gazteengan tolerantzi eta errespetuaren balioak indartzeko.

- Elkarbizitza eta giza eskubideen saria sortzea

  tolerantzia eta errespetuaren moduko balioen defentsan funtzio azpimarragarria izan duten pertsona eta entitateak aintzat hartu eta aitortzeko..

Genero berdintasuna. XXI. Mendeko emakumeen egiazko ahalduntzea

Gipuzkoako PSE-EEren 2017ko urrian egindako azken Kongresuko Ebazpen politikoan, Gipuzkoako sozialistok gure Agenda Politikoaren aurrealdean kokatu genuen berdintasunaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa. Ebazpen horretan azpimarratu genuen berdintasuna “bizitza eta politikarako oinarrizko baldintza eta eskakizun etikoa” zela, alderdi guztietan: soldata-berdintasunean, aukera-berdintasunean, zuzendaritza-postuak eskuratzeko ahalmena, lanaren bidez promozionatzea, etab. Aparteko aipua merezi du –eta hala adierazi genuen–genero-indarkeriaren aurka Gipuzkoako sozialiston borrokak, horixe baita emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazgarri nagusia. Halaber, “genero-indarkeria” kontzeptuak, NBEk Pekinen egindako Emakumeen IV Munduko Konferentzian emandako esanahiaren arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren egiturazko arrazoi nagusienetako bat du ardatz, genero femeninoa maskulinoaren azpitik dagoela adierazten duten estereotipoak, alegia. Ondoren, 2018ko martxoaren 8an, egiazko berdintasunaren aldeko emakumeen borrokak inflexio-puntua etorri zen. Egun hartako mobilizazio sozial erraldoiak zalantzarik gabeko eragina izan zuen politikan. Gauzak erabat aldatu dira, eta herritarren ordezkariek genero-berdintasunari protagonismoa eman behar diote agenda publikoan, beren politikak diseinatzeko garaian.

Bestalde, 2016ko Soldata Egituraren Inkestaren arabera, euskal soldata-arrakala Espainiako arrakalatik bi puntura dago. Aldi bateko enpleguaren % 77,5 emakumeek dute, eta DSBE osagarriaren % 67 emakumeek jasotzen dute. Hau da, 7.382 emakumek jasotzen dute, 3.638 gizonen alboan; horrek esan nahi du genero-desberdintasun nabaria dagoela eta horren aurrean ezin dugu geldirik egon.

Gipuzkoako sozialistok, Batzar Nagusietarako datozen hauteskundeen aurrean –bertatik eratuko da Foru Aldundi berria–, emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu. Ikuspegi horretatik, honako proposamen hauek luzatu nahi ditugu:

- **Genero-ikuspegia kontratazio publikoan:**

  Baldintza bereziak ezartzea proposatzen dugu, lan-merkatuan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, sektore publikoaren kontratazioari buruzko legeek ezartzen dutenaren arabera. Ikuspegi horretatik, Foru Sektore Publikoaren kontrataziorako organoek, Sektore Publikoko Kontratu Legearen baitan, beren klausula administratiboen baldintza-agirian ezarriko dituzte esleipenak egiteko lehentasunak, enpresek aurkeztutako proposamenetan, kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzean, emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko neurriak dituztela frogatzeko, proposamen horiek, beren terminoetan, esleipenerako irizpide objektiboen ikuspuntutik abantaila gehien dituztenak berdintzen badituzte.

- **Emakumeak eta foru-dirulaguntzak:**

  Gipuzkoako Foru Aldundiak, diru-laguntzen politikarako 2/2015 Foru Arauaren 26. artikuluaren arabera, diru-laguntzen politikaren alorrean, ezarriko du zein alorretan, emakume eta gizonen aukera-desberdintasun egoera dagoelako, dagozkien diru-laguntzetan oinarri arautzaileetan eskatzaileen aldetik berdintasuna lortzeko jarduera eraginkorrak ebaluatze. Ondorio horietarako, eta besteak beste, bizitza pertsonala, lan eta familia-bizitza kontziliatzea moduko neurriak ebaluatuko dira, enpresen erantzukizun sozialak diren heinean. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez die diru-laguntzarik emango aipatu arauak ezarritako kasuren batetan badaude eta genero-berdintasunaren aurkako jarduerak egiten badituzte.

- **Emakumeak eta kristalezko sabaia:**

  Sozialistok kristalezko sabaia bidegabeen aurka borrokatu nahi dugu, modu ikusezinean emakumeei eremu pribatuan zuzendaritza-postuetara iristea eragozten baitie. Hori dela eta, ezberdindutako zerga-pizgarriak ebaluatu eta abian jartzea proposatzen da, emakume eta gizonen ordezkaritza parekidea duten gobernu-organoak dituzten sozietateentzat. Abantailazko zerga-tratamendu hori beste pertsona juridikoei ere aplika daiteke (kooperatibak, fundazioak, elkarteak eta bestelakoak).

- **Amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea foru sektore publikoan: Administrazio**

  Administrazio publikoak eredu izan behar dute gizon eta emakumeen egiazko berdintasuna sustatzeko politiketan eta, ildo horretatik, sozialistek bikotearen bi kideek jaiotzagatik baimen parekatuak izatea proposatzen dugu.

- **Emakumeak eta ekintzailetza:**

  Emakumeen ekintzailetzak egiturazko oztopoak aurkitzen ditu bere bidean, kristalezko sabaiarekin gertatzen denaren moduan, eta beren enpresa-proiektu eta ideiak ekintzailetzaren eremuan garatzea zailtzen dute. Hori dela eta, sozialistok Emekin programa indartzea proposatzen du, horren zenbatekoa bikoiztea eta, era berean, ekimen horretatik abiatuta sortzen diren enpresa eta enpresa-proiektuen lehenengo urteetan zerga-abantailak izatea.

Garapenerako Lankidetza. Gipuzkoa, lurralde solidarioa.

2015 urtean NBEk Garapen Iraunkorrerako Helburuak onartu zituen (17, 169 helbururekin), osotasunean aintzat hartu eta ikuspegi integrala eman zion, herritarrek bake, oparotasun, ongizate asmoak eta lur-planetaren babesa lortzeko helburuz. Giza garapen eta garapen sozialaren arazoek dimentsio anitzak dituztela adierazi zen.

Helburu horiek herrialde guztien eraldaketarako ahalegin partekatuari deitzen diote, erantzukizun partekatu baina ezberdindutakoen printzipioa oinarri. Agenda konplexu hori egingarri egiteko, aurrekaririk gabeko baliabide eta laguntzak mugiaraztea eskatzen du, gizarte guztien kontsumo eta ekoizpen ereduak aldatzea, baita gizarte-antolaketa moduak aldatzea eta orain artean ezagutu diren eraldaketa sakonak egitea ere. GIH horiek ahalegin partekatu bihurtu behar dira, botere-instantzia publiko eta pribatu guztietatik. Horrek erakunde guztiei behartzen gaitu GIH horiek gure politikak eraikitzeko iparrorratz bihurtzera.

Espainiako gobernu sozialistak prozesu horren biderako asmo irmoa hartu du, eta 2030 Agendarako Goi Komisarioa sortu du. Horixe bera, 2015ean egin behar zen. Atzerapenez goaz, eta horregatik seriotasun eta azkartasunez ezarri behar ditugu kontu horiek Gipuzkoako Foru Aldundi osoan. GIHak ezartzea koordinatzeko Aldundiaren baitan figura bat sortzea proposatzen dugu. Hori ezin da lortu administrazio likidoagoa egin gabe, eta bertan gaien derrigorrezko zeharkakotasunak, GIHak ezartzea kasu, sailen arteko lankidetza handiagoa izatea behartzen gaitu. Aldundiaren eredu bat doitu behar dugu, egitura arinagoak sortu, sarean koordinatutako lana egin ahal izateko. Ezin ditugu XXI. mendeko arazoak XIX. mendeko egiturekin jorratu.

Garapenerako Lankidetzarako Zuzendaritzak bere eginkizunak bete ditu bere Plan Estrategikoan, eta bertan egiten ditugu GIHren egokitzapenak (Pobreziaren aurkako borroka. Giza Eskubideen defentsa. Genero-ekitatearen defentsa. Kultura-aniztasunaren defentsa. Ingurumen-iraunkortasunaren defentsa. Tokiko erakundeen indartzea). Hori guztia, Gipuzkoaren baliabideak eta esperientziaz baliatu eta horiek indartuta, eta horien barnean daude erakunde publikoak, gobernuz kanpoko erakundeak eta bestelako eragileak, hala nola, unibertsitatea, kultura-entitateak, Ekonomia Sozialeko enpresak, etab. Garapenerako politiken koherentzia handiagoa landuta, sail ezberdinen arteko elkarrizketa koherentzia bilatzeko sustatuta, eta Gipuzkoan egindako lana beste eremuetan garatzen denarekin lotzea, lankidetzaren bidez. Horrek lankidetzaren legitimazio soziala esan nahi du, gardentasuna eta partaidetza sustatzen ditu, gizartearen aurrean kontu emate eta herritarrengana hurbiltzea errazteko plataformak sortzea eta egindako jardueren ezagutza. Aniztasuna aitortzeaz gain, kezka eta antolakunde ezberdinen marko inklusiboa sortu eta proposatutako helburuei egokituta, eraginkortasunerako irizpideak erabilita: lankidetza zuzena, hitzarmenak eta diru-laguntzak.

Ezin dugu ahaztu GIHek Garapenari buruzkoak direla, baina ezin dela ikuspegi globala alde batera utzi horiek ezartzean. Nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren jardunean ikuspegi globala galtzen bada, GIHak tokiko gai bihurtzeko arriskua dago.

Aliantzak ehuntzea. Gobernantzarako eta garapen-agenda ezartzeko funtsezkoa da. Gipuzkoarekin aliantzak. Gizarte-eragileekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, bide hori 30 urtez egiten ari direnekin. Kultura-entitateak, feministak, unibertsitarioak, elkarteak, enpresak, etab. Guztiok gaude horren baitan, eta guztioi dagokigu lurraldea ehuntzea. Gipuzkoa ez da ekonomia soilik. Elkartasunezko eta lanerako zeharkako sareak ehundu behar ditugu. Horregatik egin genuen Gipuzkoa Coopera. Lankidetzaren muskulua Gipuzkoako lurralde osora hedatzeko, Gipuzkoako ondareari lotutako erakundeen laguntzaz. Baita gobernuz kanpoko erakunde, instituzio, kirol-, kultura- eta ikerketa-erakundeekin ere, lankidetzan aritzeko modu berria eraikitzeko. Aurreko guztiarekin lotuta, honako proposamen hauek hedatu nahi ditugu sozialistok:

- **Gipuzkoa Coopera indartzea:**

  GIHak eta lankidetzaren helburuetan sail eta eragile gehiagok esku hartzea. Halaber, beste jatorrietako pertsonak ere esku hartzea lortu behar dugu, GIHak ezartzeko Lankidetza proiektu honetan beste kulturak esku hartzea, Gipuzkoa gehiago garatzeko mapa eta iparrorratza izateko. Aliantza gehiago, Lurralde gehiago, printzipio gehiago. Garrantzitsua da GIZA GARAPENEKO EREDU bera partekatzea. Hau da, guztiok lortu nahi dugun helburua bera izatea. Lankidetzarako proiektu partekatua eraikitzeko oinarri partekatuak finkatu behar ditugu. Egindako lana oinarri hartuta, ideia berriak oinarri hartuta eta eredu sozial, ekonomiko eta politikoari buruzko izaera integratzailea txertatuta, Gipuzkoako Lankidetzak egindako lanaren esperientzia abiapuntu.

- **Lankidetzarako Funtsa areagotzea:**

  Garapenerako Lankidetza Sailarekin batera lan egiten duten gobernuz kanpoko erakunde kopurua hazten jarraitzea, baita proiektu kopurua hazten ere. Halaber, Larrialdi Funtsa areagotuko da, eta mekanismoak egituratuko dira, partiden zenbatekoa benetako beharrizanen arabera egokitzeko.

- **Programa pedagogikoak (Argi eta Garbi):**

  GGKEekin elkarlanean, kanpaina pedagogiko garrantzitsuak egingo dira, gizartea kontzientziatzeko (bereziki gazteak) mundu habitagarriagoa eraikitzeko beharraz eta, horretarako, gure egunerokotasunean eta jarduteko eremuan urrats iraunkorrak ematea bereganatuko da. Era berean, eztabaidarako ekintza garrantzitsuak luzatuko dira sare sozial, hitzaldi eta mintegien bidez.

- **Politika-koherentzia:**

  Zeharkako plan bat onartzea, Foru Aldundi osoarentzat, horren ekintza GIHak eta Lankidetzarako helburuetara egokitzeko ekintza zehatzak gain hartuta.

- **Lankidetza-proiektuetan crowdfundinga:**

  Datorren legealdian, sozialistok crowdfunding programa abiaraziko dugu eta, horren bidez, gipuzkoarrek, ekarpen txikien bidez, GGKEk eta lankidetzako beste eragileek abian jartzen dituzten lankidetza-proiektuak finantzatu ahal izango dituzte, beste herrialde eta gizarteetako bizitza-baldintzak hobetzea helburu.

- **Enpresa gipuzkoarrak eta ekoizpen-plantak hirugarren munduko herrialdeetan:**

  Enpresa gipuzkoarren kontzientziazio-programa abiaraziko dugu, beren korporazio-erantzukizunean txerta dezaten justizia sozialarekiko konpromisoa eta baldintza duinak sortzea, enpresak ezartzen dituzten hirugarren munduko herrialdeetan. Hala, internazionalizazio-prozesu bidezkoa lortuko da, baita zintzoa ere, eta Gipuzkoak lurralde solidario eta garapenarekin konprometitu gisa irudi ona izaten lagunduko du.

Kultura

Programa honen kultura-proiektuaren oinarria honako ideia hau da: kulturak politika publikoetan funtzio nagusia izan dezake, eta izan behar du. Etorkizunera begiratu behar dugu, kultura gizartea eraldatzeko

palanka gisa ikusten dugu, eta gizarte-aldaketen kudeaketarako tresna gisa. Egun, gizarteko eremu guztietan bizi dugu krisialdia. Eta testuinguru horretan, gure programak eraldaketa, elkarbizitza, kosmopolismoa, eztabaida demokratikoaren sakontze, balioetan oinarritutako hezkuntza eta kultura-industrien sustapena bultzatuko duten ildoak lehenestea proposatzen du. Kulturaz ari garean, ez gara ari ikuskizun, jarduera eta aisialdiari buruz bakarrik ari. Kultura da, baita ere, gizartearen eraldaketarako ideiak proposatzeko gai den oro, inplikazio ekonomikoak proposatzeko gai dena, itxaropenak sortzen dituenak, parte-hartze eta esku-hartze aktiboaren bidez herritarrak baloratzeko gai den oro. Lurralde orok du bere historia, bertako harri eta iruditerian biltzen dena. Baina lurraldea etengabe berritu behar da, eta bere kultura-ondarearekin eztabaidan egon. Iragana eta etorkizuna, tradizioa eta sorkuntza, ezin dira bakoitza bere aldetik landu. Ezer da ez da ezerezetik sortzen, guztia da birsortzea. Lurralde sortzaile baten aurkakoa lurralde museoa da. Eta etorkizunera begiratzeko garaia da. Premisa horiek abiapuntu hartuta, PSE-EEk honako proposamen hauek luzatu nahi ditu:

- Koldo Mitxelena Kulturunea berria:

  25 urte baino gehiagoko ibilbide arrakastatsuaren ondoren, Koldo Mitxelena Kulturunea berritzeko unea da. Internet unibertsalizatu baino lehenago sortu zen, eta egokitzapenak egin badira ere, ekipamenduak doikuntza berriak behar ditu. Izaera entzutetsuari eutsita, Donostia erdigunean bertan, KMK berriak erabiltzaileentzako espazioak irabaziko ditu, erabiltzaile berriak jaso eta bere nortasuna indartuko du, etorkizunera eramateko. Esku-hartze proposamenak espazio diafanoagoak izatea aurreikusten du, komunikazio bertikala, lekualdatzeak eta KMK zerbitzu guztien arteko lotura errazteko, erosotasuna hobetuko du eta eraikinean espazioak zabalduko dira (espazio berriak haur eta familientzat, terraza, atseden hartzeko espazioa, irakurketa-areto handia…).

  Hala, kultura-zentro izatetik kulturen zentro izatera pasatzea da helburua, eta horrek bi zutabe nagusi izango ditu. Alde batetik, hitzaren inguruko lana, eremu guztiak barne hartuta, eztabaida eta elkar-ulertzea inoiz baino beharrezkoagoak diren une honetan. Bestetik, Gipuzkoako dokumentazio-ondarea, gure kultura-aniztasuna balioan jartzea.

- Elias Querejeta Zine Eskola (EQZE)

  sozialistok, 2018an, Gipuzkoako Foru Aldunditik sustatu dugu lurraldean ilusio gehien piztu duen kultura-proiektuetako bat, Elias Querejeta Zine Eskola. Tabakalera eraikinean dago, Zinemaldi eta Euskal Filmotekarekin batera, zinema-zaletasun eta ibilbide luzea duen lurraldeko sinergiez baliatzeko. Lehenengo promozioarekin ibilbideari ekin ondoren, eta EHU/UPVrekin sinatutako hitzarmenaren bidez ikasketak amaitzean ikasleentzako unibertsitate-titulua lortzeko aukera eman ondoren, sozialistok EQZE proiektua indartu nahi dugu, profesionalak prestatu eta horiek, zinemaren lengoaia unibertsala erabiliz, lurraldeko zinema- eta ikus-entzunezko industriaren beharrizanak asetzeko. Hezkuntza-proiektua indartzeaz gain, EQZE beste zinema-ikastetxe eta eragileen sareetara gehituko da; hala, bere ahalmena eta eskola horrek lurraldeari eskain diezaiokeena biderkatu egingo da.

- Gordailua. Centro de Colecciones Patrimoniales:

  Gordailua erreferentziazko zerbitzu bihurtu da lurraldeko museo eta sortzaileentzat, eta beharrezko aurrekontu eta profesional paregabeen lantaldea eman zaio, lurraldearen kultura-ondarea balioan ipintzeko asmoz. Datozen urteetan, gure ahaleginek adituen eta ikuslego orokorraren arteko bildumak ikertu eta hedatzea izango dute helburu. Horretarako, teknologia berrien ahalmenaz baliatzen jarraitzeaz gain, beste erakundeekin akordio berriak lortzea bilatuko dugu, aldi baterako erakusketak elkarrekin ekoizteko.

Eskola Kultura:

Kultura-programazio anitza eta kalitatezkoa eskaintzeko erakundeek ahalegin handia egiten badute ere, gipuzkoar askok ez dute aukerarik, eta programazioaz gozatzen dutenen artean batez besteko adina nahiko altua da; are okerrago, belaunaldi aldaketa gertatzeko zantzurik ez dago. Artista eta adituak bat datoz: ezinbestekoa da ikusleak artera hurbiltzea haur direnetik, eta larrialdi horri erantzuteko, lurralde osoko adingabeek arteaz gozatzeko aukera izateko, Eskola Kultura programa jarriko dugu abian. Horren bidez, ikasleek arte-diziplina ezberdinak ezagutu eta horiez gizatuko dute, beren ikastetxetik bertatik; hala, sortzaile gisa, eta ikusle gisa, prestatu ahal izango dira.

Gipuzkoako kultura-mezenasgoa:

Gipuzkoan kultura-mezenasgoa berariaz arautuko duen lehenengo euskal araua onartuta, ezinbestekoa da arau horren bidez irekitzen diren aukera berrien sozializaziorako prozesua abiaraztea datozen urteotan eta, horretarako, herritar, enpresa eta udaletan kulturan inbertitzeak dituen onuren inguruko pedagogia har daiteke abiapuntu. Ildo horretatik, mezenasgo gipuzkoarraren marka sortu eta edukiz beteko da, eta kultura eta mezenasgoarekin duten konpromisoagatik azpimarragarriak diren pertsona fisiko eta juridikoak aitortuko dira. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean bidez, kultura-interes eta balio berezia duten proiektu gipuzkoarrentzako diru-ekarpenak egiteko aukera gaituko da, eta zerga-aitortza automatikoa izango du horrek.

Sorkuntza eszenikoaren aldeko apustua:

Lurraldeko udal eta antzokiekin elkarlanean, ikuskizun eszenikoak ekoiztuko ditugu, beren kalitate eta dimentsioagatik eragina dutenak. Proiektuak helburu bikoitza izango du; alde batetik, herritarrengan ikuskizun eszenikoetara erakartzea lortzea eta, bestetik, Gipuzkoako mundu artistikoari lan-aukerak eskaintzea, sorkuntza- eta kudeaketa-prozesu ezberdinetan.

Plató Gipuzkoa

Gipuzkoa zinemaren mundu eta industriarekin lotura berezia duen lurraldea da. Ildo horretatik, San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission ekimenaren bidez abian jarritako kudeaketarako erraztasunei, onartutako zerga-abantailei eta Elías Querejeta Zine Eskolari, Zinealdearen instalazioak ere gehitu behar dizkiogu. Bertan, Oiartzunen, produktore eta ikus-entzunezko eta zinemako industria beste eragile batzuk, ikus-entzunezko sektoreari lotutako beste hainbat alorretako profesionalen ezagutzari batuta, Gipuzkoa zinemarentzako luxuzko eszenatoki bihurtzen dute.

Elkanoren V. mendeurrena:

Elkanok munduari bira ematea, zalantzarik gabe, globalizazioaren lehenengo esperientzia izan zen eta, Gipuzkoaren tradizio abenturazale eta unibertsalistari jarraiki, Getariako marinela izan zuen protagonista. Ildo horretatik, mendeurren hau aukera paregabea da gipuzkoar ospetsu hori aldarrikatzeko, baita Gipuzkoaren nazioarteko asmoa balioan jartzeko ere, mundu berrietara eta globalizazioaren erronketara lurralde ireki eta integratzaile gisa duen izaera balioan jartzeko ere. Ildo horretatik, sozialistok Aldundiak Euskadiko beste erakundeekin batera Mundubira Fundazioan parte hartzea proposatzen dugu, eta aktiboki parte hartuko dugu ere Kultura Ministerioak sustatutako V. Mendeurrenaren Fundazioan. Gainera, berezko baliabideez baliatuta, Euskal Itsas Museoa edo foru-fitxategiak esaterako, besteak beste, kultura-proiektuak gain hartu eta kudeatuko ditugu, nazioarteko oihartzuna eta ekimenak eskaintzen duen lankidetzarako aukerak kontuan hartuta.

- San Martzialgo Guduaren V. Mendeurrena:

  Era berean, Foru Aldunditik, 1522ko San Martzialgo Gudua omentzeko prestaketa-jarduerak babestuko ditugu sozialistok. Gerra-balentria hori mugarri historiko garrantzitsua izan zen Irunentzat, baita Bidasoa eta Gipuzkoa osoarentzat ere.

Kirolak

Ariketa fisikoa eta kirola bizitzeko modu eta bizitza bera ulertzeko modua dira. Fisikoki aktibo egotean, gure osasuna hobetzeko aukera dugu, fisikoki eta emozionalki. Gainera, besteekin harremantzeko aukera ematen digu, eta bizi garen munduari buruzko erreferentzia gehiago eta hobeak izan ditzakegu. Halaber, kirola, Gipuzkoan, ezberdinen arteko batasun eta kohesiorako elementua da. Gipuzkoako taldeen kolore eta balioen inguruan sortzen diren loturek izaki sozial gisa elikatzen gaituzte. Kirol-jardueraren arrakastekin hunkitzea eta porrotaren mina parte-hartzailea edo ikusle gisa partekatzeak komunitatea sortzen laguntzen du edo, beste era batera esanda, ezberdinen arteko elkarbizitza-sistema txikiak sortzen ditu; ondorioz, baita gizarte anitz eta bidezkoagoak ere. Azkenik, Gipuzkoak hogei bat talde ditu, gutxienez, maila altuko kirolean lehian eta ikuskizuna jarraitzen duen zale sorta zabala; testuinguru horretan, talentuz betetako harrobi garrantzitsua dugu, baldintza eta espazio zehatzak eskatzen ditu horrek, eta Foru Aldundiak horiek eskaintzeko gaitasuna izan behar du. Hori oinarri hartuta, sozialistok honako proposamen hauek luzatu nahi dizkiegu gipuzkoarrei:

- Kirol anitzetarako pabilioi berria:

  Kirola egiteko espazio berri bat sortzea elkarbizitzarako espazio berri bat sortzea da, osasun kolektiborako espazio bat sortzea, talentua garatzeko, aisialdi osasuntsua sustatzeko, gizarte solidarioago, anitzago, bidezkoago eta progresistagoaren parte diren balioez betetakoa. Kirol anitzerako pabilioiaz ari gara, eguneroko kirol-praktika egiteko, maila altuko taldeen bizi-baldintzak duintzeko, beren kirol-gaitasunen garapen-fasean dauden neska-mutilenak, baita garatzen ari diren eskolenak ere, jarduera fisikoa sustatu eta benetako balio-eskolak bihur daitezen. Maila goreneko ikuskizuneko kirola bertan erakusteko pabilioia ere izango da. Gipuzkoako taldeek goi-mailako kirol-ekitaldiak antolatzeko nahikoa gaitasun frogatu dute. Hori guztia dela eta, Gipuzkoak badu kirol defizita eta kirolari oraindik ere zor dio. 5.000 pertsonentzako pabilioia lurraldearen bihotzean; oztoporik gabeko espazioa, Gipuzkoako kirola hazten joan eta gure gizartea aberasten jarrai dezan.

- Gipuzkoako kirol-talentuarentzako errendimendu-zentroa:

  Sozialiston ustez, beharrezkoa da errendimendu-zentro bat abian jartzea, gure lurraldearen enbaxadore onenak diren horiei, kirolariei, arreta eskaintzeko; mundu osoan barna dabiltza lehian, nazioarteko kirol-probetan, Joko Olinpikoetan edo nazioarteko ospea duten probetan. Badakigu kirol-bikaintasunerako bide hori, maiz, bakarrik egin dutela, lesio baten ondoren berreskuratzeko beharrezko baliabideak gabe, edo beren errendimendua hobetzeko teknologia onena lortzeko aukerarik gabe. Hori aldatu nahi dugu, eta laguntza jasoko duten espazio bat sortu, ordezkatzen duen komunitate gipuzkoarraz harro senti daitezen, beren egoera fisikoa, emozionala hobetzeko behar duten laguntza jaso dezaten, edo lesio edo ezustekoaren kasuan berreskura daitezen; azken batean, espazio bat, EGON ETA IZAN daitezen..

Kirola eta emakumea:

Kirola emakumeen berdintasunaren aldeko espazio eta tresna eraginkorrenetako bat dela ikusi dugu. Kirolak eskaintzen duen ikusgarritasun eta ospea paregabea da tresna gisa, eta gizartean berdintasun-ereduak islatzeko lekua da. Bertan, emakumeek funtzio garrantzitsu eta protagonista izan dezakete, beren gaitasunaren arabera. Hori dela eta, eta pasa den legealdian egin zen moduan (Carmen Adarraga saria sortu zen, sariak ematerakoan berdintasun-irizpideak txertatu…), emakumezkoen kirola sustatzen jarraituko dugu eta, horretarako, emakumezkoen txapelketak ikusaraziko ditugu, talentuzko kirolariak hobeto finantzatu, genero-ikuspegia begiraleen prestakuntza-planetan eta ikastetxeetako kiroletan txertatuko dugu, ekitaldiak antolatu, hitzaldiak, mintegiak eta ikastaroak, alde batetik emakumeen kirola eta emakume kirolarien ibilbideak ikusarazteko eta, bestetik, hausnarketa- eta eztabaida-espazioak izateko, kirolean emakumeen presentzia sustatzeko eta horiek gizonen aukera berdinekin txertatzeko neurri eta jarduerak ezartzeko.

Aldundi eskuragarria eta garrantzitsua den horretatik hurbil:

Kirolaren alorrean dugun asmoa da herritarren jarduera fisikoaren tasak handitzea, zaurgarritasun-egoeran daudenenak edo kirola egiteko zailtasun handiagoa duten horiena. Kirolak, ariketa fisikoak berdindu egiten gaitu, integrazioa eta elkartasuna errazten ditu, gure autonomia-maila hobetzen dute; lengoaia bera helburu bera lortzeko; gizarte berdinzale bat eta ondare partekatuarekin konpromisoa duena. Lurraldean zehar banatutako kirol-taldeak, elkarteak, tokiko administrazioak…aldaketarako eragile dira, eta arreta eskaini nahi diegu, kirolaren eta jarduera fisikoaren arretarako bulegoak irekia; proaktiboak, komunitatean txertatuak eta ariketa fisiko eta kirolarentzako politika publikoen parte direla. 3/5 aurrez aurreko bulego eta online bidezko bulego bat, pertsonei beren ongizaterako ibilbidean laguntzeko, kirolaren bitartez, eta taldeei lagundu eta egunerokotasunean bizi duten kezkak arintzeko.

Ur Bizien Kanala eta Salmonera. Zor historikoa:

Porrot egin duten saiakerez betetako hamarkadak daramatzagu; egoerek ezinezko egiten zutenaren ondoriozko ilusioak zapuztuta: Gipuzkoak merezi duen Ur Bizien Kanalari buruz ari gara. Kirolari olinpikoak, munduko txapeldunak, Europako, talentudun gazteak Gipuzkoatik irten behar dira, beren aukerak teknifikatu, talentua garatu eta hobetzeko. Jaio eta hezi diren lurraldea ordezkatzen dute, eta milaka kilometroko distantziara egiten dute. Halako tradizioa duen lurraldeak aukerak hobetu behar dizkie mundu mailan lehian dabiltzenei, kirol horri ekiten diotenei esaterako. Ingurunearekin errespetuzkoa izango den ur bizien kanal bat sortzea eta, aldi berean, talentua sustatzea, errealitate bihur daiteke hilabete gutxira. Ekonomikoki iraunkorra izango den kanala, ingurunearekin errespetuzkoa eta kirol-jardueraren motorra, gure lurraldea munduko mapan kokatuko du.

Euskara. Hizkuntza bat, gehiago izateko

Euskara batuak 50 urte betetzen dituen honetan, beldurrik gabe esan dezakegu hizkuntza-normalkuntzan aurrera egin dugula, baita gure gizartearen izaera elebidunean ere. Euskarak iraganean presentziarik ez zuen errealitate sozialeko eremuak irabazi ditu, eta lanena jarraitu behar dugu, gizartean erabateko presentzia izateko, naturaltasunez eta berdintasun-baldintzetan. Eskualdeko Hizkuntza eta Hizkuntza Gutxituen Europako Kartarekin bat eginez, Gipuzkoako PSE-EEk euskararen aldeko diskriminazio positiboko politikak defendatzen ditu. Politika horiek adostasun politiko eta sozial zabalen ondorio izan behar dira, eta arreta jarri behar dute euskararen jarrera positiboetan –euskara, gure kulturari berezitasun eta aberastasuna ematen dion balio handienetakoa–, ez dadin erori sektore batzuek inposaketa edota bazterketarako elementu gisa ulertzeko moduan. Hori dela eta, sozialiston ustez, beharrezkoa da euskara herritarren bizi-eremu ezberdinetan naturaltasunez txertatzea sustatzen duten dinamika eta programetan eragina izatea.

Hori guztia, hala ere, norberak nahi duen hizkuntzan adierazteko duen askatasunaren errespetua kontuan hartuta egingo dugu; hizkuntza-arrazoiengatik ez diskriminatzeko printzipioa oinarri hartuta eta; botere publikoen elebitasun militantetik. Ildo horretatik, gure ustez, euskara integrazio sozialerako tresna izan behar da, eta ez biztanleria zatitzeko tresna. Integrazio soziala sustatzen duena herritarren hizkuntza-aukerak errespetatzea da, horiek euskaldunak izan ala ez. Biztanleriaren sektore batek ezin dizkio beren lehenespenak biztanleriaren beste sektoreari inposatu. Horixe da, gainera, Gernikako Estatutuaren espiritua: Normalizazioaren Legea eta Euskara 21 ponentzia. Aniztasun kultural eta linguistikoa lurralde honen nortasun-ezaugarriak dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak horiek babeste eta sustatu behar ditu. Ildo horretatik, eta euskararen sustapen positiborako beharrezko ekintzen kaltetan izan gabe, GFAren hizkuntza-politikaren oinarrian hezkuntza batek beste hizkunen gainean duen hegemoniatik urrundu behar den eredua izan behar du, hizkuntza hori euskara edo gaztelania izanik ere. GFA herritar guztien etxea eta espazio publikoa izan behar da eta, beraz, bertan bizi den edonork du erakundeak bere hizkuntza hitz egitea eskatzeko eskubidea.

Hori guztia kontuan izanik, Gipuakoako PSE-EEk honako proposamen hauek luzatzen ditu:

- Euskara eta Administrazioa:

  Aldundiak Euskara Plana 10/1982 Legearen garapenerako Dekretuaren arabera egokituko du; hala, enplegu-deialdietan eskatutako profilak lurraldeetako errealitate soziolinguistikoaren errealitatearen araberakoak izango dira. Horretarako, analisi bat egingo da (baita publiko egin ere), eta herritarrenganako arretako estatistikak aztertuko dira, erabilitako hizkuntzaren arabera, herritar orok nahi duen hizkunzta erabiltzeko duen eskubidea zorrotz bermatuta, behar bezala neur daitezen Foru Aldundiko giza baliabideen meritu eta trebetasunak euskararen ezagutzari dagokionez. Era berean, eta pertsonalizatutako komunikazioak salbu (hartzaileek hizkuntza bat edo bestearekiko lehentasuna dutela adierazi baldin badute), PSE-EEk beharrezkoak diren aldaketak sustatuko ditu, Aldundiko dokumentu eta komunikazio ofizialak elebidunak izateko.

- Hizkuntza-profilak:

  Gaur egun, GFAko goi-mailako teknikari lanak egiteko lanpostuetarako 4. profila eskatzen da. Hori, argi eta garbi, muga bidegabe eta injustifikatua da euskaldun askorentzat, administrazioari ekarpen handia egin dezaketenentzat. Ildo horretatik, eta egun ezarritako irizpideen arabera, unibertsitate-gradua oso-osorik euskaraz ikasi

duenak ez du beharrezko hizkuntza-profila administrazioan gradua eskatzen den lanpostuetarako, eta hori erabateko anomalia da. Euskara oztopo bihurtzen da euskaldun askorentzat, naturaltasunez euskaraz bizi eta euskaraz adierazten direnentzat. Hori dela eta, euskarazko lanpostuen profilak berrikusiko ditugu, 10/1982 Legea garatzen duten dekretuen arabera, eta 4. profila eskatuko da euskara filologikoki jakitea eskatzen duten lanpostuetan.

- Euskara eta immigrazioa:

  Egiaztatu denez, etorkin-biztanleria zati batzuek ez dute euskaraz hitz egiten, eta ez dute berau ikasteko interes handirik adierazten. Ildo horretatik, eta, udalekin elkarlanean, etorkinak euskararen bidez integratzeko programak garatzea proposatzen dugu. Proiektu horiei esker, kulturen arteko topaketa eta elkartrukea sustatuko da eta etorkin eta euskaldunen arteko lotura ezinbesteko tresna bihur daiteke Gipuzkoan bizi diren kolektibo ezberdinak hurbiltzeko, elkarbizitza sustatzeko eta besteari buruz sortutako aurreiritziak errotik kentzeko.

Gobernantza eta funtzio publikoa. Administrazio garden, parte-hartzaile eta inpartzial baterantz.

Administrazioa Gipuzkoako gizartearen eta herritarren zerbitzua dagoen tresna da. Ildo horretatik, administrazioak ezin du ikuspegi partzial edo sektariorik izan, eta ezin ditu interes orokorrarenak ez diren bestelako helburu eta interesak bilatu. Hori dela eta, Administrazioaren funtzionamenduak eta berau garatzen duen zerbitzuen eskaintzak honako printzipio hauek izan behar ditu oinarri: gardentasuna, zintzotasuna, inpartzialatasuna, etengabeko elkarrizketa eta herritarren arretarako kalitatea. Gipuzkoako Foru Aldundia administrazio eraginkorreko eredu izan da, eta zerbitzuen eskaintza, kalitateari dagokionez, eta orokorrean, herritarrek positiboki ebaluatzen dute. Hala ere, ezin dugu konformismoan gelditu; alde batetik, egungo funtzionamenduaren hainbat alor hobe daitezke eta, bestetik, egokia litzateke praktika, sistema edo arau berriak ezartzea, Aldundia eguneratu eta herritarrei eta lurraldeari zerbitzu publiko hobea eskaini ahal izateko.

Premisa horiek abiapuntu hartuta, PSE-EEk honako proposamen hauek luzatu nahi ditu:

- Funtzionarioak esku-hartzerako arduradun, eta araubide juridikoa

  Sozialiston ustez, hainbat jarrerentzako beste garaietan tradizioa izan den moduan, araubide juridikoko eta esku-hartzeok zuzendaritza-funtzioak Foru Aldundiko funtzionarioek egin behar dituzte, egiaztatutako ibilbide eta profesionalak bultzatuta. Hala, eginkizun horietan administrazioaren funtzionamenduaren inpartzialtasuna eta objektibitatea berma daitezke. Ildo horretatik, esku-hartzeko zein funtzio publikoko zuzendaria etxeko funtzionarioen artean izendatzea proposatzen dugu.

- GFAren zerbitzuen ebaluaziorako teknologia berriak ezartzea:

  Merkatuan eskaintzen den edozein zerbitzutan, balorazio eta puntuazioek, maiz, kontsumitzaile gisa gidatzen gaituzte, produktu eta zerbitzu jakin batzuk ebaluatu eta hautatzerakoan. Hala ere, kontsumitzaile horiek ez dituzte aukera berdinak herritar gisa duten funtzioa ebaluatu eta adierazteko. Ildo horretatik, PSE-EEK balorazio azkar eta

errazerako sistema ezartzea proposatzen du, bereziki Internet bidez, herritarrek GFAk eskainitako zerbitzuak edo bere eskumenetan egindako kudeaketa ebalua ditzaten. Zerbitzuak ebaluatzeko aukera Gipuzkoako Foru Aldundiko bulego, ekipamendu, organismo autonomo eta entitate publiko guztietara hedatuko da.

- Hiru euskal lurraldeetako funtzionarioen lan-baldintzen pixkanakako bateratzea

Batzuetan, zaila da ulertzea foru-administrazio ezberdinetan langileei eragiten dizkien ezberdintasun batzuk. Hori dela eta, 2019-2023 legealdian zehar, PSE-EEk horien arteko ezberdintasunak sakon aztertzea proposatzen du, baita neurriak proposatzea ere, lan-baldintzak bateratze aldera, hori egoki irizten den unean. Ildo horretatik, pixkanakako bateratze-prozesu horretan lehentasunezko ekintzetako bat erretiroa hartzeko adin bera ezartzea da foru-administrazioetan eta, ahal baldin bada, euskal erakunde guztietan. Halaber, enplegu publikoa lortzeko baliabideetan eta giza baliabideen kudeaketarako sistemetan beste foru-administrazioekin unean-unean lankidetzan aritzea ikusiko da.

- GFAren gardentasuna areagotzea:

2013ko Legetik abiatutako gardentasun-arauak jarraiki, GFAk beren funtzionamendu eta erabakien gardentasuna areagotzeko bide eta mekanismoak ezarri ditu. Administrazioaren funtzionamenduaren gardentasuna, ildo horretatik, funtsezkoa da gure sistema politiko eta publikorako funtzionamendu demokratikoetan lortzeko. Hain zuzen ere, gardentasunak herritarrekin elkarrizketa ezartzen laguntzen du, herritarrak hobeto ezagutzen baitu administrazioak egiten dute, eta administrazioak behar bezala funtzionatzen duela kontrolatzeko tresnak ditu, baita horren jarduera ebaluatzeko ere; horrek guztiak sistemaren kalitate demokratikoan eragiten du. Ildo horretatik, bereziki garrantzitsua deritzogu herritarren eskura izatea diru-sarrera eta gastuen gardentasuna. Intimitatea eta datu pertsonalen babesa errespetatuz eta, horretarako, lotutako datuak erabilita, herritarrei zerga-informazioa eskaintzea proposatzen da, posta-kode, eskualdea, genero, adin eta diru-sarreren arabera sailkatuta.

Hazkunde ekonomikoa eta kohesio soziala, krisi demografikoari aurre egin eta garapen iraunkorra bermatzeko bide gipuzkoarra

Datorren Legealdian 2015ean ezberdina zen egoera ekonomikoari egingo diogu aurre. Pairatu dugun krisi ekonomikoaren okerrena atzen uzten goaz, eta hori azken hamarkadetako krisi larriena izan da. Hala ere, egungo egoera ez da krisiaren aurretik genuena. Gauza asko aldatu dira Europako gizarteen egitura sozioekonomikoetan eta Gipuzkoa ez da salbuespena.

Egungo hazkunde ekonomikoak adierazle makroekonomiko positiboak adierazten baditu ere, kontuan izan behar da gure eredu ekonomikoa enpleguaren prekarietate gorakorrean oinarritzen dela, baita desberdintasun handiagoan ere.

Langile pobreak eta egiturazko pobrezia

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko azken inkestaren arabera, langabezia-tasa jaitsi egin da 2014 eta 2018 artean, baina biztanleria aktiboa ere zertxobait murriztu da eta, beraz, baita okupatutako biztanleria ere. 2014 urteaz geroztik langileen irabazietan susperraldia antzeman bada ere, 2009an zegoena baino baxuagoa da oraindik ere, kalkulu horiek euro konstanteetan eginda. Pobrezia egoerei dagokinenez, eta aurreko azpiatalean aipatutakoaren ildotik, egoera ekonomikoak berriki suspertzeko sintomak adierazi baditu ere, pobrezia-mailak bere horretan dirau, eta pribazio material egoera nabarmen hazi da.

EVOLUCIÓN DE LOS PRINCIPALES INDICADORES DE POBREZA Y DESIGUALDAD. GIPUZKOA 2012-2017

Fuente: Encuesta de pobreza y exclusión Social de Gipuzkoa

		2012	2014	2017	Evolución 2007 - 2014
Indicadores EU-SILC	Riesgo de pobreza relativa	16,8%	15,6%	16,4%	+0,8
	Riesgo de pobreza grave	4,3%	5,4%	5,3%	-0,1
	Privatización material severa	5,2%	5,2%	6,9%	+1,7
	Baja intensidad laboral	9,3%	8,4%	5,7%	-2,7
	Tasa AROPE	22,7%	19,5%	19,2%	-0,3
	Pobreza relativa población ocupada	7,0%	6,2%	10,2%	+4,0
Indicadores desigualdad	Índice de Gini	27,2	26,3	25,3	-1,0
	S80/S20	3,8	4,0	3,8	-0,2
Indicadores ingresos (euros/mes)	Renta mediana equivalente	1.404,2	1.42,6	1.533,3	+112,7
	Umbral de pobreza relativa	842,5	852,4	920,0	+67,6
	Umbral de pobreza severa	561,7	568,3	613,3	+45,0

Nota: en rojo, indicadores que han experimentado una evolución negativa y, en gris, los que muestran una evolución positiva.

Ikerketa horren arabera, pobrezia erlatibo larriaren adierazleak okerrera egin du –2014ko % 5,2tik 2017ko % 6,9ra pasa da–, baita langile pobreen tasari dagokiona ere. Aurreko taulan ikus daitekeenez, okupatutako biztanleriaren pobrezia erlatiboaren arrisku-tasa % 10,2 ingurukoa da (2014ko % 6,2ren alboan); zalantzarik gabe, soldata baxuenak dituzten langileen soldata-sarreretan emandako okertze baten ondorioz izan daiteke.

Ildo horretatik, langilea askok ez dute parte hartzen enpresa-proiektu handietan, ezta espazio publikoa egoera ekonomikoaren inguruan diskurtso triunfalistaz betetzen duten ekimen publiko-pribatuetan ere; triunfalismo hori hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituzten etxebizitza askoren oso bestelakoa da, triunfalismo hori ez da langile askotara heltzen: dendari txiki, nazioarteko frankizietan lan egiten duten langile, autonomo bezala lan egiten duten langile, tailerretan lanean dihadurtenak, gazteak, ekintzaileak edo ostalaritzako langileak, adibide batzuk baino ez jartzearren. Hortaz, eta zenbaki makroeokonomikoez harago, sozialistok ezin dugu politika eta gizarte-politikaren beharra duten gipuzkoar horiek albo batera utzi, eta beren bizi-kalitatea eta etorkizuneko itxaropenak hobetzeko aukera eman behar diegu.

Biztanleriaren zahartzea eta familiak babesteko politikak.

Bestalde, gipuzkoarrek pairatzen duten beste desoreketako bat biztanleriaren zahartzea eta lurraldeko jaiotza-tasen ratio baxuak dira; hori guztia gazteek etxebizitza eta familia bat osatzeko dituzten baldintza zailekin zuzenean lotuta dago. Anitzak dira egoera hori azaltzen duten arrazoiak, eta konplexuak erakundeetatik arazo hori konpontzeko har daitezkeen neurriak. Edonola ere, Euskadik familiei bideratzen dien aurrekontua euroguneko batez bestekoaren erdia, eta zati handiena zerga-murrizketen bidez egiten da; horrek ez die pobrezia egoeran dauden eta seme-alabak dituzten familiei abantailak eskaintzen, eta, beraz, bereizkeria nabarmena gertatzen da. Joera hori aldatzeko neurriak hartu behar dira.

GASTO EN PRESTACIONES, SERVICIO Y DEDUCCIONES FISCALES PARA LAS FAMILIAS EN DIVERSAS ÁREAS GEOGRÁFICAS EN RELACIÓN AL PIB (2013/2014)

METÁLICO
SERVICIOS
DEDUCCIONES FISCALES

Fuente: Elaboración propia a partir de los datos de la Cuenta de la Protección Social de EUSTAT, OCDE Family Database e informe integrado anual de las Haciendas Vascas.



Aukera-berdintasunik gabeko gazteak

Aurrekoarekin erabat lotuta, familia apaletako gazteen kasuan, guraso bakarreko familiak bereziki, ez zaie aukera-berdintasunaren promesa heltzen. Gazte horien egoera eta beharrizanak ez dira behar bezala ordezkatzen erakundeetan, ezta politika publikoetan ere. Izan ere, heldu askoren bazterketa eta

pobrezia arazoaren kaltetan izan gabe, gazte asko daude bazterketa-arrisku egoeran, eta horrek gure gizartea injustuago egiten du, beren etorkizuna baldintzatze duelako.

TASA DE RIESGO DE POBREZA POR GRUPO DE EDAD. ESPAÑA, 2008-2017



Fuente INE: Encuesta de condiciones de vida.
Riesgo de pobreza (renta año anterior a la entrevista).
Umbral de pobreza 60% de la mediana de los ingresos anulales por unidad de consumo. La población en riesgo de pobreza es un indicador relativo que mide desigualdad. No mide pobreza absoluta, sino cuántas personas tienen ingresos bajos en relación al conjunto de la población.

PRINCIPALES INDICADORES DE POBREZA Y PRIVACIÓN MATERIAL EN LA POBLACIÓN TOTAL, EN FUNCIÓN DE DIVERSAS CARACTERÍSTICAS PERSONALES Y DE LOS HOGARES. GIPUZKOA 2014

		Distribución horizontal (%)				Distribución vertical (%)				
		Pobreza monetaria			Privación material severa	Pobreza monetaria			Privación material severa	Total
		Pobreza severa	Pobreza relativa	Ausencia de pobreza relativa		Pobreza severa	Pobreza relativa	Ausencia de pobreza relativa		
Sexo	Hombre	5,1	14,0	86,0	5,2	46,0	43,8	49,8	48,8	48,8
	Mujer	5,7	17,2	82,8	5,2	54,0	56,2	50,2	51,2	51,2
Sexo persona principal	Hombre	5,0	13,4	86,6	4,2	71,4	66,0	78,8	62,3	76,8
	Mujer	6,7	22,9	77,1	8,4	28,6	34,0	21,2	37,7	23,2
Edad	<18	8,8	19,2	80,8	6,8	28,1	21,3	16,6	23,0	17,4
	18-44	6,8	15,5	84,5	6,3	42,4	33,9	34,1	41,5	34,0
	45-64	4,2	13,8	86,2	4,4	21,3	24,4	28,2	23,6	27,6
	65 y más	2,1	15,2	84,8	2,9	8,3	20,4	21,1	11,9	21,0
Edad persona principal	<45	9,1	16,2	83,8	8,0	52,2	32,5	31,0	48,3	31,3
	45-64	3,6	14,8	85,2	3,3	26,9	38,7	41,3	26,5	40,9
	65 y más	4,1	16,2	83,8	4,7	20,9	28,8	27,7	25,1	27,9
Nacionalidad	Española	3,5	13,1	86,9	3,7	60,2	78,5	96,3	66,9	93,5
	Extranjera	33,4	52,1	47,9	26,4	39,8	21,5	3,7	33,1	6,5
Lugar de nacimiento	CAPV	3,7	12,6	87,4	3,6	54,3	63,5	82,0	55,0	79,1
	Resto Estado	3,3	17,7	82,3	4,7	8,4	15,7	13,6	12,6	13,9
	Fuera de Estado	29,1	46,6	53,4	24,0	37,3	20,8	4,4	32,5	7,0
Grupo familiar	Unipersonal	4,3	20,0	80,0	7,7	7,7	12,5	9,3	14,6	9,8
	Pareja sin hijos/as	3,0	11,9	88,1	3,0	10,7	14,9	20,3	11,3	19,5
	Pareja con hijos/as	5,8	14,0	86,0	4,1	60,6	50,3	57,4	45,2	56,3
	Monoparental	7,9	27,2	72,8	10,2	15,8	18,9	9,4	21,5	10,9
	Otras	8,0	15,0	85,0	10,9	5,2	3,4	3,6	7,5	3,5
Relación con la actividad	Todos más de la mitad de los activos ocupados	1,0	5,5	94,5	1,5	11,7	22,3	70,9	18,1	63,3
	Con la mitad o menos de los activos ocupados	9,6	34,9	65,1	9,7	21,0	26,6	9,2	22,5	11,9
	Ningún activo ocupado	40,2	67,0	33,0	37,1	50,9	29,5	2,7	49,5	6,9
	Ningún activo	5,0	18,8	81,2	2,9	16,4	21,6	17,3	9,9	17,9
Total		**5,4**	**15,6**	**84,4**	**5,2**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Hortaz, eta pobreziaren eragina azken urteotan murriztu baldin bada ere, 2008an erregistratutako balioen gainetik dago oraindik, eta horren nagusitasuna handiagoa da, oraindik ere, haurrengan. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren datuen arabera, 2017an pobrezia-arrisku larriaren tasa –adierazle horrek islatzen du batez besteko errenta baino % 40 gutxiagoko errenta garbia duten etxebizitzetan bizi diren pertsonen proportzioa–% 5,3koa zen Gipuzkoan, biztanleria osoa kontuan hartuta, eta % 9,5ekoa 18 urtetik beherakoen kasuan. Datu horiek, 2014an inkesta berak jasotzen zituen datuekin alderatzen baditugu, adierazten dute haurren pobreziaren arazoak bere horretan dirauela edo, zentzu zabalagoan adierazita, adin txikiko seme-alabak dituzten familien pobrezia dela. (Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 2. inkesta

Zerga-sistema eta zerga-progresibitatea

Zerga-bilketari dagokionez, aldeko egoera ekonomikoak eta PSE eta EAJren artean adostutako zerga-erreformek azken ekitaldietan aparteko diru-bilketak jasotzeko aukera eman dute. Hala ere, zifra horiek eta krisiaren aurreko zifrak alderatzen baditugu, badago ezberdintasun nabarmenik. Baliteke ezberdintasun handienak diru-sarreren jatorriarekin zerikusia izatea, zehazki, sozietate-zergatik eratorrikotako diru-sarrerekin. 2007an kontzeptu horri dagokionez bildutako 556 milioi euro izan ziren, 2017an 274 milioi eta 2018an 333 milioi.

ITUNDUTAKO ZERGENGATIK FORU ALDUNDIEN DIRU BILKETA
RECAUDACIÓN DE LAS DIPUTACIONES FORALES POR TRIBUTOS CONCERTADOS

Epealdia: 2018ko urtarrila-abendua
Fuente:
http://www.euskadi.eus/recaudacion/web01-s2oga/es/

(milaka eurotan)

ZUZENEKO ZERGAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Persona fisikoen Errentaren g/Zerga			
Lan eta Lanbide-jardueren etekinen atxikip.	809.262	2.565.927	1.616.154
Higigarriaren Kapital Etekinen atxikip.	42.023	88.628	50.070
Higiezinaren capital Etekinen atxikip.	9.414	45.268	27.223
Ondare irabazien atxikip.	3.620	22.274	25.412
Loteria eta Apostu Jakin Batzuen g/Z Ber	3.301	33.733	6.535
Zatitako Ordainketak	28.566	76.066	64.299
Hondar-kuota Garbia	(20.974)	(69.880)	(19.306)
PFEZ Guztira	875.211	2.762.016	1.770.387
Sozietateen g/Zerga			
Higigarriaren Kapital Etekinen atxikip.	42.023	88.628	50.070
Higiezinaren capital Etekinen atxikip.	9.414	45.267	27.223
Ondare irabazien atxikip.	3.620	22.274	25.412
Loteria eta Apostu Jakin Batzuen g/Z Ber.			
Hondar-kuota garbia	172.512	758.303	231.264
Sozietateen zerga Guztira	227.568	914.472	333.969
Egoitzadunak Ez direnen Errentaren g/zerga	11.209	5.734	15.495
Oinordekotasunen eta Dohaintzen g/zerga	12.979	63.869	55.231
Ondare/Aberastasun eta fortuna Handien g/z	22.385	83.505	78.987
Kreditu Erakundeetako gordailuen g/z	3.286	13.621	7.658
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/z	5.730	17.557	11.569
Energia nukleoel.sortzearen hondakinen g/z			
Erregai/hondakin erradio. Biltegiratzearen g/z			
Iraungitako Zergak			
Zuzeneko Zergak Guztira	**1.158.369**	**3.860.775**	**2.273.296**

ITUNDUTAKO ZERGENGATIK FORU ALDUNDIEN DIRU BILKETA
RECAUDACIÓN DE LAS DIPUTACIONES FORALES POR TRIBUTOS CONCERTADOS

Epealdia: 2018ko urtarrila-abendua
Fuente:
http://www.euskadi.eus/recaudacion/web01-s2oga/es/

(milaka eurotan)

ZUZENEKO ZERGAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Persona fisikoen Errentaren g/Zerga			
Lan eta lanbide-jardueren etekinen atxikip.	767.145	2.468.052	1.532.422
Higigarriaren Kapital Etekinen atxikip.	24.023	95.015	47.744
Higiezinaren capital Etekinen atxikip.	9.002	45.773	26.221
Ondare irabazien atxikip.	4.318	20.504	19.946
Loteria eta Apostu Jakin Batzuen g/z Ber	2.319	11.368	10.483
Zatitako Ordainketak	26.876	71.806	60.079
Hondar-kuota Garbia	(32.379)	(37.358)	(41.165)
PFEZ Guztira	801.304	2.675.161	1.655.729
Sozietateen g/Zerga			
Higigarriaren Kapital Etekinen atxikip.	24.023	95.015	47.744
Higiezinaren capital Etekinen atxikip.	9.002	45.773	26.221
Ondare irabazien atxikip.	4.318	20.504	19.946
Loteria eta Apostu Jakin Batzuen g/Z Ber.			
Hondar-kuota Garbia	146.582	491.608	180.925
Sozietateen zerga Guztira	183.925	652.900	274.836
Egoitzadunak Ez direnen Errentaren g/Zerga	7.862	13.970	11.401
Oinordekotasunen eta Dohaintzen g/Zerga	9.913	61.188	46.810
Ondare/Aberastasun eta fortuna Handien g.z	17.323	78.941	66.963
Kreditu Erakundeetako gordailuen g/Z	3.018	14.224	7.581
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/Z	5.403	16.640	10.803
Energia nukleoel.sortzearen hondakinen g/z			
Erregai/hondakin erradio. Biltegiratzearen gz			
Iraungitako zergak			
Zuzeneko Zergak Guztira	**1.028.748**	**3.513.024**	**2.074.124**

ZUZENEKO ZERGAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Persona fisikoen Errentaren g/Zerga			
Lan etaLanbide-jardueren etekinen atxik.	665.689	2.066.591	1.308.456
Higigarriaren Kapital Etekinen atxik.	31.961	117.721	87.529
Higiezinaren capital Etekinen atxik.	9.091	10.816	21.680
Ondare irabazien atxikipenak	5.087	22.727	12.440
Zatitako Ordainketak	30.627	78.959	72.057
Hondar-kuota Garbia	(61.543)	(118.955)	(94.629)
PFEZ Guztira	680.911	2.177.860	1.407.534
Sozietateen g/Zerga			
Higigarriaren Kapital Etekinen atxik.	31.961	117.721	87.529
Higiezinaren capital Etekinen atxik.	9.091	10.816	21.680
Ondare irabazien atxikipenak	5.087	22.727	12.440
Hondar-kuota Garbia	288.482	992.116	434.520
Sozietateen zerga Guztira	334.621	1.143.380	556.170
Egoitzadunak ez direnen Errentaren g/Zerga	9.130	159.781	6.890
Oinordekotasunen eta Dohaintzen g/Zerga	8.410	45.631	22.123
Ondarearen gaineko zerga	16.548	88.692	49.056
Iraungitako zergak			
Zuzeneko Zergak Guztira	**1.049.620**	**3.615.344**	**2.041.773**

Baliteke kapitalismo globalaren ezaugarri berrien eta gero eta zabalagoa den merkatua lehiakorrak izateko beharrizanaren ondorioz, Gipuzkoan kokatzen diren enpresen zerga-faktura txikiagoa ulertzea (baita aurreko legealdian ere). Hala ere, zerga-koktel berri horrek hausnarrarazi behar gaitu: lehiakortasuna kaltetu gabe eta gure ekonomiaren aberastasuna sortzea eragotzi gabe, formulak bilatu behar ditugu, eragile guztiek (herritar, enpresa eta administrazioak) beren konpromisoak eta erantzukizun zibikoa gizarte osoaren ondare partekatuarentzako gain hartzea ziurtatzeko.

Gure ideia sozialdemokratak abiapuntu hartuta, eta ezker zentzudun gisa dugun erantzukizuna zein den kontuan hartuta, proposatzen dugun eredu ekonomikoak lau ardatz handi izan behar ditu: 1) Gipuzkoa ekonomia- eta enpresa-jarduerak kokatu eta garatzeko lurralde erakargarri egitea, berrikuntzan, ezagutzan oinarritutakoak eta gero eta merkatu lehiakorragoan zerbitzu eta produktuen balio erantsia sustatzen dutenentzat; 2) kalitatezko enplegua eta soldata duinak sortzea eta, horretarako, langileen prestakuntza etengabea eta kontzertazio sozial eta politikoa sustatzea; 3) elkartasun-mekanismoak abian jartzea, aberastasunaren aurre-banaketa eta bir-banaketa ziurtatzeko politiken bidez, pertsona ororentzat bizitza duina eta aukera-berdintasuna bermatzeko; 4) ekologikoki iraunkorra izango den eta klima-aldaketaren aurkako estrategiekin bat datorren hazkunde ekonomikoa bermatzea; 5) Zerga-iruzurraren aurka borroka egitea, Gipuzkoan estandar etikoak eta justizia sozialerako egokiak lortzeko tresna nagusi gisa.

Ildo horretatik, sozialiston ustez, esku-hartze publikoa funtsezkoa da sozialki iraunkorra izango den hazkunde ekonomikoaren oinarriak finkatzeko, hau da, oparotasuna eta pertsonen bizi-aukerak sortzeko, lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko ereduen bidez genero-desberdintasunak errotik kentzeko, talentua gorde eta Gipuzkoako gizartearen gaztetzea ahalbidetzeko. Hori dela eta, Aldundiko gobernu ekonomikoa ez da Sustapen Ekonomikoaren eta Ogasunaren zeregina bakarrik, gobernuaren ekintza eta sail guztien ekintza ere barne hartu beharko ditu, bereziki Gizarte Gaietarako saila; hala, aberastasunaren banaketa bidezkoarekin oparotasuna ahalbidetuko da, kohesio sozialarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin hazkunde ekonomikoa. Premisa horiek oinarri hartuta, eta hiru bloke handitan bereizita (Gizarte-politikak, sustapen ekonomikoa, zerga-sistema eta gizarte-gai eta enplegua) Gipuzkoako PSE-EEk gipuzkoarrei honako proposamen hauek luzatzen dizkie ekonomiari dagokionean:

Gizarte politikak

Etorkizuneko inbertsio estrategikoa

PSE-EEk eta EAJ-PNVk 2015-2019 legealdirako sinatutako Foru Gobernurako Akordioak honako helburu hau ezartzen zuen: “gipuzkoarren gizarte-babesaren etorkizuna bermatzea eta ereduaren eta zerbitzuen hobekuntzan sakontzea”. Gure ustetan, gobernuan izan dugun presentziak bereziki lagundu du helburu partekatu hori lortzen, eta gure Gizarte Zerbitzuen eredua indartzen. Helburu hori, hala ere, ez litzateke nahikoa izango ez bagenu gizarte-zerbitzuen aldeko konpromiso argia gain hartzen, eta horixe da Ongizate Estatuaren laugarren zutabea. Gizarte-zerbitzuen aldeko apustu politikoa erabat estrategikoa da, gure Ongizate Estatuaren beharrezko eraldaketarentzat. Balio erantsi handiko gizarte-zerbitzuak eraikitzea, komunitate-izaera izango dutenak, hurbileko gizarte-zerbitzuak, malguak, koherenteak, eraginkorrak, parekideak, aberastasunaren banatzaile bihurtuko direnak, ongizatearen banatzaile.

Krisi ekonomikoak eta garapen ekonomikoko urrats berriek pobrezia eta gizarte-bazterketaren atalaseak haztea mehatxu egiten dute, horiek muga jasanezinetara iritsi arte. Eta horiei gehitu behar zaizkio jada

gertatu diren aldaketak edo datozen urteetan gertatuko direnak. Horiek guztiek botere publikoen behar bezalako erantzun argia eskatzen dute eta, horretarako, iraganean izan genituen ongizate-mailei eusteko eta gure Ongizate Estatua garatzen eta bikaintzen jarraitzeko gizarte-politikak behar dira. Jaiotza-tasa baxuak edo bizi-itxaropenaren hazkundea, baita emakumeek pairatzen duten tratu-desberdintasunak bere horretan irautea ere, lanean prekarietatea areagotzea, Richard Sennett soziologoak dioenez "izaeraren korrosioa" eragiten du psikologikoki, gizarte-eskubide eza edo soldata-aukerak justifikaziorik gabe estutzea gure Ongizate Estatua birpentsaraztera bideratzen gaituzten gaiak dira. Ez berau murrizteko, berau indartu, zabaldu eta hobetzeko baizik.

Agenda neoliberalak krisiaren aitzakiaz sustatutako kontraerreformek zalantzan ipini dute aipatu gizarte-eredua eta, merkantilizazio indibidualistaranzko prozesuaren ondorioz, gizarte-talde asko utzi ditu ongizatearen gutxiengo esntadarretatik kanpo; ongizate horrek ematen die pertsonei herritar aske eta berdin gisa jokatzeko aukera. Ildo horretatik, gobernuan sozialisten lehentasuna da pertsonen eta horien duintasunaren babesa, Baumanek dioen moduan: "ezin da demokraziarik egon, bizitzaren gorabeheretan norbanakoak babesten dituen Estatu sozialik ez badago, eta gorabehera horiek langabeziak eragindako egoerak edo adinak berezkoak dituenak izan daitezke, erretiroa hartzea edo gaixotasunak, esaterako".

Eskubide politikorik gabe, pertsonek ez dute ziur zeintzuk diren bere eskubide pertsonalak; baina gizarte-eskubiderik gabe, eskubide politikoak lortu ezineko amets dira, alferrikako fikzioa edo txantxa maltzur bat, legeak, formalki, eskubide horiek bermatzen dizkien pertsona askorentzat. Halaber, gizarte-zerbitzu indartsuek kohesio soziala eta herritarren duintasuna bermatzen dute, Gipuzkoa lurralde erakargarriago eta lehiakorrago egingo dute, giza-kalitateari dagokionez eta, silver economy delakoari lotutako jarduera ekonomikoentzako aukera berriak irekitzen ditu, hau da, hainbat beharrizani aurre egitearekin lotutako erronka berriak jorratu eta ebazteko helburua duten produktu, zerbitzu eta teknologiak garatzen dituen ekonomiari. Aipatu beharrizan horiek honako hauek dira: desberdintasunak, biztanleriaren zahartzea, gaixotasun kronikoen areagotzea murriztea, kostu-kontrola eta iraunkortasuna, aniztasuna areagotzea (kulturala barne), ohitura osasuntsuak sustatzea, teknologia berrien ebaluazioa eta txertatzea, zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea, etab. Legealdi honetan Pasaian abian jarri den Adinberri proiektua proposatutako arazoak beharrizan bihurtzeko prozesuaren adibide eredugarria da.

Legealdi honetan abiarazitako politikekin jarraitzeaz gain, sozialistok gizarte-politikek foru-gobernuaren ekintza partekatuan protagonimos handiagoa izatea proposatzen dugu, gipuzkoarrei helarazten dizkiegun neurri hauen bidez:

- Gipuzkoa gaztetzeko talka-plana:

  PSE-EEk Aldundian Gipuzkoa gaztetu eta Gipuzkoako jaiotza-tasaren aldeko Talka-plana proposatuko du. Autonomia Erkidego eta Estatu mailan adostutako hitzarmen eta estrategien kaltetan izan gabe, Gipuzkoako PSE-EEk lurraldearentzako berariazko plana jorratuko du, eta bertan egingo da dagokion diagnostikoa eta neurri- eta proposamen-sorta, gure gizartearen zahartze gorakorra arintzeko. Planak zeharkako izaera izango du eta Gipuzkoak EAE mailan dituen lankidetza-markoetan duen jarrerari ere eragingo dio. Halaber, Planari dagokion aurrekontua eskainiko zaio, foru-eskumenetan aurreikusitako ekintzei erantzuna emateko.

- Enplegu-zuzendaritza sortzea.

  Beste foru-administrazioetan gertatzen ez den moduan, eta foru-aldundien lan-eremuan eskumen handirik ez badute ere, sozialistok uste dugu oso baliagarria dela enplegu-zuzendaritza bat eratzea, zeharka eta sustapen ekonomikoki eta gizarte-gaietako politikekin koordinatuta, enpleguarekin lotutako arazoei erantzuna emateko. Ildo horretatik, enplegu-zuzendaritza horren funtzioak lirateke: enplegu-aukerak sortzea kolektibo behartsuenentzako, bereziki gazte, emakume eta bazterketa-arriskuan dauden sektoreentzat (Elkar Ekin programa); genero-berdintasunaren eta lan-kontziliazioaren alde egiten duten enpresa-estandarrak identifikatu eta sustatzea; immigrazio

ordenatua planifikatzea, eskulana behar den arloak identifikatu eta talentua erakartzeko mekanismoak abian jartzeko, integrazioa hobeto eta eraginkorrago ahalbidetzeko eta kalitatezko enplegua sortu eta lan-eskubide eta harremanen oreka berreskuratzeko, lan-merkatuaren erreformaren ondorioz galdu baitziren. Soldata-beherapenak gaur ondorioak izateaz gain, 'etorkizunean' ere izan ditzake, soldata baxuagoak izateak gizarte-kotizazio eta, beraz, pentsio baxuagoak izatea esan nahi baitu. Helburu horiek posible egiteko, politika publiko aktiboak eta gizarte-eragileen arteko kontzertazio soziala behar dira.

- Enplegu-anezkak:

  Sustapen ekonomikoko sailarekin lotuta eta Elkar-Ekin programan sortutako enpresa-ehunarekin elkarrizketa-markoan, Gipuzkoako PSE-EEk beste lurraldeetan dauden, Bizkaian esaterako, enplegu-sare antzekoak sortzea proposatzen du. Anezka horien bidez, epe luzeko langabeek eta beren baldintza eta prestakuntza-maila edozein delarik ere, borondatez parte hartu ahalko dute beren antzerako baldintzak dituzten pertsona-taldeekin, laguntzaile baten laguntzaz beren gaitasunak indar ditzaten, ezagutza kolektiboa sor dezaketen eta xede partekatu baten alde elkarlanean ari daitezen: enplegua lortzea, beren kabuz edo besteen kontratupean izanik ere. Anezkak, hala, erakunde ezberdinen egituraketaren adibide bihurtzen dira, lan-munduratzeko benetako aukerak sustatzeko helburu partekatuarekin.

- Adineko pertsonentzako erresidentzien mapa amaitzea:

  Beharrezkoa da adineko pertsonentzako aurreikusitako erresidentzia berriak eraikitzen amaitzea. Zehazki, Irun, Elgoibar, Ordizia, Usurbil eta Pasaiako (Adinberri) erresidentziak, eta Atsobakar (Lasarte/Oria) erresidentzia zabaltzea. Horretarako, kontuan hartuko dira erakundeen arteko eta sektore publiko-pribatuen arteko elkarlanerako formula onenak, adinekoen bizi-kalitatea eta garapenaren aldeko azken hobekuntza eta teknologiak txertatzen dituztenak.

- Gizarte Babeserako Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen bideragarritasun eta iraunkortasunerako itun politiko eta soziala:

  Batzarretan ponentzia bat sortzea, eztabaida serioa eta lasaia izateko (oraindik ere Euskadin egiteke dago) Gizarte Babeserako Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen bideragarritasun eta iraunkortasunari buruz; murrizketarik gabe, eta ez da baztertu behar diru-bilketaren gaitasuna areagotzea, ezta elkarlan publiko-pribatua ere. Ponentzia horrek zehazki aztertuko ditu gizarte-zerbitzuetan inbertsio publikoa sustatzeko beharrezko neurriak, gizarte-zerbitzuen karterako prestazio eta zerbitzuen unibertsalizazio eraginkorra lortzeko, eta gizarte-zerbitzuen eredu adostua eta finantziazio egonkorra duena lortzeko lan egiteko.

- Familia-kontziliazioaren aldeko eta jaiotza-tasa areagotzeko neurriak:

  Kontratazio publikoko prozesuetan gizarte izaerako baldintzak txertatzea, bereziki ebaluatzeko enpresak bizitza pertsonal, familiar eta laborala kontziliatzeko neurriak hartzen dituztela, 3/2016 Legeak, apirilaren 7koak, kontratazio publikoan gizarte-klausula zehatz batzuk txertatzeari buruzkoak eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoak xedatutakoaren arabera.

- Eskolaz kanpoko jarduerak doakoak izateko plana:

  Familia askok ezin dituzte beren seme-alaben eskolaz kanpoko jarduerak ordaindu. Beste erakundeekin elkarlanean (bereziki hezkuntza-erakunde eta Udalekin) eta beste sailekin elkarlanean (kultura eta kirolek), abian jarri nahi da ikastetxe-sare bat, errenta baxuko familietako gazteentzat doakoak izango diren eskolaz kanpoko jarduerak

egiteko; pertsona horiek, hainbat arrazoi direla medio (lana, adinekoen zaintza), ezin diete beren seme-alabei arreta eskaini denbora-tarte horretan. Doako eskolaz kanpoko jarduera horiek kultura-jarduerak barne hartzen dituzte, baita kirol-jarduerak ere, eta eskola errefortzua (ingelesa, euskara…).

- Gizarte Ongizaterako Funtsa.

  Gizarte-politikan beharrizanak estaltzeko bideratutako funts ekonomikoa finkatzea jorratuko dugu, eta egoera ekonomiko eta finantzarioak hala egitea ahalbidetzen duenean, adostutako zergak biltzeko portzentajeak ordainduko du.

- Gizarte-arretarako berariazko lanbide-prestakuntza:

  Gure adinekoak edo menpekotasun egoeran daudenak zaintzen ari diren pertsona askok ez dute lan-merkatura sartzeko behar duten prestakuntza homologagarririk. Horrek, maiz, langileentzat ezkutuko ekonomia eta bermerik gabeko enplegua izatea eragiten du. Administrazioek formulak bilatu behar dituzte, pertsona horien profesionalizazioa modu errazagoan ebazteko, prestakuntza eta lana bateragarri egiteko; hala, ez dira zigortzen ez langileak, ezta horiek kontratatzen dituzten familiak ere.

- Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako arreta hobetzea:

  arreta-sarea pixkanaka zabalduta, horretarako, Elkar Ekin Planaren baitako politika eta ekintzak indartuta, helburua da gizarte-bazterketako sektorekako politikak antolatzea, baita gizarteratzearen hleburua eraginkortasunez jorratuko duten estrategia berriak sustatzea ere. Pertsona horien arreta hobetzea da kontua, aukerak sortzea sustatzea eta beste gizarte-babeserako sistemekin koordinatuta indartzea, sektore soziosanitarioa, enplegua edota etxebizitza esaterako.

- Belaunaldien arteko etxebizitzak eta Cohousing-a:

  Biztanleriaren zahartzea, bizi-itxaropenaren areagotzearen eta jaiotza-tasa baxuaren ondorioz, gizarte-lorpen garrantzitsua da eta erronka saihestezinak ditu, osasun, familia-politika eta pentsioetan ez ezik, baita gizarte-zerbitzuetan ere. Halaber, gazteen emantzipazioa etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunek baldintzatzen dute. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin eta Udalekin elkarlanean, erabilera anitzeko pisuak dituzten eraikinetan eredu kooperatiboak sustatu eta diruz laguntzea proposatzen da, bertan bizi daitezen familia gazteak eta adineko pertsonak, etxebizitza independenteetako alokairu-erregimenean, eta bertan jar daitezen abian zerbitzu komunitarioak (garbiketa, sukaldaritza, adin txikikoen zaintza, lehen mailako arreta).

- Dibertsitate funtzionala eta buru-nahasteak:

  Beharrezkoa da dibertsitate funtzionala eta buru-nahasteak dituzten pertsonei arreta emateko eredua ezartzen aurrera egitea, pertsona horien arreta beren ohiko ingurunean errazteko. Horretarako, beren autonomia, integrazio eta normalizazioa sustatuko dira, ahalik eta gehien lagundu eta sustatua herritarrentzat irekita dauden zerbitzu komunitarioak. Bizi-testuinguruari eragiten dioten erabakietan gero eta autonomia handiagoa indartuko duen eredurantz egitea: pertsonak bizi nahi duen bizitzarantz, etorkizuneko plana, laguntza egokienak diseinatzea, eta hark komunitatean kide oso gisa parte hartzea. Hori guztia udal gizarte-zerbitzuekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta.

- Emakumeei eta haurrei eragiten dieten desberdintasunei aurre egitea:

  EBereziki emakumeen eta horien kargu dauden pertsonen aurkako (horiek adin txikikoak edo adinekoak izanik ere) indarkeria eragiten duten guztia; tratu txarren biktimak diren adin txikikoen babesa eta zaintzan sakontzea. Gure ustez, eskuragarri ditugun

baliabideak etengabe ebaluatu behar dira, genero-indarkeria pairatu duten edo paira dezaketen emakumeei arreta emateko. Gainera, hala badagokio, garatzen ari diren beste ekimen batzuk ere abian jarri behar dira.

Haurrak eta gazteak babestea:

Aipatu dugun moduan, adin txikiko eta nerabeentzako arretari dagozkien gaiek gure agenda gidatu behar dute: ahulenak dira, eta gure lurraldearen etorkizuna. Hori dela eta, Aldunditik, arreta berezia eskaintzen jarraituko dugu babesik gabeko eta tratu txarreko egoerak prebenitu eta ebaluatzeko, baita erresidentzia-arretako programetan artatu behar diren adin txikikoak dauden kasuetan ere. Gure ustez, eskuragarri ditugun baliabideak etengabe ebaluatu behar dira, adin txikikoei arreta emateko. Gainera, hala badagokio, garatzen ari diren beste ekimen batzuk ere abian jarri behar dira. Gazte eta haurrei bereziki eragiten dien desberdintasun eta pobrezia, aukera-berdintasunari ere eragin diona, belaunaldien arteko justizia, eta gure etorkizuneko lehiakortasuna ezagueraren ekonomian. Gure konpromisoa Gipuzkoan egun erregistratzen diren indizeak nabarmen murrizteko neurri egoki guztiak hartzea da. Gazte eta haurrengan inbertitu behar da, gure gizartearen eta Gizarte Ongizatearen beraren etorkizuneko iraunkortasuna bermatzeko.

Pobrezia energetikoaren aurkako borroka:

A día de hoy todavía en nuestro territorio, existe un porcentaje de ciudadanía que está en riesgo de vulnerabilidad energética, por ello nos comprometemos a reducir este porcentaje, trabajando con ese sector de la población vulnerable energéticamente mediante acciones de apoyo de formación, sensibilización y otras medidas correctoras específicas como asesoramiento presencial y ayudas específicas para ese colectivo, que permita que Gipuzkoa sea un territorio sin vulnerabilidad energética.

Prebentzio-programak, kirolaren eta kulturaren bidez:

Ongizate-sistemak, aringarriak izateaz gain, prebentiboak ere izan behar dira. Prebentzio-politiketara bideratutako baliabideak inbertsioak dira, arazoei aurre hartzeko eraginkorragoak izan eta gure baliabideak epe ertain eta luzera arrazionalizatu ahal izateko. Beste sail batzuekin elkarlanean (zehazki, Kultura eta Kirol sailarekin), bizi-ohitura aktibo eta osasuntsuak sustatuko dira, autonomia sustatu eta gaixotasunak prebenitzeko.

Hirugarren sektorea, lurraldearen gizarte-muskulua:

Gizarte mailako esku-hartzearen alorrean dauden sektoreen arteko gizarte-ehuna eta elkarlana sustatzea. Gipuzkoako Hirugarren Sektorea, gizarte-ekimen eta esku-hartzeko erakundeak, euskal gizartearen funtsezko aktiboa dira, eta horiek egiten duten ekarpena ezinbestekoa da bidezko gizartea eta gizarte solidarioa eraikitzeko, gizarte berdinzale eta kohesionatua sortzeko, gizarte demokratiko eta parte-hartzailea sustatzeko.

Etorkinen gizarte- eta integrazio-plangintza:

Krisi ekonomikoak eragin handiena izan duen kolektiboetako bat, eta zaurgarritasun egoera larrienean dagoena, atzerriko pertsonena da. Gizarteak kontrakoa uste badu ere, atzerriko herritarrek gizarte-babeserako sistemaren bidez jasotzen dute baino askoz ere gehiago eskaintzen diote euskal ekonomiari. Hala ere, eta horrekin batera, nabarmentzekoa da atzerriko biztanleriak euskal demografian duen eragin soziala, horiei esker ez baitu biztanleriak behera egin azken urteotan. Halaber, nabaria da horien etorrerak jaiotza-tasa, menpekotasun-tasa edo zahartze-tasa bezalako indizeetan izan duen hobekuntza. Ezin ditugu albo batera utzi adierazle horiek epe ertain eta luzera

Ongizate Estatuaren iraunkortasunean izango dituzten ondorio sozial eta ekonomikoak. Horren kaltetan izan gabe, etorkin batzuek, bereziki MENA deitzen zaienek, integratzeko arazo handienak dituzte eta herritar batzuen aldetik gaitzespen soziala jaso dezakete; jokabide batzuk direla eta, etorkinak gizarte-arazo larrien arrazoitzat jotzen dituzte. Hori dela eta, bereziki garrantzitsua da gizarte-laguntzak eta integrazio sozial eta laboralerako berariazko plan pertsonalizatuak lotzea.

Ekonomiaren sustapena

Enpresak aberastasun- eta aukera-iturri gisa

Gipuzkoa ekintzaile sen berezi bat duen lurraldea izateagatik nabarmendu izan da, baita enpresari lotutako klase bat izateagatik ere, nazioartean aintzatespen ukaezina lortu duena, zintzotasuna, lana, ausardia eta gure kulturarekiko, gure lurraldearekiko eta gure gizartearekiko konpromiso soziala bezalako balioak euskarritzat dituena. Gipuzkoako klase enpresarialak ondo jakin du, adore eta kemen miresgarriarekin, herrialde honek bizi izan dituen oso garai latzei eusten, zirkunstantzia ekonomikoek nahiz politikoek eragindakoei. Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldunditik jarraitu egin behar dugu Gipuzkoako enpresak babesten, lurraldearen aktibo nagusietako bat direlako, eta horretarako Gipuzkoako jardun egokiak sustatu behar dira batik bat, aberastasuna eta kalitateko enplegua sorrarazten dutenak.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar Laugarren Iraultza Industrialean murgilduta gaudela, horrek berekin dakartzan ziurgabetasun, beldur, erronka eta aukera guztiekin, eta Foru Aldunditik, tokiko eta hurbileko ikuspegitik, baina betiere globalizazioari eta bere ondorioei beti adi, gure enpresa-ehuna erronka horiei heltzeko prest dagoela ziurtatu nahi dugu, eta bere lehiakortasun-posizioa mantendu, eta Gipuzkoako ekonomia, bere sendotasuna eta lehiakortasuna bultzatzen jarraitu: funtsezko zeregina da hori Gipuzkoako sozialistentzat. Gipuzkoako egitura ekonomikoa nagusiki bi osagaitan oinarritzen da: tamaina eta tradizio industriala. Gipuzkoako enpresak txikiak dira, % 90 baino gehiago bost langilek edo gutxiagok osatutakoak dira. Gure lurraldeak tradizio industrial luzea du eta industria da gure ekonomiaren oinarria. Proposamenak honako helburu hauek kontuan hartuta landu ditugu:

- Ekonomiaren susperraldia irmotzea, behar diren baliabideak jarriz Gipuzkoako gizarte osoarengana iristeko eta emaitza kalitateko enplegua izan dadin lortzeko.
- Gipuzkoako ehun ekonomikoaren lehiakortasuna handitzea.
- Ikerketaren eta berrikuntzaren alde apustu egitea, ezagutzan oinarritutako ekonomia bat lortzeko bitarteko gisa, hazkunde orekatu, dibertsifikatu eta jasangarriago bat bermatzearren.
- Gure I+G gaitasuna eta oinarrizko zientzian egindako inbertsio publikoak lurraldeko ehun ekonomiko osora hedatu behar dira.
- Elkarrizketa sozialerako eta instituzioen arteko elkarrizketarako metodologia bere garapen eta exekuzioan.
- Gizarte orekatuago bat eta ekologikoago bat eratzen lagunduko duen jarduera ekonomikoa ahalbidetzea.

Premisa horiekin, Gipuzkoako PSE-EEk ondoko proposamenak helarazi nahi ditu.

- Foru Arau bat onestea Gipuzkoan Ekintzailetza Babesteko:

  LSozialistek beharrezkoa ikusten dugu Gipuzkoan ekintzailetza babesteko Plan integral

bat onestea, Lurraldeak duen ahalik eta ahalmen arauemaile handienarekin, besteren artean, Gipuzkoarentzat euskal ekintzailetzarako Plana garatzeko: gure asmoa da berrikuntza enpresa-proiektu berriekin konektatzea, hau da, ezagutza eta ekintzailetza elkartzea, enpresa-proiektu berrien lehiakortasun-maila handitzea, ekintzaile sena eta ekintzailetzaren aintzatespen soziala sustatzea, eta neurri-multzo bat ezartzea enpresa-ekimen berrien biziraupen-indizeak handitzeko. Gure asmoa da ekintzaileak ikerketarekin konektatzea, Unibertsitatearen barruan sortuko diren ekimenak bultzatzea, berritzeko ahalmen handia dutenak, eta finantzazio-sarbidea babestea. Zergen inguruko ahalmen arauemailea baliabide egokia da ekintzailetzari laguntzeko.

- Enpresa txikien internazionalizazioa babestea:

  Enpresa txiki askok, lehiakortasun-baldintza bikainekin, ez dute behar adina baliabide internazionalizazio-prozesu konplexuei ekiteko. Zentzu horretan, eta SPRIrekin eta Gipuzkoako Bazkundearekin lankidetzan, Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresa txikien internazionalizazio-programak aurrera eramango ditu, baita haien arteko lankidetzarako programak ere, nazioarteko merkatuetara jauzi egiteko. Gainera, Foru Aldundiak aztertu eta martxan jarriko ditu enpresei laguntzeko programak, haien profesionalentzat eta enplegatuentzat internazionalizazioaren inguruko prestakuntza-programa espezifikoei lotuta.

- Gipuzkoa Tailerrak. Gazteen ekintzailetzarako lekuak:

  Aurrekoarekin lotuta, milaka leku daude lurraldean, produkzio-jarduera desberdinak hartzen urteak eman ondoren, orain erabiltzen ez direnak. Programa honen bitartez eta Udalekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, hilda dauden espazio horiek haztegi bihurtu nahi ditugu, enpresen haztegi, coworking edo ekintzailetzako hub gune, horiek baitira ekintzaileek eta startup-ek kontuan hartzen dituzten aukeretako batzuk beren ideia enpresariala martxan jartzen ari direnean. Aldunditik espazio hutsak egokitzen eta horietan negozio berriak martxan jartzen laguntzeko dirulaguntza-lerroak sortu ez ezik, bitartekaritza eta finantzaziorako formulak ere bilatuko ditugu, non alde inplikatu guztiek irabaziak izango dituzten, Gipuzkoa osoak irabaziak izan ditzan. Gainera, lokaletik eta espazioaren baldintza fisikoetatik (hardware) harago, Aldundia lankidetzan arituko da espazio horietan zerbitzu zentralizatuak ezartzen, besteren artean, lege-aholkularitza, kontabilitate eta finantzen arloko aholkularitza eta gestoria, enpresa berri bat zabaltzen duten pertsona guztiek behar izaten dituztenak, alegia.

- Kooperatibismoa eta Ekonomia Soziala sustatzea.

  Ekonomia Soziala irmo errotu den lurraldea da Gipuzkoa. Nabarmentzekoa da gure Lurraldean ezarrita dauden sozietate kooperatibo eta lan-sozietate ugariak, beste erakunde batzuez gain: fundazioak, Enplegu Zentro Bereziak, lan-munduratzeko enpresak eta Ekonomia Soziala osatzen duten erakunde guztiak. Gipuzkoako PSE-EE izan zen 2014an Ekonomia Soziala Sustatzeko Foru Araua bultzatu zuena, Batzar Nagusietan onetsia. Foru Arau hori nabarmendu egin du, erreferente gisa maila autonomikoan, Ekonomia Sozialaren Espainiako Estrategia 2017-2020 onesten duen dokumentuak. Programa honetan ekonomia-eredu hori bultzatu eta sustatzeko konpromisoa hartu dugu, berau osatzen duten entitateekin eta haien ordezkaritza-erakundeekin lankidetzan.

- Lan autonomoa babestea:

  Langile autonomoek pertsonen kolektibo handi eta garrantzitsu bat osatzen dute; lan profesional bat egiten duten pertsonak dira, beren baliabide ekonomikoak arriskatzen dituztenak. Lan autonomoa, kasu askotan, aukera libre bat da, lanari eta lanbideari dagokienez, beren autodeterminazioa eta beren buruaren menpe egoteko duten

ahalmena balioesten duten pertsona askorentzat. Sozialista gipuzkoarrek aitortu egiten dugu lan autonomoak Gipuzkoako ekonomiari egiten dion ekarpena eta berretsi egiten dugu kolektibo horren arazo espezifikoei helduko dieten politikak bultzatzeko gure konpromisoa.

- Langileen parte-hartzea enpresetan:

  Langileen parte-hartzea enpresetan erreferentziazko helburu bilakatu da Europako politikan. Hori agerian uzten dute gai horri lotuta egin diren hainbat Txostenek, Gomendioek eta Ebazpenek, kontuan izanik Europako Batzordearentzat langileen partaidetza finantzarioa enpresetan oinarrietako bat dela Europako gizarte-eredua gauzatzeko. Hala, Gipuzkoako sozialismoaren helburuetako bat ere da langileek enpresetan parte hartzea. Partaidetza horrek helburu hirukoitz bati erantzuten dio: ekonomia demokratizatzea, langileek kontrol handiagoa izatea enpresen kudeaketaren gainean, eta deslokalizazioaren arriskuak saihesten saiatzea. 2015-2019 Foru Legealdian nabarmen egin da aurrera langileek enpresetan duten partaidetzan; nahikoa da adieraztea Gipuzkoako Batzar Nagusiek 6/2016 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, onetsi izana, enpresetan langileen partaidetza zerga bidez sustatzeko. Elkarrizketa sozialaren bitartez, sozialistek jarraitu egingo dugu enpresetan langileen partaidetza sustatzeko politikak bultzatzen, batez ere kudeaketaren eta partaidetza finantzarioaren eremuetan. Partaidetzazko kultura sustatuko dugu ekonomiaren demokratizazioan aurrera egiteko helburuz eta enpresa-eredu solidario, arduradun eta eraginkorrago bat bultzatzeko.

- Gazte Berme Sistema – Lehen Aukera.

  Lankidetza-hitzarmenak sustatuko ditugu Lanbiderekin, Gazte Berme Sistema-Lehen Aukera garatzeko. Programa honen helburua da euskal enpresek gazteak kontratatzeko laguntzak ematea, langabe daudenak, aurretik lan-esperientziarik ez dutenak edo esperientzia urria, betiere haien titulazioarekin zerikusia duten enpleguetan, esperientzia profesionala eta lan-munduan txertatzea lortuz haien enplegagarritasunean laguntzeko neurri gisa.

- Gipuzkoan enplegurako sarbidean zailtasun bereziak dituzten pertsonei zuzendutako programa:

  Neurriak bultzatuko ditugu lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna sustatzearren. Kolektibo hauek izango dira Programa honen xede: 45 urtetik gorako langabeak; luzaroko langabeak; desgaitasuna dutenak enpleguan; bazterketa-arriskuan dauden langabeak. Martxan jarriko diren neurrien artean nabarmentzekoak dira lan-kontratazioan eta lanerako gaikuntzan laguntzekoak. Garapen-agentziek egindako lana garatzeari utzi gabe, Udalak dira pertsonen enplegu-premiak eta lan-egoera ondoen ezagutzen dituzten eragileak. Beraz, Aldundiaren lerro subentzionagarriak bideratzea proposatzen da, enplegagarritasun-proiektuetarako, era horretan lankidetzarako eta dirulaguntza zuzenetarako lerroak ituntzeko, haien proiektuak ekonomiaren eta enpleguaren sustapenaren eremuan garatu daitezen.

- Eremu deprimituetan laguntzeko neurri berezien programa.

  Neurri-multzo bat bultzatuko dugu Gipuzkoako eremu deprimituetan laguntzeko. Neurri horien helburua izango da Gipuzkoako leku desberdinen arteko lurralde-oreka handiagoa lortzea, ekonomiaren garapen jasangarri baten barruan. Hala, azken urte hauetan bizitako krisi ekonomikoaren eragina gutxitzea izango da neurri horien xedea, krisiak bereziki zigortu dituen lekuetan, eta horretarako jarduera ekonomiko berriak diseinatuko dira industrian eta zerbitzuetan. Eusko Jaurlaritzak aintzat hartu dituen lekuez gain, kontuan izanik Europak aurreikusitakoekin bat datozela, identifikatutako eskualdeetan ez badaude ere interbentzio publikoa –ekonomikoa eta industriala– behar duten eremuak

eta lurraldeak hartuko dira barnean, besteren artean, Zumarraga, Eibar eta Legazpi. Bereziki, SPRIrekin eta Udalarekin lankidetzan, Gipuzkoako PSE-EEk Eibarko Parke Teknologikoaren garapen integralaren alde egiten du apustu bertako lurzorua garatuz, Azitaingo goialdean lurzoru industrialaren garapena aztertu eta bultzatzearen, eta GFA Irungo trenbide-gunearen garapenean inplikatzearen alde.

- Zibersegurtasuna, elektromugikortasuna eta biozientziak lurraldeko jarduera aitzindari eta estrategiko gisa:

  Gipuzkoak enpresak eta baldintzak ditu eskueran hiru eremu hauetan enpresa-proiektu aitzindariak garatu ahal izateko. Aldundiak jarduera horiek bultzatu eta sustatu nahi ditu, zentro publiko pribatuak sortzetik abiatuta, Zibersegurtasunekoa eta Elektromugikortasunekoa, besteak beste, nahiz lankidetza-eredu publiko pribatuetatik abiatuta, osasunaren eta biozientziaren arloan inbertsioak eta proiektuak erakartzeko. Zentzu horretan, Aldundiak Gipuzkoako Biozientziak Fundazioari ematen dion funts finantzarioa gehitzea proposatzen da.

- Miramoneko Parke Teknologikoko lurzorua zabaltzea:

  Miramoneko parke teknologikoa saturatuta eta zeharo okupatuta dago, eta inbertsio berriak egin behar dira bertako lurzorua zabaltzeko edo Gipuzkoako beste gune bat martxan jartzeko, Miramoneko Parke Teknologikoaren irisgarritasun- eta lehiakortasun-baldintza beretan, funtsezkoa baita enpresa-jarduera berriak erakartzeko, batez ere ezagutzan eta I+Gn dihardutenak.

- Zentro Teknologikoak eta enpresa txikiak:

  Enpresa txiki eta tailer ugarik ez dute baliabiderik I+G jarduerak burutzeko; horregatik, ezinbestekoa da zentro teknologikoek garatzen duten lana - kontuan izanik finantzazio publiko handiagoa dutela- Gipuzkoako lurraldeko enpresa txikietara eta tailerretara ere iristea. Zentzu horretan, PSE-EEren proposamena da, gainerako erakundeekin batera -batez ere Eusko Jaurlaritza- hurbilketarako plan bat martxan jartzea, alegia zentro teknologiko handiak hurbiltzea enpresa txikiek berrikuntza teknologikorako duten premietara, hori gauzatu ahal izateko zuzkidura-funts batekin.

- Enpresen Gizarte Erantzukizuna Sustatzea.

  Gipuzkoako Enpresen Gizarte Erantzukizuna Sustatzeko politika bat bultzatuko dugu, haien ezagutza eta dituzten jardun onenak ezagutzera emanez, eta gizarte-erantzukizun politikek enpresen lehiakortasunean duten eraginari buruzko azterlana eta analisia sustatuz. Hori guztia honako helburu hauek lortze aldera: gardentasuna kudeaketan, gobernu korporatibo ona, gizartearekin eta ingurumenarekin konpromisoa hartzea, giza eskubideak errespetatzea, lan-harremanak hobetzea eta orekatzea, lan-eskubideak errespetatzea, kalitateko enplegua sustatzea, emakumeen integrazioa sustatzea, enpresetako zuzendaritza-karguetan emakumeen presentzia parekatzea lortzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, bereziki soldata-arrailari azkena ematea, aukera-berdintasuna sustatzea, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsala sustatzea, kontsumo arduratsua sustatzea.

- Haurtzaindegiak pabiloietan, parke teknologikoetan eta enpresa handietan:

  EEnpresen erantzukizun sozialari eta genero-berdintasunarekin hartua duten konpromisoari dagokienez, sozialistek inbertsio-plan bat ezartzea proposatzen dugu pabiloi industrialetan, parke industrialetan, parke teknologikoetan eta enpresa handietan haurtzaindegiak batera finantzatzeko, familia eta lana kontziliatzea ahalbidetzeko, funtsezko alderdia baita berdintasun handiagoa lortzeko eta lurraldean jaiotza-tasa sustatzeko. Langileentzako ekipamendu edo zerbitzu horiek Foru Aldundiarekin (eta arlo

horretan eskumena duten beste administrazio publiko batzuekin) batera finantzatuko lirateke, baita enpresekin batera ere, enpresak izango baitira ekimen honen onuradun nagusiak, beren langileen talentua atxikitze aldera erakargarri bat delako.

- Turismoa: jasangarritasunaren erronka enplegua eta aberastasuna sortzen dituen jarduera sortu berri baterako:

  Turismo-eredu jasangarri, adimendun eta demokratiko batean sakontzea da gure helburua. Zentzu horretan, garrantzi berezia hartzen du orain dela gutxi Gipuzkoan lortutako akordio politikoak Gipuzkoako Turismo Ereduari buruz, baita turismoaren arloko politiken inguruan onetsitako gomendioek, teknologia berriek, fiskalitateak, jasangarritasunak, irisgarritasun unibertsalak, gure kulturak, ekonomiak, enpleguak eta Gipuzkoaren nazioarteko proiekzioak ere. Gipuzkoa Klima 2050 klima-aldaketaren lurralde-estrategiari dagokionez, Gipuzkoako Aldundiko Turismoko eta Ingurumeneko departamentuarekin elkarlanean jarraitzea, 2025erako Lurraldeko alojamendu guztiak beharrezko jasangarritasun-estandarretan eta ingurune naturalaren errespetuari dagozkion horietan txertatzeko. Agroturismoak sustatzea, Lurraldean esperientzia turistiko berezi eta orekatu bat bizitzeko establezimendu paregabe gisa. Turismo aktiboa. Zerga-neurriak martxan jartzea aztertuko dugu mota horretako alojamenduak sustatzeko. Baita hotel-establezimenduetan inbertsioa bultzatuko duten neurriak ere, plazen eskaintza dela-eta egoera ahulenean dauden udalerrietan edo eskualdeetan.

- Turismoa eta kalitateko enplegua:

  Instituzioek eta Turismo Sektoreko enpresek lortzen jarraitu behar dugun helburuen artean daude giza kalitatea hobetzea, enpleguan kalitatea hobetzea eta Sektorearen profesionalizazioa. Turislan Turismoko Enplegu Azoka, 2017an abian jarri zena, laguntzen ari da helburu horietan. Horregatik, gure ustez, Helmugak, instituzioen, enpresen eta eragile sozialen artean aurretik akordioetara iritsita, Kalitate Zigilu bat ezar lezake Enpleguan, Gipuzkoako enpresa turistikoak identifikatzeko. Turislan bezalako ekimenek tradizioz Turismotzat hartu izan direnak ez bezalako merkatu-nitxoak identifikatzen lagundu dezakete, eta haien produktuak eta zerbitzuak garatzeko aukera aurki dezakete. Teknologia berrietatik sektore primarioraino, ingurumenetik igaroz, besteren artean.

- Turismoa eta saltoki txikiak, hemengo merkataritza:

  Turismoa erabiliko duten neurriak jarri behar ditugu martxan tokiko merkataritza ezagutzera eman eta indartzeko. Zentzu horretan, eta Hodeian turismo adimendunaren proiektuak lagunduta, bidaiaren esperientziak berekin dakarren aberastasuna nabarmentzen dugu kalitateko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten hemengo saltoki bereizgarrietara bisitak gehitzeko. Tokiko saltoki bereziek eta elementu identifikatzaileekin lotutako eskualde-ibilbideek, tokiko produktuek, azoka tradizionalek eta gastronomiak leku nabari bat hartzen dute horrela. Turisten gasturik handiena modan eta oinetakoetan izan ohi da.

- Espazio bakar bat sortzea Gipuzkoako eta Donostiako turismoa sustatzeko:

  Gipuzkoako helmuga San Sebastian Region izenpean garatu ondoren, baita dagozkion giza baliabideak eta promoziozkoak ere, iritsi da garaia Gipuzkoako hiriburuan Donostia Turismoarekin batera espazio bat partekatzeko, era horretan hiriburuaren eta lurraldearen eskaintza turistiko osoarekin bisitariari/turistari erantzun ahal izateko. Bestalde, Gipuzkoako Turismo Mahaia, 2016ko maiatzean eratua, Gipuzkoako Turismoaren Behatokia, hilabete batzuen ondoren sortua, Turismo Adimenduna eta Teknologia Berrien aplikazioa gobernantzarako eta partaidetzarako giltzarria izango dira turismo

jasangarrian eta ekologikoan, sozialistek Foru Aldundian abian jarritakoan.

- Saltoki txikiak sustatu eta bultzatzeko plana:

  : Saltoki txikiek zenbatetsi ezin den aberastasuna ematen diete gure herri eta hiriei. Gure kaleetako bizi-kalitatea, bizikidetza, berezitasuna, kolorea eta alaitasuna, neurri handi batean, zerbitzu pertsonalizatuak ematen dituzten saltoki txikien menpe daude, ezartzen diren tokiko gizartearekin konprometitutako tratu gizatiarragoa zabaltzen laguntzen dutela kontuan izanik. Aldundia behartuta dago saltoki txikiak aurre egiten ari zaien erronka berriei erantzutera; horregatik, Udalekin lankidetzan, plan bat landuko du sektore honen eta bere arazo nagusien eboluzioaren argazki doi bat lortzeko, eta sektore hau bultzatzeko neurri-bateria bat proposatzeko. Neurri horiek eragina izango dute lokalen prezioetan, saltoki txikien arteko lankidetza-bideen ezarpenean, teknologia berrietara egiten duten egokitzapenean eta zerga-kontuetan zilegi ez diren praktiken aurkako borrokan, eskaintzaile desberdinen artean, fisikoak nahiz digitalak izan.

Ogasuna eta politika fiskala eta finantzarioa

Finantzen eta zergen arloko politika bat Gipuzkoako gizartearen aurrerabide sozialaren, ekitatearen eta ongizatearen zerbitzura

2013an Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako zerga-sistemaren erreforma orokorraren ondoren, 2018an erreforma fiskal berri bat onetsi da, Euskadi mailan ere bai, kasu honetan bere edukian mugatua, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan izan du eraginik handiena.

Gipuzkoa mailan, 2018an ere bai, orekatu egin da beste bi Lurralde Historikoekin ondarearen gaineko zerga. Oreka hori ez da guztiz lortu, baina Autonomia Erkidego guztiaren Ondarearen gaineko Zerga progresiboena ahalbidetu du.
Datorren Legealdirako, erreforma fiskala indarrean dagoela, fiskalitatea ingurune sozioekonomikora egokitzeko zerga-neurri puntualetatik harago, lanean jarraituko dugu, Kontzertu Ekonomikoak eskaintzen dituen aukerekin, zerga-sistema bidezko bat mantentzearen alde, non guztiek lagunduko duten gastu publikoei eusten, beren ahalmen ekonomikoaren arabera; zerga-sistema bidezko bat, berdintasunaren eta progresibitatearen printzipioetan oinarritua.

Bestalde, aurretik ikusi dugun bezala, Gipuzkoako aurrekontuen sarreren egiturak neurri txikiagoan du eragina sozietateen zergaren sarreretan, eta gehienbat PFEZen eta kontsumoari lotutako zeharkako zergetan du eragina. Erreforma horien ondorioak etengabe kontrastatu eta aztertu behar dira desorekak detektatzeko eta sistema progresibo eta bidezko bat ziurtatzeko, gastu publikoen kargak egokiro banatuak izateko.

Azken batean, lanean jarraitu behar dugu zerga-sistema desberdintasun ekonomikoa murrizteko benetako baliabide bat izatea lortzeko, eta horretarako Kontzertu Ekonomikotik eratorritako araudi fiskal eta finantzarioaren ahalmena garapen ekonomikoaren, kalitateko enpleguaren, ongizatearen eta aurrerabide sozialaren zerbitzura jarri behar dugu. Zerga-sistemak aukera hauek eman behar ditu:

- Mundu guztiak dagokiona ordaintzea.
- Gehiago duenak gehiago ordaintzea, eta proportzio handiagoan.
- Fiskalitatea nahikoa izatea politika publikoak bermatzeko, bereziki ongizate-estatua definitzen dutenak.
- Zerga-sistema orekatua izatea Euskadi mailan.

Premisa horiekin, Gipuzkoako PSE-EEk honako proposamen hauek egiten ditu zergen eta gastuaren eremuan:

Borroka iruzur fiskalaren aurka:

Legealdi honetan, indartu egin ditugu zerga-iruzurrari eta zerga-saihesteari aurka egiteko neurriak eta baliabideak. Zerga-iruzurraren aurkako borroka lehen mailako lehentasun politiko bat da Gipuzkoako PSE-EErentzat. Zerga-iruzurra demokraziaren arazo larri bat da. Oinarrizko printzipioak hausten ditu, besteren artean, berdintasun-printzipioa gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharrean. Ahalmen ekonomikoaren printzipioa hausten du, zergak ordaintzeko betebeharraren parametro nagusi gisa hartuta. Gainera, zerga-justiziaren eta gehiengoaren printzipioa hausten ditu. Azken batean, solidaritaterik ezaren adierazpide onartezin bat da, gastu publikoei eusten laguntzeko herritarren betebeharra zintzotasunez betetzen dugunok ordaindu behar baitugu iruzurgileek ordaintzen ez dutena. Iruzurraren aurkako neurriekin batera, gure ustez, indartu eta martxan jarri behar dira gizartea kontzientziatzeko neurri berriak. Gipuzkoako Foru Ogasunak, gainerako Zerga Administrazioekin lankidetzan, argi eta garbi jakinarazi behar dizkio Gipuzkoako gizarteari zerga-iruzurrak berekin dakartzan ondorio sozial larriak. Ezinbestekoa da kontzientzia fiskala areagotzea, zerga-iruzurraren ondorio ekonomiko eta sozial larriak argi eta garbi ikus daitezen.

Erakundeen arteko koordinazio-neurriak:

Aurrera jarraitu beharrean gaude Zerga Administrazio eta Toki Administrazio desberdinen arteko koordinazioan eta lankidetzan, jarduera iruzurgileak antzeman eta zuzentzeko datu informatikoak trukatzen. Informazioa berehala ematea funtsezkoa da zerga-iruzurraren aurkako borrokan. Bereziki, arazo hauei helduko dieten koordinazio-neurriak hartu behar dira: Gezurrezko deslokalizazio kasuak antzemateko jarduerak; Enpresa handien kontrola areagotzea; Foru Ogasunarekiko zordun handien etengabeko jarraipena; Zerga-hezkuntzako jarduerak, erakundeen artean lankidetzan, modulu horiek emango dituzten ikastetxeak gehiago izan daitezen, baita zerga-hezkuntzako unibertsitateko tailerrak ere; Zuzenean edo zeharka zergen eremuan diharduten erakundeekiko lankidetza indartzea: aholkularitza fiskalak, Ekonomialarien Elkargoa, Abokatuen Elkargoa eta abar.

Gardentasun fiskala lortzeko neurriak:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legeak eta loturiko beste lege batzuek ezarritako legezko mugen barruan, Foru Aldundiak gardentasun-mekanismoak jarriko ditu martxan pertsona edo enpresa iruzurgile bakar bati ere faborezko traturik ez emateko.

Paradisu fiskalen aurkako borroka:

Eskumenei dagokienez orain dauden mugak kontuan hartuta ere, Nazioarteko Erakundeei eta Europar Batasuneko Erakundeei helarazteko ekimenak sustatuko ditugu Paradisu Fiskalak deitutako horiek desagerrarazteko.

Familia eta pertsona langile pobreak eta fiskalitatea. Kreditu fiskalen aintzatespena:

Euskadik, eta Gipuzkoak, Estatuko gainerako lekuekin gertatzen denaren ildo beretik, familiei seme-alabengatik ematen dizkien laguntzak Europako batez bestekoaren azpitik

daude. Errealitate hori anomalia bat da kontuan hartzen badugu Kontinenteko jaiotza-tasa txikiena duten lurraldeetako bat garela. Jaiotzagatiko eta familientzako laguntzak kontribuziorik gabeko prestazioak edo hobari fiskalak izan daitezke. Laguntza-premia handiena dute pertsonak edo familiak, behar adina diru-sarrerarik ez dutelako, zergak ordaintzera behartuta ez daudenean sortzen da arazoa, eta horregatik ez dute pizgarri fiskalik jasotzen, seme-alabengatik nahiz etxebizitzagatik egon daitezkeenak. Zentzu horretan, errenta altuenek jasotzen dituzte onurarik handienak jaiotzagatiko pizgarrietan, eta hori ez da bidezkoa ezta eraginkorra ere jaiotza-tasak gora egiteko. Horregatik, PSE-EEk defendatzen duena da pertsona edo familia pobreek sorrarazitako kreditu fiskalak, hau da, familia-kargak kendu ahal izango lituzketen eta behar adina diru-sarrerarik ez dutelako halakorik egitea ezinezkoa duten pertsonek sorrarazitakoak, kontuan hartzea eta itzuli ahal izatea aitorpenik egin behar ez duten pertsonentzat ere.

- Turismo Ekotasa edo Zerga:

  Foru Aldunditik, Gipuzkoako PSE-EEk gure jarrera erakutsiko dugu turisten ostatugauak zergapetuko dituen turismo-zerga bat ezartzearen alde, egokitzat jotzen duten udalerrietan, ekartzen duten aberastasunak ondorioak izan ditzan eta esku publikoetan gera dadin, turismo-politika jasangarria sustatzeko baliabide izateko, turistek kontsumitzen dituzten zerbitzu publikoen kostuaren gehikuntza finantzatzeko edo ondare historikoa eta kulturala berreskuratzeko erabiltzeko.

- Fiskalitate berdean aurrera egitea:

  Murrizketak, hobariak edo salbuespenak sozietateen zergaren bitartez, ekonomia zirkularraren paketean ezarritako helburuak betetzea xedetzat duten ekintzak sustatzeko jardueretarako eta, bereziki, hondakinen prebentzioa, berrerabiltzeko prestaketa eta birziklatzea sustatzen duten horietarako. Era berean, azterlan bat proposatzen dugu mugikortasun elektrikoari buruzko araudi fiskal berri bat lantzeko, aldaketa arautu eta sustatuko duena, baita lurraldeko mugikortasun publiko eta pribatuaren elektromugikortasunerako egokitzapena ere.

Sarreren eta gastuen politika eraginkorra eta ekitatiboa

PSE-EE ohartarazten ari den bezala, zerga-sistemaren bitartez gastu publikoei eusten laguntzeko betebeharra bidezkotzat hartuko da bildutakoa behar bezala gastatzen bada: zergadunak emandako dirua xahutzen ez bada eta gastu publikoaren programazioa eta exekuzioa eraginkortasunaren eta ekonomiaren irizpideetan oinarrituta egiten badira. Gastu publiko eraginkor eta ekitatiboaren politika batek lagundu egingo du fiskalitateari merezi duen duintasun politikoa ematen, eta nabarmendu egingo du errenta eta aberastasuna birbanatzeko betetzen duen funtzio soziala, Estatu sozialaren muina, alegia. Gure Instituzioen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) barne-finantzazio sistemari dagokionez, PSE-EEk honako printzipio hauek defendatzen ditu:

- Gipuzkoa zigortuko ez duen ekarpenen lege berri eta bidezko baten alde:

  PSE-EEk ekarpenen lege berri bat proposatzen du, Foru Aldundiek egin beharreko ekarpenen banaketa ekitatiboa bermatuko duena, Lurralde Historikoek Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-gastuei egindako ekarpen gisa. Zentzu horretan, eta banaketa-eredu horizontalari dagokionez, Lurralde Historiko bakoitzaren ekarpen-koefizienteak finkatu beharko dira, Lurralde Historikoen Legean jasotako irizpideak objektibotasunez

aplikatuz, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) emandako datu ekonomikoetan oinarrituta (errenta, bilketa-ahalmena, presio fiskala eta abar). Zentzu horretan, gure iritziz, bereziki eta dagozkien ondorioetarako, ikusi egin behar da Lurralde Historiko bakoitzeko bilketa-datuak eta beren koefiziente horizontalak desberdinak izan ote diren azkeneko ekitaldietan, arrazoi estrukturalak direla eta. Gainera, kontuan hartu beharko lirateke EAEko administrazio orokorreko egoitzen kokapenagatik lurralde historikoek jasotzen dituzten sarrera guztiak. Koefiziente bertikalari dagokionez, Lurralde Historikoetako Instituzio Komunen eta Foru Erakundeen arteko eskumenen banaketaren oraingo errealitatea kontuan hartu beharko da, gastuen lehentasun gisa hartuta Ongizate Estatua defendatzen duten politikak eta Euskadiko jarduera ekonomikoa sustatzera eta enpresa-ehuna eta enplegua indartzera bideratuak.

- Udalerrien finantzazioa:

  Udal finantzazioari dagokionez, funtsezkotzat jotzen dugu Udalerriek betetzen duten zeregin instituzionala indartzea, baita finantzazio egoki bat ere beren jasangarritasun finantzarioa ziurtatzeko, herritarrentzako prestazio egokiak bermatzeko moduan, Toki Erakundeen 2/2016 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz. Tokiko Autonomia, finantzazio egokirik gabe, ezerezean geratzen da. Gainera, gure proposamena da Udal Finantzaziorako Foru Funtsak populazioaren sakabanatze-faktorea kontuan hartzea, baita beste faktore sozioekonomiko batzuk ere, Gipuzkoako udalerrien arteko baliabideen banaketa ezartzeko garaian

Oreka eta konektibitatea, klima-aldaketaren aurka borroka egiteko lurralde-estrategia

Lurralde eta gizarte orekatu eta jasangarri bat lortzeko martxan jarri behar dira plangintza bat eta politika batzuk, ingurumen egoki bat, mugikortasun jasangarri bat eta lurraldearen plangintza egoki bat bermatzera zuzenduak, kontuan izanik bertan kokatuko direla lurraldean dauden azpiegiturak eta jarduera ekonomiko, sozial eta kultural desberdinak, beste askoren artean.

Plangintza horrek gai izan behar du bateragarri egiteko Gipuzkoako lurraldearen eta gizartearen eskaera sozial eta ekonomiko guztiak, eta gipuzkoarren interes orokorrari eman behar dio lehentasuna. Gipuzkoa lurralde mugakide bat da, orografia konplexu batekin eta lurzoru gutxirekin, baina, hala eta guztiz ere, ahalmen handia du talentua erakartzeko gune bilakatzeko, ekonomikoki dinamikoa eta sozialki kohesionatua izango den talentua, alegia.

Beraz, Foru Aldundiaren erronka nagusia da, lurraldean eragina duten gainerako instituzioekin lankidetzan, Gipuzkoa lurralde erakargarri eta lehiakor bat bilakatzea, jarduera ekonomikoak erakarriz –balio handikoak eta enplegua eta etorkizuneko aurrerabidea sortzen dutenak–, bere ingurumena eta bere paisaia errespetatuko dituena, klima-aldaketaren borroka globalean lagunduko duena, bere herritarrei bizitza erraztuko diena, eta kohesio sozialaren eta gizarte osoarentzako aukera-berdintasunaren bermea izango dena. Anitzak dira lurraldearen eta bertako jardunaren plangintzan inplikatuta dauden jarduerak; azpiegiturak, landako eta hiriko habitata, mugikortasunaren eta energiaren kudeaketa adimenduna, ura, hondakinen kudeaketa, alboko lurraldeekin dituen harremanak, eta EBko beste Estatu batekoak diren horiekin eta abar. Helarazten dizkizuegun proposamenak bi bloketan banatu ditugu nagusiki

(ingurumena alde batetik, ikuspegi zabal eta integratu batetik ingurumena zeharkako politika gisa hartuta eta, mugikortasuna bestetik, gure mugikortasunaren osagai guztiei heltzen dien errealitate global gisa hartuta)

Ingurumena eta klima-aldaketaren aurkako borroka

XXI. mendeko erronka handia

Une batez atzera begiratuz gero, sozialistek aldarrikatu eta ospatu egin behar dugu hamarkadetan zehar Gipuzkoak jasandako arazo nagusi eta gatazkatsuetako bati konponbidea eman izana: hiri-hondakinen kudeaketa publikoaren arazoa, irtenbide baten zain zegoen arazo zaurgarria, PSE-EEk Foru Aldundiko Ingurumeneko departamentuaren buruan bideratzen jakin izan duena azpiegitura orekatu, jasangarri eta egingarriekin. Gipuzkoak, ordea, beste arazo batzuk izan ditu lehen, baita orain ere, arreta politiko handiagoa eskatzen dutenak, besteren artean: lurraldearen gaineko presioa eta berotze globalaren aurkako borroka. Bada garaia Gipuzkoak etorkizunari, ekonomia berdeari, jasangarritasunari begiratzekoa, eta klima-aldaketaren aurkako borroka bere lehentasun politikoen erdigunean kokatzekoa, karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioan aitzindari izanik, eta horretarako 2 jardute-ardatz oinarritzat hartuta:

- Trantsizio ekologikoa: Trantsizio energetiko bidezkoa eta Klima Aldaketa
- Ekonomia zirkularra

Legealdi honetan, sozialistak gai izan gara hondakinen kudeaketaren zirkulua ixteko, behin betiko eta Europar Batasunean hondakinen kudeaketaren eremuan dauden politika aurreratuenekin lerrokatuta, hondakinen hierarkia betez eta azpiegitura aurreratuenak eraikiz, punta-puntako teknologiarekin. Hala, hondakinen esportazioaren odiseatik irteteko aukera eman digu horrek, Bilduren gobernuaren kudeaketak gerturatu gintuen azpiegituren gabeziak eraginda.

Eta azpiegitura propioak dituen lurralde bat izateaz gainera, hiri-hondakinen kudeaketa lurraldean bertan konpondu duena, ekonomia linealetik ekonomia zirkularrerako trantsizioaren oinarriak finkatu ditugu, gure enpresak indartuz eta babestuz 2016an birziklatzearen eta berrerabiltzearen Clusterra sortzean, duela lau urte agindutakoa betez. Beti pentsatu izan baitugu hondakina ez zela arazo bat, aukera bat baizik ekonomia berdearen, zirkularraren eta jasangarriaren nitxo berriak irekitzeko.

Gure enpresa txikien eta ertainen balioa nabarmendu dugu berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketaren arloan. Etorkizuneko sektore bat baita, irmotu eta proiektatu nahi duguna, gero eta beharrezkoagoak baitira birziklatze-prozesuetatik eratorritako lehengai berrien sorkuntza babestu eta garatuko duten politikak, naturako baliabideen erauzketa masiboari azkena emateko.

Bestalde, gure alderdia izan da, oraingo legealdian, klima-aldaketaren aurkako borroka, etorkizuneko erronka ez ezik, herrialde, lurralde eta udalerri guztiak aurre egiten ari garen hazkunde-aukera bat ere dela jabetu dena; gure alderdia izan da klima-aldaketaren aurka borroka egiteko Gipuzkoako estrategia bat idatzi duena: Gipuzkoa Klima 2050, gure lurraldearen zaurgarritasunaz eta premiez jabetuta. Departamentu guztien zeharkako elementu gisa txertatu dugu klima-aldaketaren aldagaia, eta aurre egin behar diegun lehentasunen eta erronken artean kokatu dugu klimaren gobernantza.

Lehentasunez ekin behar diogu gai honi, orain hartzen ditugun erabakiak eta politika aktiboak erabakigarriak izango baitira gure hirien eta udalerrien erresilientziaren etorkizunerako. Orain hartzen ditugun erabakien, jarduteko eta kudeatzeko orain dugun gaitasunaren menpe egongo da Gipuzkoaren etorkizuna datozen belaunaldietarako. Horregatik, beharrezkoa da berehala ekitea klima-aldaketaren bilakabidera egokitutako lurralde bat ziurtatze aldera.

Klima-aldaketaren aurka borroka egiteko, politika guztietan eragina duen zeharkako elementu gisa, berehala ekin eta definitu behar dugu ekintza-plan bat BEG isurien % 60 biltzen duten bi aldagai nagusien gainean: Mugikortasuna eta Energia, oraingo estrategian jaso bezala.

Eta orain da garaia Gipuzkoako gaur egungo ibilbide energetikoa aldaraztekoa, kontuan izanik lurralde honek energia-menpekotasun handia duela, eta energia berriztagarrien presentzia minimoa; bada garaia Gipuzkoarentzat energia berriztagarrien eredu berriak arakatzekoa, gure lurraldearen eraginkortasun energetikoa hobetzekoa, eta kontsumitzaileen autokontsumoa sustatu eta ahalbidetzekoa, baita energiaren banaketa-sareak sortzekoa ere, gure herritarrei energia berdea, merkea eta lehiakorra eskueran izateko aukera emango dietenak.

Alderdi sozialistak barneratu ditu Gipuzkoako lurraldean politika berdeak, eta haien buru da, gai honetan politika zehatzak bultzatzen jardunez. Kudeaketa horrek duen garrantzia nabarmendu behar dugu, Gipuzkoarako ekonomia berde baterako trantsizioan aitzindari izan behar dugu, lurralde Eko-arduradun baterantz egin behar dugu aurrera, eta gai hauetan etengabe lanean jarraitu; zeharkako arloak dira, beste arlo batzuen elkarlana eta lankidetza eskatzen dutenak, gure politiketan ekonomia berderako trantsizio horretan aitzindari izateko gaitasuna emango dutenak, erronka gisa ez ezik, Gipuzkoarentzat izan daitekeen hazkunde-aukera gisa ere.

Horretarako, garrantzizkoa da ulertzea beharrezkoa dela baterako lan hau aurrera ateratzeko arlo politiko desberdinek behar duten zeharkakotasunean ingurumenaren arloa kokatzea. Gure arloetan kudeaketa zurrunean jarraitzean oker jokatzen ari gara eta horren ordez arloen artean batera eta zeharkakotasunez lan egiteko gai izan behar dugu, aurre egiten ari garen erronka handienaren aitzindaritzan egon ahal izateko: gure lurraldeko ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen jasangarritasuna.

Politika horiek batera aurrera eramanez gero gai izango gara herrialde guztietan ezarri diren Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) aitzindari izateko eta haietan aurrerapausoak emateko, baita aurre egin behar diegun etorkizuneko erronketan ere. Hemen erantsitako irudian ikusten den bezala, arlo desberdinetan zeharkakotasunez ekiteko eskatzen duten erronkak dira, non lankidetzak, ingurumenak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak, erabateko garrantzia hartzen duten.

Trantsizio ekologikoa: energia eta klima-aldaketa herritarrentzako eta haien bizi-kalitatea hobetzeko bidezko trantsizioaren irizpideetan oinarrituta

2015-2019 legealdian, Alderdi Sozialistak sortu, bultzatu eta garatu du klima-aldaketaren aurkako Borroka estrategia Gipuzkoan.

Zeharkako estrategia horrekin, guk kokatu dugu klima-aldaketa politiken erdigunean. Eta hori, hain zuzen ere, etorkizunari begiratzeko premiagatik izan da, orainaldia kudeatuz betiere, eta gure alderdiak lidergorako duen gaitasuna erakutsita.

Lurralderako kudeaketa-politika aktiboak, gure enpresentzat eta gure herritarrentzat, etorkizuneko lurralde jasangarri eta eko-arduradun batentzat, baina batez ere klima-aldaketak etorkizunari begira maila globalean eta toki mailan izango dituen eraginen eta ondorioen bilakabidera egokituta.

Egina dugu dagoeneko klima-aldaketaren estrategia eta irmotu egin da 2018ko maiatzeko Foru Dekretu bidez. 2018ko maiatzetik 2019ko maiatzera bitarteko aldian, estrategia horrek biltzen dituen ekintzen % 67 inguru abian jarri ditugu, baina lehentasunezkoa eta funtsezkoa da arlo hori lantzen jarraitzea eta, horregatik, eta ingurumen-politikak, trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa gure politiketan funtsezkoak direla kontuan hartuta, etorkizuneko inbertsio-politiketan hartzen diren erabakien erdigunean kokatu nahi ditugu.

Horretarako, lerro hauetan jarraitu behar dugu lanean:

- **Energiaren eta klimaren estrategia integratu bat lantzea:**

  akordio sendo, zabal eta partaidetzazko bat, premia guztiei erantzungo diena, sektore guztien, eremu publikoaren eta eremu pribatuaren premia guztiei, alegia, eta trantsizio ekologiko bidezko eta ekitatibo bat bermatuko duena. Zentzu horretan, Bidezko Trantsiziorako Plan Estrategikoa lantzea proposatzen dugu, non lurraldeko eragile guztiekin egingo dugun lan, eta eragile sozialekin bereziki, egoera ahulenean dauden lekuetan enplegurako eta prestakuntzarako politika aktiboak, beharrezko babes sozial espezifikoa eta beharrezko trantsizio-planak sustatzeko.

- **Udaletako trantsizio energetikorako Plana:**

  Energiaren Euskal Legea garatuz, Udal guztiei laguntzeko plan bat martxan jartzea, Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketaren aurka borroka egiteko Plan bat burutu dezaten, aholkularitza emanez eta plan hori garatu eta ezartzeko gaitutako dirulaguntza-lerro bat sortuz.

- **Trantsizio energetikoa industrian:**

  Aurrekontuetan, industrian trantsizio energetikoa ahalbidetzeko laguntzak txertatzea proposatzen dugu. Industriara bideratutako laguntzak energia berriztagarria erabiltzeko eta CO2 atzitu, garraiatu eta biltegiratzeko, “atzipen- eta biltegiratze-katearen osagai indibidualak” barnean direla.

- **Apustu argia bidezko trantsizio energetiko baten alde:**

  Iturri berriztagarriak, autokontsumoa eta sorkuntza banatua bultzatzea. Gipuzkoako NEGen isurien % 32 energiaren sektoretik datoz. Horregatik, aurrera eraman behar ditugu ekintzak energiaren elektrifikazioan, erregai fosilen ordez elektrizitatea erabilitzeko.

- **Energia berriztagarrien protagonismo handiagoa:**

  Lurraldean energia berriztagarriak garatzeko aukera emango duen plan bat planteatzen dugu, Gipuzkoako mix energetikoan energia berriztagarriak barneratzeko. Europako helburuek energia berriztagarrien % 32 finkatu dute 2030erako. Horri gehitu behar zaio bizilekuen sektoreak beste lurralde batzuetan baino per capita kontsumo handiagoa duela, antzeko klima-baldintzetan (10,31 GJ/biztanle), eta industriaren sektoreak eskari energetiko handia duela, bereziki makina-erremintaren, forjaren… sektoreetan. Beraz, horrek behartu egiten gaitu epe labur/ertainean energiaren aurrezpenaren eta eraginkortasunaren politika aktiboei ekitera, Europak finkatutako % 32,5eko helburua betetzea ziurtatu ahal izateko. Gainera, horrek aukera emango digu orain jasaten ari garen menpekotasun energetikoaren aurka borroka egiteko, kontuan hartuta kanpotik inportatu behar izaten dugun energiaren % 95 dela.

- **Benetako konpromisoa eraginkortasun energetikoarekin:**

  Administrazio publikoetako eta sektore pribatuko eraikinetan eta instalazioetan eraginkortasun energetikoa bultzatzea, industrian, merkataritzan eta zerbitzuetan eraginkortasunean inbertitzeko neurri fiskal pizgarrien bitartez, eta kontratazio publikoan gutxieneko estandarrak aplikatuz, hornikuntzetako nahiz obretako eraginkortasun energetikoaren baldintzetan. Zentzu horretan, administrazio publikoen aldetik energia berriztagarrien % 70-100 erosteko konpromisoa hartzen dugu guregain. Gainera, bero- eta hotz-sareen alde egingo dugu apustu, lurraldean dagoen aprobetxamenduaren bitartez. Apustu argi bat *district heating* eta *district cooling* garatzearen alde.

Klima Aldaketaren Fundazioa:

Klima Aldaketaren Fundazioa, legealdi honetan sortua, gure alderdiaren apustu argi bat izan da, Gipuzkoa aitzindaritzan eta buruan kokatzearen alde klima-aldaketaren aurka borroka egiteko politiken garapenean, Gipuzkoa erreferente izan dadin klima-aldaketaren aurka borroka egiten duten Europako sare aurreratuenekin konektatutako lurralde gisa. Apustu hori gauzatu eta garatu egin beharrean gaude bere osotasunean legealdi berri honetan, garrantzizko gaiak baitira guztiak gure alderdiarentzat.

Gipuzkoako lurraldea ekonomia zirkularrean giltzarri

Arlo honetan, Europako estrategiak lortu nahi duen helburua da material fisikoak eta haien balioa ahalik eta denbora luzeenean ziklo ekonomikoan mantentzea, eta era horretan hondakinak gutxitzea, energiaren aurrezpena sustatzea eta negutegi-efektuko gasen isuriak murriztea. Gure alderdiak, oraingo legealdian jada, apustu irmoa egin du zentzu horretan. Legealdi honetan onetsitako foru-araua, PIGRUG 2019-2030, dugu horren erakusgarri, kontuan izanik asmo handiagoak dituela Europako gidalerroek ezarritakoen aldean; izan ere, % 70eko helburua ezartzen da, ekonomia zirkularrean gure alderdiak hartutako konpromiso argi gisa. Bestalde, lurraldeko 56 enpresarekin baino gehiagorekin Gk Recycling eratu izana ekonomia berdearen eta tokikoaren inguruan ere aukerak sor daitezkeenaren erakusgarri bat da, Gipuzkoan lanpostuak sortuko dituena.

Hala, helburu hori beteko dela ziurtatzeko, beharrezkoa da gobernuetatik, instituzioetatik eta administrazio publikoetatik, enpresekin, unibertsitateekin, elkarte ekologistekin eta herritarrekin lankidetzan, berehala ekitea. Baina baita hazkunde ekonomikoaren, gure enpresen sorkuntzaren eta zabalkuntzaren aukerak aprobetxatuz ere, betiere gaitasuna erakutsiz iraultza industrial berriaren ahalmena ikusteko lurraldeen eta komunitateen pizgarri gisa, azken batean honetaz ari baikara: Laugarren iraultza industriala edo iraultza berdea, horixe da Gipuzkoan betetzea lortu behar dugun helburua, kontuan izanik beharrezko baliabideak bertan ditugula, gure enpresen, zentro teknologikoen eta unibertsitateen bitartez, baita oso sentsibilizatuta dagoen herritartasunaren bitartez ere, beharrezko pausoak emateko eta gure komunitatea Europako herrialde aurreratuenen mailan kokatzeko.

Ekonomia zirkular baterako aldaketak lagundu egingo du “ekoiztu-kontsumitu-desegin” kontzeptuan oinarritutako oraingo ekonomia linealak ingurumenean eta pertsonen osasunean eragiten dituen arazoak arintzen. Hala ere, aldaketa sakonak egin behar izango dira ekoizpen- eta kontsumo-sistemetan, baliabideak eraginkortasunez erabiltzetik eta hondakinak birziklatzetik harago.

Ekonomia zirkularra gauzatu ahal izateko funtsezkoa izango da ezagutza garatzea, aurrerabideen jarraipen bat egitea, eta bermatzea arduradun politikoek ulertu, sustatu eta eskueran ditugula beharrezko datuak eta informazioa politika faboragarrien eta malguen garapena bideratzeko.

Beraz, nabarmendu egin behar dugu, EBn adierazi bezala, ekonomia zirkularra hazkundearen, ekonomia eta enplegu berdearen eremu itxaropentsu bat dela, “negozio-aukerak eskaintzen ditu eta berrikuntza eta enpleguaren sorkuntza sustatzen ditu” eta, adierazi bezala, “eskualde horiek ezarritako soluzioak beste lurralde batzuetan ere ezarri ahal izango lirateke, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea helburu hartuta”. Izan ere, horrek areagotu egiten du gure lurraldearen ahalmena, eta laguntza nabarmen bat da jada Euskadin dauden enpresen internazionalizazioa bultzatzeko.

Horretarako, honako ekintza zehatz hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu ekonomia zirkularra errealitate bihur dadin:

- Erosketa publiko berdea:

  Kontratazio publiko berdea gauzatzeko plana, eta berrikuntzaren eta ekonomia zirkularra

bultzatzearen aldeko plana, material berrerabilgarrien eta birziklatuen erosketari lehentasuna emanez eta materialetan ekodiseinua barneratzen lagunduz. Merkatuarekin koordinazioa optimizatzea izango da erosketa eta kontratazio publiko berdearen helburua, era horretan merkatuak eko-berrikuntza barneratzen duela eta, aldi berean, Administrazio Publikoek baliabideak modu eraginkorrago batean erabiltzen dutela bermatzearren. Alderdi hori funtsezkoa da eta eskari handia du birziklatzeko industriaren eta enpresen aldetik, kontuan izanik gaur egun beharrezkoa dela material horiek sustatzea, ordeztuko dituzten lehengaiak baino garestiagoak diren arren, eta merkatuan barneratzen lagundu ahal izateko ezarri egin behar dugu betearazpen hori. Horretarako, administrazioen hornikuntza-, zerbitzu- eta obra-kontratuetan administrazio eta sozietate publikoen lizitazio publiko guztietan nahitaez bete beharreko portzentajeak ezartzen direla bermatu behar dugu, era horretan sustatzen baita material hauen erabilera: bioklastikoak, plastiko birziklatuak, zurak, metala, agregakin birziklatuak, ontzi birziklatuak, paper birziklatua eta abar. Gainera, plegu horiei gehitu egin behar zaizkie helburu horien betearazpenaren beharrezko kontrol- eta monitorizazio-mekanismoak.

Circular economy hub-en garrantzia nabarmentzea:

Garapenaren, ikerketaren, eta korronte berrien, teknologiaren eta birziklatzearen garapen pilotuaren gune neuralgiko gisa. Hub hau administrazio publikoen eta sektore enpresarialaren arteko elkargune izateko sortu da eta ekonomia zirkularraren bultzatzaile eta eragile izan behar du. Modu aktibo batean egon behar du EBrekin konektatuta, funtsak, finantzazioa eta dirulaguntzak eskuratzeko, Euskadin ekonomia hori garatu ahal izateko, baina aldi berean antena gisa balio behar du enpresen internazionalizaziorako ere. Hub honek startup-en azeleragailu papera bete behar du, non gazteek ordeztuta ikusiko duten beren burua; talentu gazteek ekonomia zirkularraren inguruko proiektuak garatu, ikertu, prototipatu eta gauzatu ahal izango dituzten gune bat, administrazio publikoen eta ekonomia zirkularraren enpresa eragileen babespean.

Elkarrizketa-foroa gazteriarekin:

Ilusioz behatzen dugu olatu berdea, *Green wave*, Europako gazteen artean ingurumenaren aldeko eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzen ari dena. Belaunaldi berriak oso sentsibilizatuta daude ingurumen-gaiekin, klima-aldaketaren borrokarekin eta jasangarritasunarekin. Aldi berean, prestakuntza-maila handiko belaunaldiak dira, eta haiek izango dira ingurumenaren jasangarritasunari lotutako etorkizuneko politikak taxutuko dituztenak edo aurrera eramatea ahalbidetuko dutenak. Horregatik, gure iritziz inoiz baino premia handiagoa ikusten da, entzumen aktiboaren bitartez, haiei hitza emateko eta ekintzarako esparru bat eskaintzeko, politika aktiboetan jardutea motibatzeko ez ezik, politika horietan parte izateko eta ideiak emateko ere. Zentzu horretan, gazteen Foro iraunkor bat sortzearen alde egiten dugu apustu, orainaldiari buruzko beren ikuspegi kritikoa adierazteko eta ebaluatzeko, eta elkarrekin batera etorkizuna diseinatzeko. Tokiko talentu gaztearen aldeko apustu bat, azken finean.

Azpiegitura berdeak bultzatzea:

Orain bizi garen mundua, klima-aldaketaren emaitza, ahalik eta azkarren egokitu beharrean da etorkizuneko bilakabideetara. Horregatik, naturarekin berriro uztartzeko inoiz baino premia handiagoa ikusten da, baina baita etorkizuneko proiektuen, obren eta azpiegituren sorkuntzan natura barnean hartzeko ere. Azpiegitura berdeak giltzarria dira, gure lurraldean klima-aldaketa arintzeko ez ezik, aldaketa horretara egokitzeko ere; sare planifikatuak diseinatu behar dira, gune naturalek eta erdi-naturalek osatutakoak, lurraldeko leku guztietan biodibertsitate eta ekosistema joriak izateko, eta aldi berean, besteren artean, uholdeen edo bero-boladen oinarrizko arriskuak gutxitzen laguntzeko, kontuan izanik horiek direla klima-aldaketaren ondorioz sortutako efektu nagusietatik bi,

gure lurraldeak jasan ditzakeenak. Hala, horren isla izan behar du azalera eta berdegune iragazkor gehiago edukitzea, bai espazio publikoetan bai eraikinetan; uholdeetatik babesteko soluzio naturalak eta gure hirien urbanizazio-eredu berri bati ekitea, hirigintza jasangarriaren bitartez; klima-aldaketak eraso ditzakeen lurraldeko azpiegituren edo guneen inbentario bat egitea, klima-aldaketatik eratorritako fenomenoen aurrean egokitu ahal izateko inbertsioa bideratuta; lurraldean mapa termikoak lantzea, bero-uharteak aztertzea, haiek arintzeko ekintza-plan espezifiko bat garatzeko.

Landa-ingurunea ingurumenaren ikuspegitik

Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka departamentuaren oraingo webguneak nabarmentzen duenez, departamentuak bi helburu nagusi bultzatu nahi ditu: Gipuzkoako ekonomiaren garapena eta ingurune naturalaren kudeaketa eta babesa. Gipuzkoako PSE bat dator bi helburu horiekin eta horregatik gure uste sendoa da landa-inguruneko politikak, eta basogintzako, nekazaritzako eta abeltzaintzako politikak ingurumenaren estrategiatik definitu, landu eta garatu behar direla. Zenbaitetan itxuraz ematen duenaren kontra, abeltzaintza eta nekazaritza ekologiko bat, produkzio-unitate txikietan egituratua, ahalmen handiena duen faktorea da xede hauek lortzeko: 1) gure produktuak erakargarriagoak eta lehiakorragoak izatea lortzeko produktu ekologikoak eta ingurumenarekiko errespetutsuak exijitzen dituen gero eta eskari handiagoaren eta autentikotasunean eta KM0ren kalitatean inspiratutako politika turistiko eta gastronomiko baten aurrean; 2) interes ekonomikoak eta ingurumena zorrotz errespetatzea bateragarri izan daitezen lortzea populazio-dentsitate handiko lurralde txiki honetan; 3) udalerri txikietako populazioa mantentzea, eremu horretan gazte ekintzaileentzako aukerak sortuz.

Zentzu horretan, une honetan dugun erronka handienetako bat da orokorrean baserriak iraunaraztea, ustiategiak diren horiek batik bat, nekazaritzako nahiz basogintzako produktuen ekoizle direnak. Garai hauetan, kontsumitzaileen eta bisitatzen gaituztenen gero eta eskakizun-maila handiagoa ikusita, ustiategiak (beraz, baserriak) mantentzeko edota sortzeko aukera bat zabaldu da, behar bezala eta baliabide egokiekin landuz gero, tokiko kalitatezko produktu ekologikoen gero eta eskari handiagoari erantzungo diotenak. Gipuzkoa eta lurraldearen idiosinkrasia ikusita nekez pentsa daiteke produkzio handietan, Gipuzkoak bailarez osatutako orografia bat baitu, orokorrean azalera handiak ez dituena eskala handiko makinak edo bilketa-sistema automatikoak sartu ahal izateko.

Horregatik, eta baita sektorea erakargarri bihurtu behar dugulako ere gazteek bertan ekin nahi izateko eta lurraldearen ingurune horretan bizi nahi izateko, astearen egun bakar batean ere atsedenik hartzeko aukerarik ematen ez duen bizimodu hori atzean utzita, proposamena litzateke baserrietako lurretan ustiategi txikiak ahalbidetu eta sustatzea, nahi ez dutelako edo adinagatik ezin dutelako lantzen ari ez diren horietan. Aldundiak, Etorlurren bitartez, lurren banku bat aktibatu lezake, ondoren eskaini ahal izateko, hiru alderen arteko hitzarmenen bidez: udala, jabea, lurraren ustiatzailea. Gainera, prestakuntza espezifikoa eta irmotua behar izango litzateke sektorean, Tolosako Fray Soro LHko ikastetxea erreferente gisa hartuta, proiektu txikiak eta ertainak ustiatzeko, merkaturatzeko eta beren garrantzia nabarmentzeko beste alderdi batzuei helduko liekeena.

Premisa horietan oinarrituta, PSE-EEk proposamen hauek egiten ditu:

- Baserrian oinarritutako produkzio-eredu baten alde apustu egitea:

  Baserria mantentzea, jarduera ekonomikoa sortzeko ez ezik, gure gizartearen eraikuntzaren eta gure kulturaren eta lehenaldiaren funtsezko alderdi gisa ere hartuta. Gero eta eskari handiagoa duten produktuen ustiapen-ereduak ahalbidetzea, tokiko produktu ekologikoena, alegia. Baserriaren eta, orokorrean, sektorearen balioa nabarmentzea, belaunaldi berrientzako erakargarriagoa izateko. Apustu honek eskatu

egingo du, besteren artean, lanbide-heziketako eta unibertsitateko prestakuntza-programak ezartzea, ikaskuntzaren eremuan arreta berezia jarrita nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoan, ekonomian, merkaturatze eta marketin digitalean eta laguntza juridiko eta finantzarioan, ingurumenaren babesa, produkzio ekologikoa eta paisaia bermatuko duten enpresa-proiektu berrietarako.

- Azoken garrantzia nabarmentzea:

Gure sektore primarioko produkzioaren banaketa-kanaletako bat herri bakoitzeko azokak izan behar du, KM0ren kontsumo arduratsua bermatuko duen gune gisa ez ezik, elkarraldirako eta sozializaziorako gune gisa ere. Horregatik, PSE-EEk azterlan bat egitea proposatuko du, azokak erakargarriagoak eta erosoagoak izateko eta eskaintzen dituzten produktuak kontsumitzeko neurrien plan bat gehituko duena (guneak birgaitzea, karga eta deskarga erraztea, kalitate-irizpideak, produktuen aurkezpena, informazioa, zuzeneko musika-emanaldiak bezalako jarduera ludikoen eskaintza…) publiko guztientzat; produkzio ekologikoaren errespetua bermatuko duen gune bat, baserritarren lana bultzatu eta bere garrantzia nabarmenduko duena.

- Sektorearen garrantzia Eskolatik nabarmentzea:

Beharrezkoa da gure txikienetatik hasita sektoreak duen garrantzia botere publikoen aldetik azpimarratzea. Horregatik, ikastetxeekin eta goi-mailako zentroekin lankidetzan, baita ENBA bezalako ekoizleen elkarteekin ere, bisitaldiak eta sektorearekin elkarraldiak martxan jartzea proposatzen dugu, gure sektore primarioaren lanari prestigioa eta balioa ematen ikas dezaten.

- Sektore primarioa eta Gastronomia:

Gipuzkoako gastronomia erakusleiho hobezina da mundu mailan gure produktuak eta lehengaiak ezagutzera emateko. Horregatik, gure proposamena da lanean jarraitzea eta kalitate-ziurtagirien eta -marken ezagutza eta nabaritasuna areagotzea, Gipuzkoako sektore primarioaren eta gure ostalaritzaren lankidetzan eragina izan dezaten. Horrek guztiak aukera emango du kontsumo arduratsu bat sustatzeko, eta indartu egingo du lurralde-marka bikaintasunezko leku gisa.

- Sektore primarioa eta Biozientziak Fundazioa:

Nekazaritzak eta abeltzaintzak dituzten erronka handiei aurre egiteko baldintzak eta produktuak garatzeko aukera ematen dute biozientziek, baita gure basoen baldintzak ere. Gure pinudiak erasotzen ari diren izurriak ikusi besterik ez dago jabetzeko arazo handiak daudela, zientziatik eta aurrerapen zientifikoetatik heldu ahal izango zaizkienak bioteknologiaren eremuan. Horregatik, biozientzien fundazioaren eremuan, GFAk ikuspegi berezi bat hartu nahi du eta apustu erabakigarria egin sektore primarioaren arloan I+Grekin zerikusia duten produktuen garapena proposatzen duten proiektuen alde.

- Sektore primarioa eta Turismoa:

Gure sektore primarioak aukera eman du gure paisaia, gure produktuen kalitatea, gure identitatea eta helmuga gisa dugun berezitasuna eta erakargarritasuna mantentzeko. Sektorea turismoaren osagarri eta bultzagarri izan daiteke, bere kasa ez ordea, hau da, ez da berez elementu turistiko bat, baina jarduera turistikoa osatu eta dinamizatzen lagunduko duten elementuez hornitu ditzake udalerriak. Izan ere, bere produktuak, nekazaritzakoak nahiz abeltzaintzakoak, askoz ere erakargarriago bihurtzen ditu gure azokak eta feriak, eta hori da, hain zuzen ere, “ustiatu” dezakegun elementua.

Mugikortasuna eta garraio publikoa

Gipuzkoa oparoago, ekologikoago eta kohesionatuago baten alde

DNA sozialistan egon da, dago eta egoten jarraituko du garraio publiko jasangarriaren aldeko apustua, ekonomiaren garapenerako, kohesio sozialerako, lurraldearen egituraketarako eta klima-aldaketaren aurka borroka egiteko baliabide gisa, negutegi-efektuko gas isuri gutxiagorekin (mugikortasunetik dator Gipuzkoako isurien % 31), garraio publikoaren eta, oso bereziki, trenbideen zerbitzuak eta azpiegiturak modernizatuz.

Azken lau urte hauetan garrantzizko mugarriak lortu ditugu garraio publikoa erabiltzearen eta mugikortasun jasangarriaren eta osasungarriaren aldeko gure apustu politikoan eta sozialean. Horren erakusgarri ditugu: Aldirietako Renfe zerbitzua MUGI tarifa-sisteman barneratzea, Gipuzkoako garraiobide guztiek tarifa berak eta deskontu progresibo berak izan ditzaten; garraio publikoa erabiltzen duten gazteentzat tarifa laua ezartzeko proposamena (51. bidaiatik aurrera); Lurraldebuseko hiriarteko zerbitzua modernizatzea, kontuan izanik urtetik urtera gehitu duela bidaien kopurua, urteko 25 milioi bidaia lortzeraino; Donostialdea Metroaren eraikuntza eta Donostiako lurpeko pasabidea babestea; mugikortasun elektrikoaren politikak, Gipuzkoa Klima 2050 klima-aldaketaren aurka borroka egiteko Gipuzkoako estrategiarekin lerrokatuta; Lurraldebuseko autobus-flota progresiboki berritzea, ibilgailu hibridoekin, eta erabat elektrikoak diren hiri barruko lehenengo autobus-linearekin Irunen; bizikletaren erabileraren eta kulturaren sustapena bidegorri berriak eraikiz Hondarribian, Eibarren, Azpeitian eta Donostialdean, eta Gipuzkoako bide berrien suspertzea.

Lurralde aurreratuenetako bat eta erreferente ukaezina gara maila nazionalean mugikortasun publiko integratuaren eta jasangarriaren politiketan, MUGI sistemaren bitartez. Mugikortasunari dagokionez kudeaketa sozialistan izan ditugun lorpenek –lurraldean garraio publikoaren erabilerak 66 milioi bidaia bildu ditu, Euskadiko kopururik handiena– ziurtatu egiten dituzte gobernatzen ditugun instituzioetan ezarritako helburuak eta hartutako erabakiak. Gipuzkoarrentzat Lurraldebuseko hiriarteko garraio-zerbitzu publikoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako zerbitzuetatik onena eta populazioaren % 50ek baino gehiagok dute MUGI txartela; horietatik 254.000 pertsona baino gehiago izan dira kolektiboei zuzendutako deskontuen eta hobarien onuradun 2013az geroztik, martxan jarri zen urtetik.

Baina oraindik asko geratzen da egiteko. Orain, Gipuzkoak, inoiz baino gehiago, komunikazio- eta konektibitate-azpiegituren defizita gainditzeko premia du, lurraldeko errepide-sare bikaina amaitzetik harago, GFAren beharrezko inplikazioarekin Irungo Hegoaldeko Ingurabidearen bigarren fasearen finantzazioan eta, Behobiako biribilgunea eraikitzetik harago, GI-636 errepidean.

Errepideetan ere, aztertu egin behar da autobide adimendunen sistema bat sortzeko aukera, bidesari desberdinak ezarriko dituena ibilgailu-motaren, bere okupazioaren, zirkulatzen duen orduaren eta abarren arabera. Bestalde, Hegoaldeko Ingurabide berriaren ildotik, beharrezkoa da Bentak eta Behobia arteko A-8ko bidesaria doakoa izatea, bide-zati horrek Irungo hiri-trafikoari erantzun ahal izateko mugaz haraindiko konurbazioarekin eta Hondarribiarekin. Gainera, zarataren aurkako pantailen eta panelen plan bat landuko da bide-sare nagusietako kutsadura akustikoari aurre egiteko, bai Ap-8an bai AN-1ean, gehien erasandako hiriguneei lehentasuna emanez. Bestalde, Foru Aldundiaren jabetzapeko errepideetako sarbideak asfaltatuko dira, udalerrietako sarbideetan, beharrezkoa den guneetan (Lasarte/Oria)

Era berean, funtsezkoa da ahalmen handiko trenbideko garraioetan inbertsioak bizkortzea, horiek izan behar baitute Gipuzkoako mugikortasun-sistema jasangarriaren eta trenbide-ereduaren ardatza: Donostialdea Metroaren garapena Lasarte-Oriatik Irun-Hondarribiraino eta Donostiako lurpeko pasabidearena, Loiolako Erriberetako aldageltokiaren eraikuntza, AHT gure lurraldera lehenbailehen

ekartzea eta Donostiako eta Irungo geltokiak egokitzea, Ezkio-Itxasotik Nafarroarekiko konexioa ahaztu gabe, beste jarduera batzuen artean.

Gipuzkoa, gainera, leku nabari batean kokatu behar da elektromugikortasunaren garapenean, gure lurraldeko garraioaren eremu guztietan, bai publikoan bai pribatuan, eta horretarako paradigma-aldaketa bat indartu behar da klima-aldaketaren estrategiari lotutako mugikortasun jasangarrian. Eta aldaketa hori, ezinbestean, mugikortasun elektrikoaren politika integratzaile eta diziplina artekoen sustapenari lotuta dago: espazioak eta ekipamenduak ibilgailu elektriko publikoen eta pribatuen premietara hirigintzaren ikuspegitik egokitzeko; aldaketa teknologikorako pizgarri fiskalak eskaintzeko ibilgailuen erosketan; ikerketa teknologikoa babesteko elektromugikortasunaren eta energia-metaketaren sektorean lan egiten duten Gipuzkoako enpresetan. MUBIL proiektua.

Garraio publikoaren eta pribatuaren elektromugikortasunarekin batera, Gipuzkoako PSE-EEk apustu egiten du gipuzkoarrei garraio publikoaren zerbitzu integratu bat eskaintzearen alde, teknologikoki aurreratua eta integrala, euskarri tarifario eta teknologiko bakartzat Mugi hartuta, XXI. mendeko herritarren mugikortasunari lotutako erabilera anitz eta integratuen premia berriei erantzuteko gai dena, besteren artean: bide-zati jakin batzuetan deskontu progresiboak handitzea, interoperabilitatea beste lurralde batzuekin, eta bizikletak alokatzeko udal zerbitzuetan ere erabili ahal izatea, edota Mugi elektronikoa.

Gainera, mugikortasun jasangarria eta osasungarria sustatzen jarraitu behar dugu, eta horretarako bizikleta gehiago erabiltzea lortu behar da eguneroko garraiobide gisa. Gipuzkoako lurraldea erreferente da Espainia osoan bizikleta bidezko mugikortasuna babesteko aurrera eramaten dituen politika publikoengatik, eta horren erakusgarri ditugu bidegorrien eta txirrindularientzako eta oinezkoentzako bideen eraikuntza, bere araudi sektoriala, txirrindularientzako bideen LPS, eta udalekin, sektoreko eragileekin eta elkarteekin, eta enpresekin egindako lana, bizikletaren aldeko estrategien garapenean parte hartuz eta lankidetzan arituz.

Gipuzkoako PSE-EEk jarrera aktiboa hartu du politikaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko apustu baten bidez, mugikortasun jasangarria, osasungarria eta garraio publikoarena baliabide erabakigarritzat hartzen dituzten proiektu eta jardueren alde, baita klima-aldaketaren aurkako borrokan eraginkortasunez aurrera egiteko ere.

Paradigma-aldaketa bat proposatzen dugu Gipuzkoako mugikortasunean eta konektibitatean, mugikortasun jasangarria eta osasungarria (elektrikoa, trena, bizikleta) eta garraio publikoa defendatzearekin batera klima-aldaketaren aurkako estrategia integral bat garatuz eta negutegi-efektuko gasen isuriak gutxitzeko politika aktiboak aurrera eramanez, Gipuzkoa Klima 2050ean bildutakoak, hain zuzen ere.

Errepideko garraioa gas horien eragile nagusietako bat da, eta Gipuzkoako autobusen hiriarteko zerbitzua, Lurraldebus, zuzen-zuzenean kudeatzetik, erabakitasunez lagundu behar dugu mugikortasun jasangarriago baten paradigma-aldaketa horretan, autobus-flota modernizatuz eta horien ordez ibilgailu hibridoak ezartzeaz gain, autobus/tren/bizikleta intermodalitatea eta konektibitatea bultzatuz, trenbideetako eta bizikletentzako azpiegituren hobekuntzan inbertituz, Mugi sisteman tarifa-politika progresiboagoak eta garraio-zerbitzu publiko eraginkorrak eta modernoak eskainiz, herritarren benetako premiei erantzungo dietenak, era horretan ibilgailu pribatuaren erabileraren baliozko alternatiba bihur daitezen.

Hala, Gipuzkoako mugikortasun jasangarriaren eta osasungarriaren aldeko apustu sozialistak oinarrizko lau ardatz ditu erreferentziatzat:

1. Trenbide-azpiegiturak garatzea, Gipuzkoako garraio publikoaren eredu metropolitanoa osatuko dutenak.
2. Mugikortasun elektrikoa bere alderdi guztietan bultzatzea.

3. Mugi sistema garatzea mugikortasun-zerbitzuen euskarri integral eta bateratu gisa. Lurraldebus hobetzea eta modernizatzea garraio-zerbitzu publikoaren premia berrietara egokitzeko.
4. Bizikletaren erabilera babestea eguneroko garraiobide jasangarri eta osasungarri gisa.

1) Gipuzkoako trenbide-eredua

Gipuzkoako PSE-EEk mugarri historiko bat lortu du Gipuzkoako trenbide-eredua garatzeko eta gure lurraldean garraio publikoaren erabilera bultzatzeko, hau da, Aldirietako Renfe tarifa bakar eta integratuen Mugi sistemara gehitzea, kolektiboentzako hobari espezifikoekin eta deskontu progresiboekin garraio publikoa gehien erabiltzen dutenentzat.

Era horretan, Gipuzkoako garraiobide publiko nagusien erabiltzaileei (Euskotren, Lurraldebus, Dbus eta Arrasate, Eibar, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria eta Zarauzko hiri-autobusak) Aldirietako Renfe-ko 6 milioi bidaiariak gehitu zaizkie eta, orain bai, Mugi txartel bera dute prezio berekin, hobari berekin eta deskontu berekin Gipuzkoako lurraldeko garraio publiko guztietan.

Hortaz, mugikortasun jasangarrienari, trenbidekoari, mesede egiten dion apustu bat da, Euskotren Mugi sistemaren hastapenetatik integratu ondoren, Aldirietako Renfe-rekin osatzen dena orain, Gipuzkoak dituen bi trenbide-moduetara iritsiz. Hortaz, zentzu handiagoa hartzen du, gutxi balitz, Gipuzkoako trenbide-eredua osatzen duten azpiegiturei heltzeko premiak. Aurrekoaren arabera, PSE-EEk honako proposamen hauek egin nahi ditu:

- Loiolako Erriberetako aldageltokiaren exekuzioa bultzatzea eta bizkortzea, Gipuzkoako bi trenbide-ardatzak lotzeko funtsezko azpiegitura gisa:

  Aldirietako Renfe eta Euskotren, bi trenbide-moduak erabiltzen dituzten lurraldeko herritarren % 80ri zerbitzua emateko. Renfe Mugira gehitzean, gainera, erabiltzaileek tren-aldaketak egin ditzakete Mugi tarifan bi tren-operadoreen artean eta integratuta dauden gainerako hiri-autobusekin eta hiriartekoekin, eta modu horretan nabarmen sustatzen da intermodalitatea Gipuzkoako garraio publikoan. Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko erakunde arteko hitzarmen bat sinatzea proposatzen dugu Loiolako Erriberetako aldageltokiko azpiegitura hori Gipuzkoako Aldunditik neurri batean finantzatzen laguntzeko.

- Topo/metroa, Lasarte-Oriatik Irun-Hondarribiraino, berritu eta zabaltzeko lanak erabakitasunez babestea:

  Eusko Jaurlaritzarekin partekatutako finantzaketa negoziatzea proposatzen dugu. Hendaiara arteko Euskotreneko Topo zerbitzua modernizatzea da soluzioa, komunikazio-ardatz eraginkor eta bizkor gisa Donostiako mugaldeko ingurune metropolitanoan bizi eta lan egiten duten gipuzkoarren % 60 baino gehiago konektatzeko gai izango dena. Donostiako lurpeko pasabidearen obrak exekutatzeari ekinda, Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda trenbide-bikoizketari heldu behar zaio, kontuan izanik horrek, gainera, konpondu egingo lukeela Euskotrenek adierazten duen oztopo urbanistikoa Pasai Antxon. Metro-linea horren bitartez Hendaiarekin konektatzeak eta instalazio horiek hobetzeak Baiona-Donostia eurohiriaren mugaz haraindiko konektibitate-estrategia indartuko lukete.

- AHT Gipuzkoara heltzeko obrak bizkortzea eta Donostiako, Irungo eta Ezkio-Itxasoko geltoki berrien eraikuntza erreibindikatzea:

  Euskal Y-ren eraikuntza asko atzeratzen ari da eta lehenbailehen behar dugu Abiadura Handiko Trena gure lurraldera heltzea. Gipuzkoak ezin du isolatuta geratu, trenbide-konexio moderno eta azkarrik gabe, Espainiako eta Europako gainerako lekuetan ez bezala, berebiziko garrantzia baitute ekonomia, gizartea, turismoa eta herritarren mugikortasun jasangarria garatu eta hazteko. AHT Ezkio-Itxasotik Nafarroarekin konektatzea defendatzen dugu, baita Donostiako eta Irungo Renfe geltokiak berritzeko lanei lehenbailehen ekiteko premia ere, AHT iristen denerako egokitzeko.

- Behar den transferentzia egitea Aldirietako Renfe zerbitzua eta azpiegiturak kudeatzeko.

  Gure iritziz koherentea eta logikoa da, zerbitzu publikoaren eraginkortasunaren ikuspegitik, Eusko Jaurlaritzak, Euskotren trenbide-zerbitzuaren prestazioan eskumenduna denez gero, Euskadiko Aldirietako Renfe zerbitzuaren kudeaketa beregain hartzea. Erabaki horrek eragin berezia du Gipuzkoan, EAEko lurralde horretan daudelako Aldirietako Renfe zerbitzuaren erabiltzaile gehienak.

- Euskotreneko Gautrena gau-zerbitzua Gipuzkoako trenbide-sare osorako eskatzea:

  Gautrena asteburuetako eta jaiegunetako gauetarako trenbideko garraio-zerbitzu bat da, Euskotrenek bere sareko adar batzuetan ematen duena, batez ere Bizkaian. Baina ez du zerbitzu hori ematen Deba-Donostia korridorean eta, beraz, gaueko zerbitzu hori gabe geratzen dira Gipuzkoako kostaldeko hainbat udalerri nagusi, Deba, Zumaia, Zarautz, Orio eta Usurbil, besteak beste. Asteburuetako aisiaz gainera, herri horietako pertsona ugarik (gazteak eta hain gazte ez direnak) ez dute trenak adierazten duen garraio-zerbitzu publiko eroso eta ahalmen handiko bat jende ugari erakartzen duten ospakizun-egunetan, Santo Tomas egunean, adibidez. Horregatik, RENFE zerbitzuaren transferentziarekin batera, Gipuzkoako PSE-EEk Eusko Jaurlaritzari eskatu egingo dio, Gipuzkoako Garraio Agintaritzatik, trenbide-zerbitzua hobetzeko, eta hori lortzeko Euskotrenen Gautrena zerbitzua Deba-Donostia (Deba, Zumaia, Zarautz, Orio eta Usurbil) korridorerako ezartzeko; ezarpen hori graduala izan daiteke, zerbitzua goi-denboraldian (udaberrian eta udan) martxan jartzeari lehentasuna emanez, baita, denboraldi horietatik kanpo, ospakizun bereziak egiten diren egunetan ere, Santo Tomas egunean, besteren artean. Zerbitzu hori martxan jartzea onuragarria izango da, gainera, Gipuzkoako Euskotrenen korridoreko beste udalerri batzuetarako (Mendaro, Elgoibar eta Eibar), kontuan izanik Euskotrenen zerbitzua, larunbat gauetakoa, Debaraino bakarrik iristen dela Matiko Bilbo -Deba/Deba- Matiko Bilbo korridorean

2) Elektromugikortasuna bultzatzea

Gipuzkoako PSE-EErentzat, garraioan eta konektibitatean elektromugikortasuna erabakitasunez bultzatzea lan-eremu nagusietako bat da ingurumen-estrategia globalean eta Gipuzkoa Klima 2050 klima-aldaketaren aurkako borrokan.

TAusartak izan behar dugu mugikortasun elektrikoari benetako bultzada emateko politiketan, bai sektore publikoan bai ibilgailu pribatuetan, eta horretarako jarduera integralak eraman behar dira aurrera gure herriak eta hiriak, gure hiri-inguruneak eta gure mugikortasun-ohiturak aldatu eta epe laburrera iritsiko zaigun konektibitate elektrikora egokitzeko, gure eguneroko bizitzako parte izango baita, bizikleten, patineteen, motoen, autoen eta zerbitzuetako ibilgailuen ugaltzearekin, eta hori kontuan hartuta erantzun eraginkor eta jasangarri bat eman behar zaie premia horiei.

Gipuzkoak ahal den guztia aprobetxatu behar du elektromugikortasunaren sektorean enpresa aitzindarienak biltzen dituen lurraldea izateak ematen dion abantaila lehiakorra, mugikortasun publiko eta pribatu "tradizionalaren" paradigma-aldaketari ekiteko, kontuan izanik mugikortasun tradizional hori energia fosilekin elikatutako garraioetan oinarritzen dela, eta negutegi-efektuko gasen isurien hirugarren iturria direla. Hala, mugikortasun jasangarriaren, alegia mugikortasun elektrikoaren alde egin behar dugu apustu, eta era horretan ongizate-politiketan eta ingurumenaren jasangarritasunari lotutakoetan aurreratuenak dauden herrialdeetara hurbildu, mugikortasun jasangarri eta osasungarriaren politikak baitira. Premisa horietatik abiatuta, sozialistek proposamen hauek egin nahi ditugu:

- Flota berritzea:

  Lurraldebuseko autobusen flota gradualki berritzea, 2040rako ibilgailu guztiak hibridoak izan daitezen, eta Aldundiko eta partaide dituen erakundeetako ibilgailuen flota gradualki berritzea, energia berdekoak, hibridoak eta elektrikoak izan daitezen 2050ean.

- Gipuzkoa Elektromugikortasunaren Foroa:

  Gipuzkoako udalen partaidetzarekin, Gipuzkoako Elektromugikortasunaren Foroa sortu eta bertan buru izatea, gure lurraldean elektromugikortasuna ezarri eta garatzeko plan zuzendari bat lantze aldera, gidalerro urbanistikoak eta neurri integralak bilduko dituena ekipamendu eta espazio publikoak eta pribatuak mugikortasun elektrikoak ondorioz dakartzan premia berrietara egokitzeko (birkarga-guneen lokalizazioa, premia berriak, hiri-zerbitzuetako ibilgailuen tipologia berria…). Azken batean, Gipuzkoa lurralde elektromugikor bat bilakatzea, gure herrietan eta hirietan konektibitate-eredu berri hori bultzatuko duten politika integraletan aitzindaria.

- Informazio-kanpainak eta pedagogia soziala:

  Informazio, kontzientziazio eta pedagogia sozialeko kanpainak egitea ohitura-aldaketak bultzatzeko eta mugikortasun elektrikoa eremu guztietan gara dadin ahalbidetzeko, eta horretarako hezkuntza- eta unibertsitate-sarearekin lankidetzan aritzea mugikortasunaren inguruko ohitura- eta paradigma-aldaketen premiaz gazteak kontzientziatu daitezen.

- Gure hirietan auto elektrikoaren alde apustu egitea:

  Hirietako mugikortasuna elektriko bilakatzea, birkarga-guneen sare eraginkor bat sortzea, lurraldean auto elektrikoak barneratzea ahalbidetzeko, eta herritarrei auto elektrikoaren erosketan laguntzea, ibilgailuen gaineko zerga desgrabatuz edo beste laguntza batzuen bitartez. Hiri garbiago eta jasangarriago batzuen aldeko apustu argia, herritarrentzako aire-kalitate on batekin.

- Garraio publikoko ibilgailuen flota progresiboki ordeztea:

  Erregai fosilez elikatutako DBus, LurraldeBus ibilgailuen ordez hibridoak eta elektrikoak ezartzea, 2030erako ziurtatu ahal izateko Gipuzkoako garraio publikoko flotaren % 100 iturri berriztagarriez elikatzen dela. Udaletako eta Aldundietako parke mugikorreko autobusak eta ibilgailuak progresiboki ordeztea, 2030erako hibridoak eta/edo elektrikoak izan daitezen. Etsenplu bat izango den zeregina.

3) Mugi sistema integrala eta integratua. Lurraldebus modernizatzea

Gipuzkoarako defendatzen ditugun mugikortasun-politika publikoak errealitate honetan oinarritzen dira: milaka gipuzkoarrek erabiltzen dute egunero garraio publikoa. Hala, Gipuzkoako garraio publikoaren

MUGI eredua, Gipuzkoako Garraio Agintaritzak kudeatua, tarifa bateratuetan, integratuetan et deskontu progresiboetan oinarritua garraio-modu integratu guztietan –Renfe duela gutxi gehitu ondoren–, aitzindaria da Euskadin eta berari esker nabarmen hazten ari da garraio publikoaren erabilera –guztira 66 milioi bidaia–.

MUGI sistemaren egile nagusietakoak garenez gero, sozialista gipuzkoarrek tarifa-politika progresiboen aplikazioa defendatzen jarraitzen dugu, garraio publikoak gehien erabiltzen dituzten kolektibo eta pertsona horiek izango dituena onuradun nagusi, aplikatutako deskontuetan hobekuntzak gehituz, arriskuan jarri gabe tarifa-sistema integratuaren bideragarritasun ekonomikoa, giltzarria baita sistema honi eusteko eta bere iraunkortasuna bermatzeko.

Hala ere, aurrera egiten jarraitu behar da MUGIren integraltasunean eta integrazioan, teknologia berrien aplikazioari lotutako zerbitzu eta prestazio berriekin (ordaintzeko moduak, interoperabilitatea Euskadi, Nafarroa eta Akitaniako beste garraio-modu batzuekin, bizikleten alokairua bezalako beste zerbitzu batzuetara hedatzea…), eta horretarako indartu egin behar da Gipuzkoako Garraio Agintaritzak (GGA) kudeatzaile eta koordinatzaile gisa betetzen duen zeregina, XXI. mendeko bidaiarien garraioan integrazio- eta interoperabilitate-premia berriek eskatzen dituzten erronka teknologikoei heltzeko.

Eta errepideko hiriarteko Lurraldebus zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen zuzena, ezin da atzean geratu gipuzkoarrei ematen zaizkien garraio-zerbitzuen modernizazioaren eta egokitzapen teknologikoaren aldeko apustuan.

Azken legealdi honetan, aurrerapauso nabarmenak lortu dira Lurraldebusen zerbitzuen hobekuntzan: lineak berrantolatu dira, zerbitzu berriak eskaintzen dira, ordutegiak zabaldu dira, herritarrei zuzendutako informazio- eta arreta-zerbitzu integral bat sortu da, webgune eta APP berri bat abian jarri dira, mugikorraren bitartez bidaia-txartelak erosteko aukera eskaintzen da Lurticket aplikazioarekin, beste lorpen batzuen artean.

Azken batean, baliabide egokiez hornitu behar dugu Lurraldebus, hiriarteko autobus-zerbitzu publikoak gipuzkoarren mugikortasun-premia errealei erantzuteko eta lurraldearen oreka eta lurralde osoaren konektibitatea bermatzeko, kontuan izanik ibilgailu pribatuaren erabileraren alternatiba erreal bat dela. Horri dagokionez, PSE-EEk honako proposamen hauek egin nahi ditu:

- Garraio jasangarriaren finantzazio-kanona

  ezartzea, gure iritziz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bide-azpiegiturak erabiltzeagatik merkantzien garraiorako ibilgailu astunetan aplikatutako bidesari eta zergetatik lortutako sarreren portzentaje batek lagundu egin behar duelako, azken xede gisa, hiriarteko garraio publikoa neurri batean ordaintzen, baita lurraldeko mugikortasun jasangarri eta osasungarrirako azpiegiturak ere, ekarpen bat egiten baitiote sistemaren iraunkortasunari eta ingurumenean inpaktu gutxiago izatea lortzeari, 1/2011 FORU ARAUAN jasotakoaren arabera, bere bigarren xedapen gehigarrian. Horrela, kanon horren bitartez lortutako sarrerek mugikortasun jasangarriaren politika publikoak finantzatzeko izan behar dute, besteren artean, Lurraldebus zerbitzua edo azpiegitura berrien garapena txirrindulari eta oinezkoentzako bideen LPSren barruan, baita bere helburuak lortzeko ere, besteren artean, garraio publikoen ustiapen-defizitak finantzatzea, gipuzkoarrei eskainitako zerbitzuak hobetzeko.

- MUGI tarifa-sistemaren progresibitatea areagotzea

  oraingo bide-zatietan aplikatzen diren deskontuak handituz, bereziki familien eta gazteen kolektiboei, kontuan izanik horietan jarraitu behar dela sustatzen garraio publikoaren

erabilera. MUGIren tarifa-politika progresiboak onuragarria izaten jarraitu behar du garraio publikoa gehien erabiltzen dutenentzat eta, aldi berean, sistema globalaren iraunkortasuna bermatu behar du.

- MUGI birtuala ezartzea

  MUGIren operazio guztiak telefono mugikorraren bidez egin ahal izateko (txartelak erostea, birkargatzea), MUGI txartel fisikoaren deskontu- eta tarifa-baldintza beretan. Salto kualitatibo bat eman beharra dago MUGI sistemaren eta txartelaren euskarriaren modernizazio teknologikoan herritarrei online zerbitzuak eskaini ahal izateko, ahal den guztia txartelaren kudeaketa guztiak sinpleagoak, azkarragoak eta errazagoak izan daitezen, arreta presentzialaren edo paper-euskarriaren beharrik gabe. Beraz, lortu egin behar da GGA eta operadore integratuak teknologikoki egokitzea, modu progresibo batean MUGI birtualak Gipuzkoako garraio publikoetan funtzionatu dezan. Horretarako, MUGI txartelaren birkarga-sistemak hobetu eta zabaldu egin behar dira, beharrezko berrikuntza teknologikoan inbertituz, Internet edo dispositibo mugikorren bidez birkarga elektronikoak ahal den gehien errazteko.

- MUGI txartelaren interoperabilitatea handitzea

  garraio publikoaren euskal sareko beste garraio-modu batzuetan, Metro Bilbaon adibidez, beste operadore batzuetan egiten ari diren bezala Euskadiko Garraio Agintaritzan lantzen ari diren txartel bakarraren proiektuaren barruan, baita Nafarroan eta Donostia-Baiona eurohirian ere, ordainketa-modu gisa erabili ahal izateko.

- MUGI beste mugikortasun-zerbitzu batzuetara hedatzea,

  , bizikleten udal alokairuetara, besteren artean. Gure proposamena da MUGI txartelak euskarri gisa balio izatea mugikortasun eta konektibitateko beste zerbitzu batzuk erabiltzeko, besteak beste, alokairuko bizikletak, Gipuzkoako zenbait udalerritan udalek sustatutako zerbitzu publiko gisa eskaintzen direnak.

- BAT eta BARIK garraio-txartelen interoperabilitatea Lurraldebusen garatzea.

  Horretarako, ezinbestekoa da Lurraldebusen berrikuntza teknologikoan aurrerapausoak ematea, kontuan izanik, aldi berean, aukera emango duela zerbitzu elektroniko berrien prestazioan aurrera egiten jarraitzeko, Lurraldebusen APParen bitartez eta herritarrentzako arreta-zerbitzua hobetuz.

- Lurraldebuseko autobus-flota berritzea

  ibilgailu hibridoekin eta energia berdekoekin. Gipuzkoa Klima 2050 estrategiaren ildotik, gure proposamena da Lurraldebusen kontzesioetako autobusak progresiboki aldatzea eta ibilgailu hibridoak haien ordez ezartzea, flotaren % 20arekin 2022an eta % 68arekin 2030ean, 2040rako ezarritako flota hibridoaren % 100aren helburua betetzeko. Horretarako, horri buruzko klausula espezifiko bat gehituko da lizitaziora atera ahal izango diren kontzesio berrietan.

- Gipuzkoako Garraio Agintaritzaren funtzioak garatzea.

  GGAk, tarifa bateratu, integratu eta deskontu progresiboen MUGI sistemaren erakunde kudeatzaile gisa, mailaz maila joan behar du beregain hartzen sortu zenetik esleitu zaizkion funtzioak –Gipuzkoako garraio-sistema publikoaren koordinazioa, ereduaren integrazioa eta plangintza estrategikoa burutzea–, dagozkion eskumenen arabera baliabideen eta zerbitzuen bikoizketak saihestuko dituzten mugikortasun-planen eta eszenarioen diseinuan parte hartzeko eta Gipuzkoako garraio-sistema publikoa herritarrentzat eraginkorra, erakargarria eta baliagarria izatea lortzen laguntzeko.

- Euskadin txartel bakarra eta garraio publikoen interoperabilitatea bultzatzea,

  Euskadiko Garraio Agintaritzari dagozkion eskumenen esparruan, eta garraioko gainerako lurralde-agintaritza eta partzuergoekin lankidetzan aritzea zerbitzuak eta ekintzak koordinatzeko, herritarrei garraio-zerbitzu publiko egoki, eraginkor, koordinatu, moderno eta kalitatezko bat eskainiko dietenak, eta Euskadin garraio publikoaren erabilera sustatu eta bultzatuko dutenak ibilgailu pribatuaren aurrean, era horretan lurraldeen orekan eta kohesioan, aukera-berdintasunean, ekonomiaren garapen jasangarrian, gizarte-ongizatean, eta euskal gizartearen hurbilketan eta komunikazioan lagunduz.

- Mugaz haraindiko garraio-zerbitzu publiko koordinatuak.

  Donostia-Baiona eurohiriak garraio-sare publiko koordinatu bat behar du bere garapen eraginkorra eta benetakoa lortzeko, muga zaharreko bi aldeetako herritarrei eskainiko dizkiena mugikortasun jasangarria eta harreman ekonomiko, sozial, kultural eta turistikoen fluxua ahalbidetuko dituzten konektibitate-zerbitzuak. Lanean jarraitu behar dugu, Transfermugaren bitartez, GGAn koordinatzen diren garraio-modu guztien informazio partekatua hobetzen, baita eurohiriko autobusen zerbitzuetan MUGI txartelaren interoperabilitatean ere.

- Taxi-zerbitzu modernoa eta herritarren premietara egokitua.

  Instituzio publikoetatik eta bakoitzari dagozkion eskumenen neurrian, beharrezkoa da taxi-sektorearekin lankidetzan jarraitzea, taxiaren profesionalek herritarrei kalitateko zerbitzu bat eskaini diezaien, teknologikoki aurreratua eta XXI. mendeko gizartean zerbitzu publiko honi erabiltzaileek eskatzen dioten benetako mugikortasun-premietara egokitua.

- Oinezkoen mugikortasuna bultzatzea.

  Gipuzkoan, Euskadi osoan bezala, berezia da bertako errealitatea, lurralde gutxi batzuk dutena, mugikortasunari dagokionez: lekualdaketen bolumen handiena oinez egiten da, ibiltzen; beraz, jasangarriagoa eta osasungarriagoa da mugikortasuna. Eutsi, bultzatu eta bermatu egin behar dugu gipuzkoarrek oinez lekualdatzen jarraitzea, gure kaleetatik eta gure hiri-inguruneetatik ez ezik, oinezkoentzako eta txirrindularientzako foru eta udal bide-saretik ere. Kontzientziazio, heziketa eta sentsibilizaziorako kanpainak egin behar dira oinezkoen mugikortasuna eta oinezkoen, txirrindularien eta gidarien arteko bizikidetza gizalegezkoa eta errespetuzkoa sustatzeko, zirkuituak behar bezala seinalatuz eta segurtasuna hobetuz.

- Turistak eta garraio publikoa.

  Lurraldetik turisten fluxu orekatu eta ordenatuago baten banaketa sustatzeko helburuz, gure proposamena da mugikortasun jasangarriko Basquecard txartelak, Donostiako Boulevardeko Explore San Sebastian Region Bulegoan dagoeneko banatzen hasiak, bisiten eskaintza bat gehitzea, deskontu jakin batzuekin, Lurraldeko baliabide desberdinetara, baita esperientzia berezietara ere, dauden aukera anitzen artean. Turisten kasuan deskontuak aplikatuko ez balira ere, garraio publikoaren erabileraren arabera, neurri horren bidez bultzatuko egingo litzateke mugikortasun jasangarria Gipuzkoatik, eta aberastu egingo luke bidaiaren esperientzia. Teknologia berrien eta digitalizazioaren aplikazioa eta hedadura, 2018an proiektu pilotuen bitartez abian jarriak, funtsezkoak izango dira datozen ekitaldietan Basquecard bezalako kudeaketa-tresna gisa.

4) Bizikleta babestea garraio jasangarri eta osasungarri gisa

"Txirrindularien" tradizio handiko lurraldea da Gipuzkoa, bizikletari alderdi desberdinetatik lotua: egunero lekualdatzeko erabiltzeaz gain, handia da bertan dagoen txirrindularitzarako zaletasuna eta, historian zehar eta oraindik ere, erreferente nazionala eta nazioartekoa dira bizikleten fabrikazioan espezializatutako bertako enpresak. Gipuzkoako instituzio publikoek, alegia Foru Aldundiak eta udalek, garrantzizko inbertsioak egin dituzte herritarren artean bizikletaren erabilera areagotzea ahalbidetzeko, eta horretarako bidegorrien, txirrindulari eta oinezkoen foru eta udal bideen sare bat sortu dute, 330 km baino gehiago hartzen dituena. Gainera, txirrindularientzako bideen LPS bat dago, arau-maila duena eta Espainiako Estatuan aitzindaria, beste alderdi batzuen artean foru bidegorrien eraikuntzako jarduera-ardatz nagusiak ezartzen dituena.

Legealdi honetan, sozialista gipuzkoarren kudeaketak, Aldundiaren buruan, eragina izan du zenbait lan-lerrotan, bizikletaren erabilera eguneroko garraiobide jasangarri eta osasungarri gisa bultzatzeko. Horri dagokionez, ahalbidetu egin du, helburu nabarmenen artean, txirrindularien eta oinezkoen foru bide-sarea zabaltzeko garrantzizko bi proiekturi heltzea: Amute-Jaizubia bidegorria Hondarribian, mugaz haraindiko Europako Ederbidea-Poctefa proiektuan barne hartua, eta Nafarroako Gobernuarekin eta Pirinio Atlantikoetako Kontseiluarekin partekatua, eta Maltzaga-Azitain bidegorria Eibarren, Debabarrenan txirrindularien azpiegituretan egon den defizit historikoari erantzuteko.

Gainera, ahalegin bereziak egin dira udalekin, eskualde-agentziekin eta Bizikletaren Kontseilua osatzen duten sektoreko elkarteekin batera lan egiteko, helburu hauekin: Gipuzkoako bidegorrien sarea ezagutzera eman eta bere balioa nabarmentzea; udalei dirulaguntzak ematea udal bide-zati berriak eraikitzeko; ikastaroak antolatzea helduek bizikletan ibiltzen ikasteko; bidegorrien seinaleak hobetzea; elkarte nazionalekin eta nazioartekoekin sarean lan egitea, eta bide berdeak suspertzeko proiektua abian jartzea. Hala ere, gipuzkoarren eguneroko lekualdaketetan bizikleta gero eta gehiago erabiltzeko aukerak ematen jarraitu behar dugu, lanerako, ikasketetarako, aisiarako edo eguneroko zereginetarako, eta lurralde osoan erabilera % 15era iristea da epe labur eta ertainerako helburua. Horregatik, proposamen hauek egiten dizkiegu gipuzkoarrei:

- Donostia-Hendaia konexio mugakideari heltzea,

  Jaizubia-Lezo bidegorria garatzen jarraituz. Gipuzkoa Eurovelo proiektuan sartzea, zeinak Europako txirrindularientzako arteria nagusiak finkatzen dituen eta, orain, ez duen aurreikusita Gipuzkoako lurraldetik igarotzea. Bestalde, Usurbil-Donostia, Deskarga-Bergara loturak aurreikustea eta Eibar-Soraluze konexioaren azterlanetan aurrera egitea.

- Bide Berdeak suspertzearen alde apustu egitea,

  alderdi hauei helduta: 1) Gipuzkoa eta Araba arteko konexioa Vasco Navarro trenbidearen trazatu zaharretik, Eskoriatza zeharkatuz; 2) Zestoa-Azpeitia bide-zatia, Urolako trenbidetik. Orokorrean, garraiobide gisa bizikletaren alde apustu egitea, aurreikusitako azpiegiturak exekutatuz eta oraindik amaitzeko dagoen lurraldea konektatuz.

- Gipuzkoako Bide Berdeak kudeatu eta sustatzeko erakunde publikoa,

  bide berdeak suspertzeko proiektuaren helburuak abian jartzeko lanean inplikatutako udalen, garapenerako eskualde-agentzien eta sektoreko eragileen partaidetzarekin. Erakundeak tokiko eta eskualdeko ekonomia bultzatuko du ekimen ekonomikoak eta enplegua sortzeko ekimenak garatuz, turismo berdearen, turismo jasangarriaren eta bizikletaren turismoaren, kultur eta paisaia-ondarea berreskuratzearen… inguruan.

- **Bizikleta elektrikoen birkarga-guneak instalatzea**

  bidegorrien foru sarean, era horretan, informazio eta kontzientziaziorako kanpainen bitartez, bizikleta bidezko mugikortasun elektrikoa hedarazten eta bizikleta elektrikoa baliabide demokratizatzaile eta sozializatzaile gisa zabaltzen lagunduz, populazio-sektore guztiengana helarazteko bizikletaren erabilera, pertsonen adina eta egoera fisikoa muga izan gabe.

- **Bizikleta elektrikoaren hiri-mugikortasuna sustatzea**

  Gipuzkoako udalerrietan, eta horretarako akordio publiko/pribatuak ahalbidetzea, eguneroko zereginak -besteren artean merkantzien banaketa, hiri-garbiketa eta mantentze-zerbitzuak, udaltzaingoarenak- bizikletaz edo trizikloz egin ahal izateko.

- **Emakumeen artean bizikleta erabiltzea**

  gizonezko txirrindulariekiko orain dagoen arraila murrizten joateko. Gaur egun, bidegorrien foru sarea erabiltzen duten pertsonen artean, % 16 bakarrik dira emakumeak. Emakumeak ahalduntzen jarraitu behar dugu eta emakume txirrindularien kolektiboekin lankidetzan, emakumeek, gizonekin parekatuta, bizikleta erabil dezaten beren eguneroko bizitzan, edo kirol eta aisiako praktika gisa.

- **Bizikletaren erabileran intermodalitatea ahalbidetzea,**

  udalekin eta garraio publikoaren kudeatzaileekin lankidetzan bizikletak aparkatzeko guneak instalatzeko, bizikleten aparkalekuak seguruak izateko eta alokairuko zerbitzu publikoak eskaintzeko garraio publikoko geltokien eta konektibitate-eremuen ondoan.

- **Bizikletaren Behatokia suspertzea**

  aholkularitza-funtzio berriak emanez, besteren artean, mugikortasun jasangarriaren inguruko jarduerak, mugikortasun-planak eta bide-arauak direla eta, gai juridikoei erantzuteko, Gipuzkoako udalei zuzendutako kontsulta-zerbitzu batekin, ondoko alderdi hauei lotutako helburuak betetze aldera: ingurumena, mugikortasun jasangarria eta osasungarria, txirrindularien jarduera egokiak, hiri-mugikortasun modu berrien erregulazioa -patinena, adibidez- eta modalitate desberdinen arteko bizikidetza errespetutsua.

- **Elkarte-ehunarekin egindako baterako lana indartzea,**

  Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilutik, bizikletari eta mugikortasun jasangarriari eta osasungarriari lotutako kulturaren pedagogia zabaltzen joateko, helduek bizikletaz ibiltzen ikasteko eta hirietako eta hiri-inguruneetako txirrindularientzako bide-segurtasuneko eta bide-hezkuntzako ikastaroak... antolatzen jarraitzeko. Bizikletari lotutako hirien sarean Gipuzkoaren presentzia eta lankidetza nazionala eta nazioartekoa areagotzen jarraitzea, jardun egokiak, proiektuak eta aukerak partekatuz, eta Gipuzkoako lurraldea mugikortasun jasangarriaren eta osasungarriaren aldeko apustu irmoena egiten duten lurraldeen artean kokatuz.

Azpiegiturak eta lurraldearen antolaketa

Lurralde-antolaketako politikek, dagozkion eskumenen esparruan Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu beharrekoek, kontuan hartu behar dute, sozialista gipuzkoarren ikuspegitik, lurraldean ukaezina den errealitate bat: Gipuzkoako lurzoruaren ia % 90 lurzoru urbanizaezin gisa dago kalifikatuta, bizitegikoa %

2,5, jarduera ekonomikoetakoa % 1,9 eta, azkenik, azpiegituretakoa % 4,9 den bitartean.

Populazioa hiri-lurzorutzat kalifikatutako zati txiki-txiki batean kontzentratzen da, eta nagusiki kostaldean, non gipuzkoarren % 61 bizi den azken urteetan biztanleen kopuruan nabarmen hazitako udalerrietan, kontuan hartuta gainera, udalerri horiek populazio flotagarri handiago bat erakartzen ari direla, erakargarritasun turistikoari eta Gipuzkoako kostaldea eta Gipuzkoako lurralde osoa hartzen ari den bisitari eta turisten gero eta kopuru handiagoari lotuta.

Gipuzkoako populazio hiritarra bertako hiriburu Donostiaren inguruan kontzentratzen da, baita bere ingurune metropolitanoan ere Iruneraino. Hala, inguru horietan kontzentratzen da lurraldeko biztanle-dentsitate handiena: 3.000 biz/km2 Donostiaren kasuan eta ia 1.000 biz/km2 Bidasoan eta Oarsoaldean. Populazioaren kontzentrazio nabarmen horren aldean, oso bestelakoa da, adibidez, Urola Erdikoa (56 biz/Km^2). Gipuzkoa, beraz, ez da oreka demografikoa duen lurralde bat. Gainera, bat ez datozen elementu batzuk ditu aberastasunaren banaketari dagokionez. Donostialdeak aberastasunaren % 26,3 biltzen du, eta Debagoienak (% 12), Buruntzaldeak (% 10,6) eta Bidasoak (% 8,6) jarraitzen diote.

Hiri-lurzoruaren okupazio intentsiboari kontuan hartu beharreko beste errealitatea bat gehitzen zaio: lurzoru-erreserba urria jarduera industrial edo ekonomikoetarako, gure herrietan eta hirietan fabrika-instalazio berrien ezarpena baldintzatu dezakeena. Bestalde, azken garai hauetako elkarren segidako krisiek, Gipuzkoako industriak jasandakoek (siderurgia, papergintza eta abar), hondakin industrialen paisaia degradatu bilakatu dituzte lehen eremu industrialak izandakoak, ekonomikoki, urbanistikoki eta sozialki nekez berreskuratu daitezkeenak.

Lurralde-politikak oinarritzat hartu behar duen ideia da hiri bat, espazio bat izatetik harago, errealitate sozial bat dela. Herritarrek, emakumeek eta gizonek egon behar dute hiri-politikaren erdigunean. Hiriak katalizatzaile bat izan behar du haiek beren gaitasun guztiak garatu ahal izateko. Horrela bakarrik lortuko dugu smart city bat, hau da, herritar adimendun eta aktiboen hiri bat. Helburu horiekin lan egin dugu sozialista gipuzkoarrek azken legealdi honetan, ekonomikoki eta teknikoki Gipuzkoako udalekin lankidetzan arituz, bereziki, txikienekin, haien hirigintza-planteamendua modernizatu eta premia berrietara egokitzeko -urbanistikoak, ekonomiaren garapenari, mugikortasun jasangarriari eta landa-ingurunea, kultur eta paisaia-ondarea zaintzeari lotutakoak, baita klima-aldaketaren borrokari, lurralde-orekari eta lurralde osoaren kohesio sozialari lotutakoak ere-.

Lurralde Antolaketaren funtsezko mugarrietako bat Tolosaldeako LPPren behin-behineko onarpena izan da, berrikusteko geratzen zen azkena, Eusko Jaurlaritzaren aldetik bere tramitazioa eta behin betiko onarpena urteak gelditua egon ondoren, baita udalerriei zuzendutako dirulaguntzak berreskuratzea ere, beren planteamenduak indarrean dagoen araudira egokitzeko eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren ingurumen-helburuekin lerrokatzeko.

Aipamen berezia merezi du Pasaialdearen erregenerazio integralaren aldeko apustu estrategikoak; Pasaiako Badiako herritarrekin hartutako konpromiso politikoa eta zibikoa, sozialista gipuzkoarrak aitzindari izan garena Gipuzkoako Aldunditik eta Pasaiako Udaletik, eta Aldundiak tramitatutako Portuko Plan Bereziaren Berrikuspenaren behin betiko onarpenarekin eta inguruko udalekin adostutako eskualdearen suspertze estrategiarekin, Gipuzkoako eta Euskadiko ingurune degradatuenetako baten errealitate urbanoa, kulturala eta soziala eraldatzen hasi duena.

Azken legealdi honetan, izugarrizko aurrerapauso handia eman da Pasaiako Badiaren erregenerazioan, Portuko Plan Bereziaren inguruan adostasun politikoa eragin duena, erakunde artekoa eta herritarrena, urte askotan lortu ez zena. Sozialistek nabarmen lagundu dugu konplizitateak ehuntzen, iritziak elkartzen eta interesak, askotan kontrakoak, kontziliatzen Pasaiako Portuko Agintaritzaren, Portuan lan egiten duten enpresen, Pasaia, Errenteria, Lezo eta Oiartzungo udalen, Oarsoaldea eskualde-agentziaren, Gipuzkoako Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta eragile ekonomiko, sozial, kultural eta herritarren

artean, eta inbertsioak (9 milioi euro baino gehiago), proiektuak eta jarduerak martxan jartzen, kontuan izanik aukera ematen ari direla herritarrentzat espazio publikoak berreskuratzeko, besteren artean, Ondartxo pasealekua, Adinberri zahartze-zentroaren eraikuntza eta Hospitalilloko aparkalekua, Herrera eta Trintxerpe arteko oinezkoentzako konexio berria, bidegorri berriak Lezo eta Oiartzun artean, eta enplegua eta jarduera ekonomiko berriak sustatzeko politikak. Horregatik, Gipuzkoako PSE-EEk defendatzen duen lurralde-politika hiru elementutan oinarritzen da: jasangarritasuna, berdintasuna eta inklusioa, eta kohesio soziala eta lurralde-oreka.

Jasangarritasuna

- Hirigintzako Plangintza Orokorra:

  Hirigintzako Plangintza Orokorraren azterketak eta lanketak sustatu eta bultzatuko dira ingurumenaren jasangarritasuna babesteko eta klima-aldaketaren aurka borroka egiteko, Gipuzkoa Klima 2050 estrategiaren barruan, legealdi honetan egindako lana jarraituz. Hauek izango dira lehentasunak: hutsik dauden lurzoruak berrerabiltzea, erabiltzeari utzitako lurzoru industrialak berreskuratzea eta hiri-mugikortasun jasangarriaren alde apustu egitea, oinezkoen mugikortasunaren alde eginez edo bidegorriak eraikiz.

- Gipuzkoako Hiri Agenda bat lantzea,

  Gipuzkoako lurralde-politikaren gidalerroak ezarriko dituena. Hala, Europako Hiri Agendan eta ONUren Garapen Jasangarrirako Helburuetan ezarritako parametroak betez garatutako politika bat izango da, kontuan izanik helburu horietatik 11.ak ezartzen duela “hiri eta komunitate jasangarriak” lortzea.

- Hiri-lurzorua berreskuratzea eta berrerabiltzea.

  Udalekin lankidetzarako hitzarmenak ezartzetik abiatuta, “bitartean” filosofiaren aldeko apustua egiten da erabiltzeari utzi eta hutsi dauden eraikinak berrerabiltzeko, horrek ahalbidetuko bailuke jarduera ekonomikoak sortzeko espazio gisa erabiltzea, jarduera publiko/pribatuaren eta jabeen bitartez.

- Industrialde degradatuak berreskuratzea.

  Gipuzkoako Foru Aldunditik industrialdeekin eta eskualde-agentziekin lan egingo da industrialde degradatuak berreskuratzeko. Dirulaguntza-lerro bat irekiko da lurzoru kutsatuak lehengoratzeko, berreskuratu beharreko espazioa berrerabiltzeko plan bat baldin badago.

- Espazio publikoak birgaitzea eta hiri-erregenerazioa.

  Herritarren bizikidetza funtsezkoa da hirien garapenerako. Lehentasuna izan behar du espazio publikoak herritarrek okupatutakoak izatea, espazio horien erabilera pribatuaren gainetik. Hala, helburu hori lortzera bideratutako hirigintza-jarduerak babestu eta bultzatuko ditugu, eta horretarako erabilerak nahastea eta lehendik eraikita dauden espazioak eraberritzea defendatuko ditugu, lurzoru berrien okupazioa eta kolonizazioa murrizteko eta hirigintza-politika jasangarriagoak babesteko. Aldi berean, lanean jardungo dugu gure hiri eta herrietako ondare arkitektonikoa eta urbanistikoa errespetatuak izan daitezen.

- Turismoaren potentziala udal plangintzan antolatzea.

  Gipuzkoako lurraldean etengabe ari da hazten turismoa, kostaldean zehar nagusiki, eta

hori islatu egin behar da udal plangintzan ere. Gainera, aurreikusi egin behar da turismoak duen eragina lurraldearen antolaketan eta plangintzan, eta bateragarri egin behar dira turismoaren potentziala eta turismoari harrera egiteko lurraldeak duen gaitasuna, baita bertakoen bizi-kalitatea ere. Horretarako, udalerri bakoitzak dituen azpiegitura turistikoen kuantifikazioa zehaztu eta konektibitaterako eta mugikortasun jasangarri eta osasungarrirako premiak aurreikusi behar dira.

Berdintasuna eta inklusioa

Apustu irmoa hirigintza inklusibo baten alde.

Hiriek pertsona guztientzako bizikidetzarako eta bizi-garapenerako leku bat izan behar dute, emakume eta gizonentzako, gazte eta haurrentzako. Genero-ikuspegia, emakumeen ikuspegia eta premiak hirigintza-plangintza inklusibo batean txertatu behar dira. Gure proposamena da hiri-plangintzara zuzendutako foru laguntzek genero-ikuspegia barnean hartzeko premia aintzat hartu eta islatzea, laguntza horietara heltzeko baldintza izan daitezen. Hirigintza inklusiboaren ikuspegi horretatik, Gipuzkoako udalekin lankidetzan aritzearen alde egiten dugu apustu, txikienekin bereziki –haiek baitira baliabide ekonomiko eta tekniko gutxien dutenak– hirigune hurbilak, habitatuak eta gertuko merkataritza-ehuna dutenak diseinatzen laguntzeko, elementu horiek guztiak funtsezkoak baitira ingurune biziak, inklusiboak eta seguruagoak sortzeko, populazio osoarentzat eta, zehatzago, adinekoentzat. Ez dugu ahaztu behar, lehen aipatu bezala, Gipuzkoa dela populazio zahartuenetakoa duena Europakoen artean.

Kohesio soziala eta lurralde-oreka

Lurralde-orekaren zuzendaritza lurralde-kohesioari lotutako eskumen berriekin.

Lurralde-orekaren oraingo zuzendaritzak bere funtzioen artean lurralde-kohesioarekin konpromiso handiagoa hartuko duen kudeaketa bat beregain hartzearen alde egiten dugu apustu. Orain, zuzendaritza honen zeregin nagusia da esklusiboki bermatzea landa-eremuek aukera berak izan ditzaten hiri-eremuetako biztanleek dituztenen aldean, azpiegiturei eta bizi-kalitateari dagokienez, udalerri txikietan telekomunikazio-sare egokien ezarpena eta garapena sustatuz, bizi-kalitate estandarrak hobetuz eta leku horietan jarduera ekonomikoak, hezkuntzakoak eta aisiakoak garatzeko baldintzak sortuz. Hala, goresgarria badirudi ere landa-eremuak babesteko modu hori, eta Aldunditik orain ematen zaien babesa gutxietsi gabe, premiazkoa da Gipuzkoako Foru Aldunditik beste era bateko zuzendaritzari ekitea, zeregin hauek beteko dituena: interbentzio publikoko beharrezko neurriak hartzea, leku ugaritako erregenerazio urbanoan, ekonomikoan eta sozialean lagunduko duten proiektuen hobekuntza-planak eta inbertsioak abian jarriko dituztenak, batik bat hiri-eremuetan, Gipuzkoa osoarekiko gabezia eta premia zehatzak dituztenetan. Errenteria, Pasaia, Eibar, Soraluze, Zumarraga eta Urretxu, eta Donostia, Arrasate, Irun, Legazpi edo Zarauzko auzo batzuk dira, besteren artean, arreta berezia merezi duten eremu horietako batzuk.

Hiri-erregeneraziorako premiazko ekintza-plana.

. Baliabide gehiago eskueran izango dituen zuzendaritza honek lehentasuna emango die kohesio sozialari, lurralde-orekari eta garapen ekonomiko jasangarriari. Mekanismoak antolatzea da gure proposamena, udalaz haraindiko plangintza batetik, udalerriekin batera antolatzeko eta programatzeko hiri-erregenerazioa behar duten eremuak.

- Erakunde arteko lankidetza sustatzea.

  Era horretan, eskumen- eta araugintza-eremu sektorial desberdinak errespetatzetik hasita, tamaina txiki eta ertaineko landa- eta hiri-inguruneak mantentzearen alde lan egingo da, jarduera ekonomikoen, kulturalen eta turistiko jasangarrien garapena bultzatuz, baita populazioa iraunaraztearen alde ere, kohesio soziala hobetuz eta tokiko identitate senik handiena garatuz.

Donostiako aireportua

Gipuzkoako konektibitateak, Renfe eta Euskotren trenbide-sareaz eta errepideko garraio-zerbitzu publikoez gain, Donostiako aireportuan du garrantzizko beste ardatz bat Gipuzkoako lurraldeko sarrera eta irteerako ate gisa.

Gipuzkoako PSE-EEk azken legealdi honetan hegaldi berriak lortzen jardun du lanean –lehen aldiz hegaldiak egin dira Londresera bi udalditan– baita pisten segurtasun-ziurtagirien eskakizunetatik eratorritako arazoei aurre egiten ere, kontuan izanik Europako araudiak ezarritakoak direla eta pista moztera berekin ekarri dutela. Gainera, pista mozte horrek, nabigazioan segurtasunari lotutako beste arazo batzuei gehituta, ziurgabetasun handiagoa sorrarazi du aerodromoaren bideragarritasunaren inguruan.

Gipuzkoako sozialistek defendatu egin dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako eta Irungo udalen bitartez aireportuaren sustapenerako Ortzibia sozietatean parte hartuz, aireportuaren eta instalazio horren menpeko lanpostuen benetako operatibitatea mantentzea. Azkenik, lortutako Europako segurtasun-ziurtagiriarekin eta Bartzelonarako hegaldiak egiten dituzten A319 hegazkinen operatibitatea bermatzeko pista artekatzearen soluzio teknikoarekin, nabigazioaren hobekuntza teknologikoei lotutako lanak amaitzea geratzen da, kontuan izanik ondorio positiboak izan ditzaketela aireportuaren operatibitatean.

Hirigintzaren ikuspegitik jabetzen gara enklabe konplexu batean kokatutako azpiegitura horrek gainean dituen mehatxuez, Frantziako aireko espazioaren eraginpean. Legealdi honetan arriskuan ikusi ditugu Hondarribiarentzat estrategikoak diren hegaldiak, Bartzelonako Prat-ekin egunero konektatzen gaituena, besteren artean. Horregatik, eta aisiako eta negozioko turismoaren industriari zor diogun babesagatik, gure jarrerak irekia izaten jarraitzen du aireportuaren etorkizuna ziurtatuko duten neurriak babestearen alde, AENArekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Hondarribiko eta Irungo udalekin lankidetzan.

Orain, aireportua bidaiarien kopurua progresiboki gehitzen ari denean, Donostiako terminala irmotu egin beharrean da sarrera eta irteerako ate gisa, gipuzkoarrentzat ez ezik, bisitarientzat eta turistentzat ere. Donostia-Hondarribia aireportuak gai izan behar du Gipuzkoa izaten ari den turisten hazkundeari erantzuteko, eta eraginkortasunez eman behar du zerbitzua komunikazio-azpiegitura bat eta gure lurraldera iristen diren turisten sarbide bat den aldetik.

Pakete turistikoak eta charter hegaldiak gehitzeaz gain, lan egin beharrean gara Madrilerako eta Bartzelonarako oraingo hegaldietako txartelen prezioak murriztea lortzeko, eta denboran modu eutsi batez, Londreserako hegaldia berreskuratzea, operatibo egon zena bi udalditan.

Pasaia Badiaren erregenerazioa

Datorren legealdian, Pasaialdearen erregenerazio integralaren proiektuak amaitzeari heldu behar zaio. Portuko Plan Bereziaren berrikuspena behin betiko onetsi ondoren, eta Hospitalilloko eta Adinberri zahartzeari buruzko ikerketa-zentroko proiektu enblematikoen tramitazio administrazioa amaitutakoan, obra hauei ekin behar zaie:

- Hospitalilloko lurpeko parkinga eta Adinberri zahartze-zentroa eraikitzea.

  Bi ekipamenduen eraikuntza-lanekin batera, gure proposamena da Hospitalilloko parkingaren kudeaketa Pasaiako Udalari lagatzea kudeaketa-hitzarmen espezifiko baten bitartez, zeinak udalari aukera emango dion pasaiatarrei bertakoentzako aparkalekuak eskaintzeko, komenigarritzat jotzen den erregimenean, kontuan izanik era horretan udalerriaren arazo nabarmenetako bat arintzen dela, aparkaleku gabezia, alegia. Hospitalilloko parkingak, gainera, errotazio-plazak izango lituzke, eta beste batzuk erreserbatuta Adinberri zahartze-zentroaren premietarako.

- Ipar Herreran sortutako gune ekonomiko berriak definitu eta bultzatzea

  enpresei, kulturari eta hezkuntzari lotutako jarduera berriak bertan instalatzeko eta lanpostuak sortzeko aukera emango dutenak. Zentzu horretan, gure proposamena da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin negoziatzea, gune horretan euskal Online Unibertsitate Ireki bat kokatzea lortzeko, zerbitzu eta prestakuntza birtualak emango dituena, Euskadiko prestakuntza-premiei erantzuteko.

- Lonjako obrak amaitzea,

  barnealdekoak, oraindik egin gabe dauden languneak egokitzekoak, eta eraikin nagusikoak, baita kanpoaldekoak ere, plaza eta eraikinaren ingurunea urbanizatzeari lotutakoak.

- Pasealeku eta espazio publiko berriak Trintxerpen eta San Pedron,

  Hospitalillotik Lonjaraino eta Ondartxo pasealekuaren hasieraraino, portu-hiri ingurunean. Zentzu horretan, administrazio guztiek egin behar diete aurre hiri-berdegune urriei, eta aisiarako eta jolaserako espazio berriak sortu, baita txirrindularientzako konexio bat ere Portuko Agintaritzaren lursailen inguruan, udalerriko barruti desberdinen arteko lotune izateko balioko duena.

- Portu-Hiri batzorde iraunkor bat sortzea Portuko Agintaritzaren eta Pasaiako Udalaren artean,

  Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzarekin, udalerriaren eta portuko lurzoruaren arteko eremu mugakidean partekatutako proiektuak eta jarduerak koordinatu eta bultzatzeko foro gisa jardungo duena.

- Pasaiako Portuaren lehiakortasuna hobetzen laguntzea.

  Gipuzkoako sozialistek apustu irmoa egiten jarraitzen dugu Pasaiako Portuaren orainaren eta geroaren alde, eta apustu horretarako, nahitaez, Portuko Agintaritzak ezinbesteko inbertsioei egin behar die aurre portuaren lehiakortasuna hobetzeko, oraingo trafikoak sendotuz eta bermatuz eta beste berri batzuk lortuz, portuan maniobratzeko ahalmena, sakonera eta espazioak handituz, eta portuko azpiegiturak eta zerbitzuak teknologikoki modernizatuz.

- Pasaiako Itsas Festibala.

  Legealdi honetan, sozialistek Pasaiako Itsas Festibalaren ospakizuna bultzatu dugu, bi urtean behin izatea nahi duguna. Festibal honetan, 100 ontzi tradizional baino gehiagok ainguratu zuten portuan eta disfrutatu ahal izan zituzten bai pasaiatarrek bai hurbildu ziren bisitari guztiek ere. Pasaiak aspalditik ez zuen halako ekitaldi bat hartu; 2 milioi eta erdi eurotik gorako inpaktu ekonomikoa izan zuen udalerrian eta, horrez gain, komunitatea, bizikidetza eta pasaiatar izatearen harrotasuna sortzeko balio izan zuen, askotan ezezagun den udalerri horrentzat. Hala, Itsas Festibala elkarraldi kultural eta

turistiko handi bat da gainera, Pasaia nazioarteko eszenarioan kokatuko duena. Datozen edizioetan, Europako itsas ondareari lotutako kultur eragile garrantzitsuen elkargune izateko ere balio behar du ekitaldiak, baita bisitariak erakartzeko ere, kasu askotan, gura badia lehen aldiz ezagutzeko aukera izango dutenak. Horrek guztiak aukera bikain bat adierazten du turismoak eta kulturak aberastasun- eta enplegu-iturri ere izateko, gure sektore tradizionalekin batera, Pasaiaren erregenerazioa eta aurrerabidea bultzatuko dutenak, erregenerazio urbanistiko eta arkitektonikotik harago, pasaiatar guztientzako bizi-kalitate eta ongizate handiagoa lortze aldera.

Jarduera estrategikoak lurraldean

Lezo-Gantxurizketa plataforma:

Lan-talde espezifiko bat sortzearen alde egiten dugu apustu, Lezo-Gaintxurizketa plataforma logistikoaren proiektuan inplikatutako eragile ekonomiko eta sektorialekin batera lan egiteko, horrela aurreratuko baita Gipuzkoako premiei eta, zehatzago, Pasaiako portuko eta Donostia-Baiona korridoreko premiei zerbitzua emango dion plataforma logistiko horretan.

Vialrun, trenbide-gunea suspertzeko aukera bat:

Sozialistak Vialrun proiektuaren alde gaude, Irungo erdi-erdian kokatutako eta erabiltzeari utzitako bide-hondartzetako trenbide-guneak berreskuratu eta suspertzearen alde, Pasaiakoarekin batera, Gipuzkoako hiri-erregenerazio proiektu erakargarri eta beharrezkoenetako bat delarik. Gipuzkoa osoko lurralde-oreka eta kohesio soziala bultzatzeko ikuspegi integral batetik, erabakitasunez babestuko dugu Irunen hiri-parke zientifiko bat sortzeko proiektu hau, bizitegi-erabilerak, ekonomikoak, hezkuntzakoak, zientifikoak eta aisiakoak elkartuko dituena, horrelako espazio batek behar dituenak Gipuzkoako bigarren hirirako eta Bidasoako eskualderako.

Industrialde degradatuak:

Gure proposamena da industrialde degradatuak dituzten udalentzako dirulaguntza-lerro bat martxan jartzea, aukera eman diezaien errekuperazio urbanistikoa, ekonomikoa eta soziala lortzeko aukerak aztertu eta gauzatzeko, espazio horiek sor ditzaketen aukerak, alegia. Lurzoru abandonatua eta kasu ugaritan degradatua berreskuratu behar dugu, krisi industrialen eta ekonomikoen eraginez Gipuzkoako lurralde osoan zehar sortuak, eta berriro jarri behar ditugu garapen ekonomikoaren eta herritarren ongizatearen zerbitzura, oraingo euskal Lurzoruaren Legeak Foru Aldundiei inposatzen dizkien mugak gaindituz.

Lurralde-planak berrikustea:

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak partekatutako lana, udalerriaz gaindiko lurralde-antolaketako LPPak berrikusteko. Era horretan, Gipuzkoa osoko lurralde-oreka bermatuko da, lurralde osoa hartuko duen udalerriaz gaindiko ikuspegi integratzaile batetik.

Ekipamendu komertzialak eta saltoki txikiak:

Merkataritza-jarduera bizitegiek osatutako hiri-bilbeen antolaketan integratzea, hiriguneetako aldirietan ezartzea saihesteko. Tokiko eta gertuko merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea defendatzen dugu, kohesio soziala egituratzeko eta herritarrek osatutako komunitateen dinamizazio ekonomikoa eta soziala lortzeko.

- Mugaz haraindiko lankidetza:

  Frantziako AUDAPekin eta Nafarroako Gobernuarekin harremanak sakontzea. Izan ere, haiekin dagoeneko hasia da lana lurralde-eremu desberdinetan, oraingo mugaz haraindiko lankidetzan oinarritua. Gure iritziz “Baiona-Donostia Euskal Eurohiria” aztertu eta berrikusi beharrean da bere estrategia, Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak pisu handiagoa hartu ahala.